

IKASLEEN MOTIBAZIOA, HIZKUNTZ PLANGINTZAK ETA EUSKALDUNTZE- ALFABETATZEA, ELKARREN OSAGARRI

HIZNET 05-06

MARIVI JAIO

LOREN MARTINEZ

ARKAITZ ZARRAGA

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. EGOERAREN AZTERKETA

2.1. Azterketak

3. LAN ENPIRIKOA

3.1. HELBURUAK

3.2. GURE HIPOTESIAK

3.2.1. HIPOTESIA

3.2.2. HIPOTESIA

3.2.3. HIPOTESIA

3.2.4. HIPOTESIA

3.2.5. HIPOTESIA

3.2.6. HIPOTESIA

3.2.7. HIPOTESIA

3.3. METODOLOGIA

3.4. LAGINA

3.5. PROZEDURA

3.6. AZTERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK

3.7. HIPOTESIEI BURUZKO ONDORIOAK

4. EGOERA KONPONTZEKO PROPOSATZEN DUGUN BIDEA

5. MOTIBAZIOAREN INGURUKO TEORIAK ETA LANAK

5.1. TEORIAK

5.2. GURE TESTUINGURUAN EUSKARA 2H BEZALA IKASTEKO MOTIBAZIOAREN INGURUAN EGINDAKO HAINBAT LANEN EMAITZAK

5.2.1. PERALESEN LANA (1989)

5.2.2. SIADKOREN LANA

5.2.3. GOIHERRIKO EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN MOTIBAZIOA.

6. PLANGINTZAK

6.1. BAI EUSKARARI

6.2. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

6.2.1. PLANGINTZA OROKORRA

6.2.2. EBPENEN GARAPENA UDALETAN: EGOKITZAPENA ETA METODOLOGIA

7. IRAKASTEKO METODOLOGIA

7.1. HEOK

7.1.1. OINARRI SOZIOKULTURALA

7.1.1.1. ALDERDI SOZIOLOGIKOA:

7.1.1.2. OINARRI KULTURALA

7.1.2. HIZKUNTZA

7.1.3. OINARRI PSIKOPEDAGOGIKOA

7.2. EUROPAKO ERREFERENTZI MARKOA

7.3. PORTFOLIOA

8. BUKATZEKO

9. BIBLIOGRAFIA

10. A ERANSKINA: ITXAROPENERAKO IDAZLANAK

11. B ERANSKINA: EGA 84-EGA 04

12. C ERANSKINA: INKESTA

13. D ERANSKINA: DATUAK

1.SARRERA

Lan hau egiteko arrazoia argia da. Euskalduntze-alfabetatzean urte batzuk daramatzagun irakasleak izaki, egunerokotasunean topatzen dugun errealitateak kezkatu egiten gaitu. Ikasgeletatik ikasle asko pasatzen dira, helburu, izaera, kezka, gaitasun eta sentsibiltate ezberdinekin. Baina ez dugu nabaritzen hauek euskararen normalizazioan duten eragina egiten den esfortzuaren adinekoa denik. Euskaltegietatik irteten diren hiztunek ez dute hizkuntza normaltasunez erabiltzeko aukerarik eta, ondorioz, euskaldun moduan jarduteko ere ez.

Lan honekin ez gatoz konponbide magikoa aurkeztera, horrelakorik dagoenik ere ez dugu uste. Seguruenik esaten duguna ezagun izango zaio irakurtzen duenari. Gure usteak eta han-hemen entzundakoak eta irakurritakoak paperean jarri besterik ez dugu egin. Ikerketa enpirikoa eginez saiatu gara hau guztia frogatzen, eta azkenik, dauden joera eta tresna berrien arteko uztarketa proposatu dugu. Software librearekin gertatzen den moduan, gure lana ere hartzen duenak osatu eta hobetzeko egina dago. Beraz, boligrafoa eskuan irakurri eta, ahal izanez gero, bertsio berriak guri helarazi.

Gure tesiaren mamia laburbilduz, gure ustez, perfilen sistemak, euskaltegietara ikasle asko bultzatzen baditu ere, motibazio txarra eragiten die. Hauengan euskaraz aritzeko motibazio egokia eragiteko, euskaltegia ez da nahikoa. Euskara egoera gutxituan egonik, beharrezkoa ez izateaz gain, askotan erabiltzeko aukera gutxi egoten da, are gehiago zenbait lurralde eremu eta gizarte arlotan. Plangintzak dira egun euskalduntze prozesuan aurrera egiteko bidea, eraginkorra eta ilusio sortzailea. Ezin testuinguru hobea gure ikasleak trebatu eta motibatzeke. Trebatzeke, ikasleak erabilera errealean jarduteko aukera izango duelako eta esanguraz hornitutako ikas-prozesua burutzeko elementuak eskainiko dizkigulako; motibatzeke, ikasleen aurrerapausoek eragin zuzena izango dutelako plangintzaren aurrerabidean. Gainera HABEren Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikulua, irakaskuntza mailan, metodologia komunikatibo eraginkorrean asmatu ahal izateko tresna egokia izan daiteke. Gainera, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak ikaslearen ikas-prozesuan eragiten duten elementuak zehazteaz gain, hauen deskribatzaile mailakatuak proposatzen ditu. Testuinguru bakoitzari egokitu beharreko deskribatzaile hauek helburuen zehaztapenerako, programaziorako, eta ebaluaziorako guztiz erabilgarriak izan daitezke.

Hau guztia kontuan izanda, euskalduntze-alfabetatzea plangintzetan integratzeko egokitze-prozesu bat egin beharko litzateke, lurralde irizpidez

antolatuta dauden euskaltegiez gain, arlokako bereizketa bultzatuz. Honek, noski, aldaketa esanguratsuak eskatuko ditu aritzeko eta antolatzeko moduan arlo eta maila ezberdinetan.

2.EGOERAREN AZTERKETA

Urteak pasa ahala euskaltegietara etortzen zaizkigun ikasleen motibazioa eta jarrera aldatzen joan direla argi eta garbi ikusten dugu. Debekutik irten berritan euskaltegietara joaten ziren ikasleak eta gaur egungoak oso ezberdinak direla esateak ez du inor harrituko. Garai hartan tituluek ere ez zuten garrantzirik eta joaten zirenak euskara lapurtu zietela sentitzen zuten euskaltzaleak ziren gehien bat: ikastoletara umeak bidaltzen zituzten gurasoak, jende gazte abertzalea... Baita ikastoletan lan egin nahi zuten irakaslegaiak ere. Egoera beste bat izanik ere, erabiltzeko grina zeukaten eta ahal zuten guztietan aritzen ziren euskaraz. Garai hartan gainera, metodologia ez zegoen oso garatuta, ezta irakatsi beharreko corpusa bera ere. Euskara ikastearekin batera, bestelako ezagutza kultural asko eskuratzen ziren, berauek berreskuratzearekin bat. Esan liteke euskalduntzen zirenek fideltasun handiagoa ziotela euskarari.

Baina denbora aurrera joan ahala, ikasleen tipologia ere aldatu egin da. Norbaitek esan lezake, ikasi nahi zuenak honezkero ikasiko zuela, eta neurri batean baino ez bada ere, ez zuen arrazoirik faltako. Argi dago borondate handiena zutenek lehenago heldu ziotela euskalduntzeari. Baina egia da, era berean, euskalduntzeak ahalegin handia eskatzen duela.

Kontra dugun faktore garrantzitsu bat hizkuntzak berak duen zailtasuna da. Argi dago gure ikasleen lehen hizkuntza eta gurea oso hizkuntza ezberdinak direla (errazago daukate horretan katalanek). Askok izan dira bidean geratu direnak. Euskara zaila delako sententzia oso hedatuta dago, baina sarritan esan liteke, guk geuk ere zaildu egiten dugula. Badirudi aditzik zailenak eta lexikorik ezkutukoena ezagutzea, euskara maila jasoaren adierazle dela, benetako erabilera xume eta eraginkorraren kaltetan. Azterketek badute, zalantzarik gabe errurik honetan. Hizkuntzen irakaskuntzan, frogatuta dago motibazio ona duten ikasleen %99 gai izango liratekeela itxurazko ezagutza praktikoa bat lortzeko (baliabideak izanez gero eta egoera normalizatuan).

Batzuentzat ustezko zailtasun hori erabakigarria izan da, beste batzuentzat, berriz, eguneroko beharra izan da uzteko aitzakia. Egia esan, eguneroko lana amaitu eta euskaltegian bi ordu eman behar izateak esfortzu handia eskatzen du.

Honi diruaren arazoa gehitzen badiogu, "euskara=inposaketa/diskriminazioa" argudioaren hedaduraren arrazoi nagusienetako bat daukagu.

Egia esan, arlo horretan ere, askotan ez zaie arrazoirik faltako oso garestia dela eta bidegabekeria handiak daudela esaten badute. Hasteko, funtzionarioek, lanik desiratuena dutenek, debalde daukate euskaltegia; langabetuek, berriz, lanerako behar duten perfila lortzeko ordaindu egin behar dute. Hori gutxi balitz bezala, udal euskaltegia duten herrietako biztanleek sare publikoan ikasteko aukera izango dute, baina hiriburuetakoei adibidez, derrigorrean, pribatuan ikasi beharko dute. Euskara ikasteko laguntzen kopuru esanguratsu bat ere udalaren araberakoa da; beraz, gobernuan dagoen alderdiaren borondatearen araberakoa izango da, eta lau urterik behin alda daiteke. Dirutan ezberdintasuna ez da nolanahikoa. Gainera, konpromiso maila altuena erakutsi eta barnetegi batean ikasi nahi dutenek izugarritzko dirutza ordaindu behar dute (ia 600 euro hilean). Egia esan, euskaraz jakitea eskubidea izanik, ordaindu behar izateak kontraesana dirudi, batez ere, Hezkuntza Saitetik eskainitako irakaskuntza ofizialak ez dionean ikasleari ezagutza maila nahikorik eman. Agian hemen legeria errebisatzea ere ez litzateke gaizki egongo.

Gainera, zenbait lanetara jo ahal izateko izan ezik, bizitza normala egin ahal izateko ez dago euskararen beharrik. Erdara hutsean bizitzea erabat posible da gure gizartean. Zenbait eremutan euskara oso gutxitan entzungo dute oraindik ere.

Gauzak horrela, hizkuntzaren zailtasuna, denbora, dirua, hizkuntza erabiltzeko aukerarik eza eta hizkuntza ezagutzeko beharrik eza, kontra dauzkagun elementu garrantzitsuak dira. Horren ondorioa da herritar asko ez direla motibaturik edo euskara ikastera bultzaturik sentitzen eta, kontuak kontu, euskaraz aritzeko gaitasuna dugunok %33 baino ez gara. Baina aurrera egin beharra dago.

Euskaltegitik inoiz pasatu ez diren herritar elebakarrak asko dira, baina gainera, gure ustez, gaur egun Euskal Herriko euskaltegietan dauzkagun ikasle asko eta askoren motibazioa eskasa da. Hau da, euskaltegietara joaten diren ikasle gehienak titulu ofizialen bat lortzeko joaten dira. Askoren helburu nagusia lan jakin baterako eskatuko dieten azterketa gainditzea da. Horretarako, ahalik eta denbora gutxienean, ahalik eta azterketa gainditzetik hurbilen egotea da bilatzen dutena. Sarritan, motibazio instrumentala dutenik ere ezin esan liteke, ez baitute euskara lanean hobeto aritzeko edo lagun berriak egiteko nahi, titulu bat lortzeko baizik. Askok, gainera, aitortu egiten dute ez dutela egunerokotasunean euskaraz egiteko asmorik.

Gainera, gaur egungo ebaluazio moduaren inguruan sortzen ari den diskurtso negatiboa kutsakorra da eta honek jarrera negatiboa zabaltzen du. Euskararen normalizazioaren kontra daudenek, klaseetan giro txarra zabaltzeko ahalegin handia egin dute. Hau, bestelako eraso zuzenekin batera, helburuak lortzeko ditugun mehatxu handienetakoa da.

Nahiz eta egia borobila den lana aurkitzeko perfilak eskatu ezean gure ikasleen erdiak baino gehiagok ez lukeela euskara ikasiko, ezin dugu ukatu azterketa bat gainditu beharrak presio handia sortzen diela eta horrek jarrera negatiboa eragiten diela. Beraz, bide berriak urratu beharko lirateke.

Jarreran eragiteaz gain, azterketek eragindako presioak ikas-prozesuan ere garrantzi handia hartzen du. Ikasleek urratsetan gora egitea dute helburu. Erdietsitako euskara maila ez dute egoera ezberdinetan jarduteko lortutako gaitasunaren arabera neurtzen, baizik eta urtean zehar egindako urratsen kopuruagatik. Ikas-prozesua azkartzea bilatzen dute. Euskara modu naturalean eta aberastasunez ikasi beharrean azterketaren ereduari jarraitzen diote. Hori dela eta, hausnartu ere ez du hausnartuko egin duen ibilbidearen inguruan. Ez du kontuan hartuko zenbat testu mota ezberdin ulertu eta sortu dituen, benetan erabiltzen duen hiztegia hobetu duen edota berau eskuratzeko zeintzuk estrategia garatu dituen. Ondorioz erabilerarako motibazioa garatzetik urrun egongo da.

Ohikoa izaten da ikasleek denbora galtzen ari direlako sentsazioa izatea guztiz akademikoak ez diren jarduerak proposatzean. Askok antzerki, txango, hitzaldi eta abarretan ez dute parterik hartzen. Beraz, ez dute egoera errealean erabiltzeko aukerarik bilatzen eta dituztenak ere ez dituzte baliatzen. Gainera, askotan, ikasleek zuzentasunari gehiegi erreparatzen diote eta kale egiteko beldurrak komunikatzea galarazten die. Beste batzuetan klasean erabiltzen duten hizkuntza oso urrun geratzen zaio kaleko solaskideari, eta ikasleak antzematen du urruntasun hori. Izan ere, onartu egin behar dugu euskaltegiko euskara eta benetako erabileraren artean alde handia dagoela. Ikaslerik ausartenek, maila polita lortutakoan, ahaleginak egiten dituzte ikasitakoa praktikan jartzeko, artean motibatuta daude eta. Esperientzia ona bada, eroso sentitzen badira, bai nahiko modu jatorrean egiten duelako, bai mintzakideak eroso sentitu direlako beraiekin euskaraz aritzean... bidearen zatirik zailena urratuta izango dute. Ahalegin horiek, ordea, hutsalak izan badira, lotsatuta, arraro, lekuz kanpo sentitu bada, mintzakideen parte-hartzea lortu ez badu... hurrengoan seguruenik saiatu ere ez da egingo. Zentzu honetan, euskal hiztunen komunitatearen jarrera ona funtsezkoa izango da. Atzerritar batek euskara ikasten duenean, txalotu eta lagundu egiten diogu, baina euskaldun berriarekin ez dugu berdin jokatzeko.

Perfila lortzeko azterketek baina, arazo larri bat daukate. Tranpa egin ahal zaie. Mundu guztiak daki zeintzuk urrats eman beharko dituen nahi duen titulua lortzeko. Gauzak horrela, eginbeharreko horiek egitera bideratutako ikas-prozesua egitea besterik ez dago. Ariketa bakoitzak badu bere estrategia, eta gaur egun euskaltegi askotan teknika horiek lantzen ematen dituzte ikasleek orduak eta orduak.

Egia esan behar bada, irakaslearen sentsazioa horretara bultzatuta gaudela da. Ikasleek hori eskatu (exijitu) egiten dute. Irakaslearen ikuspegitik gainera, aitortu egin behar da, ez dago hori baino gauza errazagorik, programatzean egin beharreko lana asko errazten baita. Klasean, ordea, batzuetan presiopean lan egin behar izaten da. Batzuetan izaten da komeriarik, irakasleak zalantzak baditu edo errakuntzaren bat egiten badu (ohikoa, berritzen ari den corpora daukagula kontuan hartuta).

Beste alde batetik, denoi gustatzen zaigu ikasleak pozik edukitzea. Talde askotan, bestelako ikas-prozesu bat planteatzeak liskar gogorra suposa lezake. Ohikoak dira ikasgeletan maila ezberdintasunak direla, trebetasun batzuk besteak baino gehiago landu nahi izatea dela, sortzen diren liskarrak. Maila baxuagoa duen ikaskidea balaztatzea hartzea ere ohikoa da, nahiz eta, noski, balizko maila hori oso subjektiboa izan. Honek, jakina, giroa gaiztotzea dakar.

Gainera, ikasleek azterketa pila bat egiten dituzte, aukera gehiago izateko azterketa guztietara aurkeztu ohi dira eta. Adibidez, goi mailako titulua lortu nahi duen irakasle- gaia EGA, Hizkuntz Eskolako Goi Zikloa, IRALEko 2. HE, eta HAAEko 3.HE lortzeko azterketetara joango da. Ikasleak oposizioak noiz sortuko egoten dira, azterketa bat egin ahal izateko. Jakina, honek ikaslearen arreta erabat desbideratzen du. Oso ohikoa izaten da ikasleek hilean azterketa bat edukitzea eta, jakina, maiatz eta ekainean denak egoten dira horiei begira.

Titulua lortzea ez diren beste arrazoi batzuk dituztenek bi joera izan ohi dituzte: kutsatu eta dinamika horretan sartu, edo haserretu eta ikastaroa utzi.

Bestalde, hurrengo azterketan idazlana gaingitu behar duenak ez du ahozkoa landu nahi izango, eta laster ahozko proba gaingitu beharko duena, goiz eta arratsalde ibiliko da norbaiti bere artikulutxo laburbildu nahian.

Ikasle askok sinonimo zerrenda ikaragarriak ikasten dituzte buruz, eta nahikoa izaten da "agian" esatea "akaso", "beharbada", "apika" eta beste zazpi hitz gaineratzeko. Txiste bat kontatzen jakin gabe, Lekeition edatean darabilten onomatopeia ezagutuko dute (hori bai, testuingurutik erabat kanpo), bai donostiarrek bai iruñarrek.

Horretaz gain , erizain batentzat, suhiltzaile batentzat eta Haur Hezkuntzan arituko den irakasle-gai batentzat gauza berdinak lantzen ditugu, azterketa ereduak halaxe eskatzen dutelako. Haur Hezkuntzakoak alkateari makina bat gutun idatziko dizkio, baina ez du ipuin bakar bat kontatuko. Ez dugu kontuan hartzen ikasleak hizkuntza zein testuingurutan eta zertarako erabiliko duen, baizik eta zein ariketa mota menperatu behar dituen. Ondorioz, ikasleari zaila egiten zaio bere burua euskaraz normaltasunez aritzen irudikatzea eta, beraz, nekezago egingo zaio ikastea.

Ikasle askok, gainera ez dute norekin hitz egin. Aipagarriak dira EGA lortu ostean, euskaltegia "mintza" talde batera joaten direnak ikasitakoa ez ahazteko edo lehenago lortu ez zuten maila eskuratzerak. Han, noski, irakaslearen eta ikaskideen jarduna baino ez du entzungo.

Nolabait esateko, azterketetan eskatzen dena ikasketa prozesuaren helburu bihurtzen da. Bertan eskatuko dizkiguten testu generoak landuko ditugu, bertan agertu ohi diren hitzaldi ereduetan trebatuko ditugu ikasleak, eta abar. Beraz, finean, euskalduntzen lagundu nahi dugun ikaslearen "perfila" azterketek ematen digute, eta ez berak izango dituen beharren eta nahien nolakotasunak.

Egia esan, gure ustez, perfilen sistema ez da biderik egokiena ez motibazioa sustatzeko, ez plangintza estrategikoaren barnean txertatzeko. Gainera ez dute kurrikulumean jarritako helburuak ebaluatzeko balio.

2.1. Azterketak

Hasteko, irakasleok ondotxo dakigu urtero-urtero "milagroak" gertatzen direla. Guk ontzat emango genituzkeen askok ez dute gaingintzen, edo krudelagoa dena, euren lana euskaraz ederto beteko luketen askok ez dute gaingintzen, eta urtean zehar gaitasun eskasa erakutsi duten beste batzuek, ordea, gaingintu egiten dute. Estrategia ezberdinak erabiliz, azterketak egiten egundoko trebezia lortzen dute eta, gure harriidurarako bada ere, gaingintu egiten dute. Urte osoan egindako lanak ez du inolako onespenerik edo baliorik lortzen titulurik lortu ezean, izan ere, urtean zehar egindako ibilbideak ez du inolako pisurik emaitzetan, ezta irakasleen ebaluazioak ere.

Bestetik azterketek eragin psikologiko handia dute ikasleengan. Egun bakar batean lanpostu on baterako giltza jokoan jartzeak ez dio inolako mesederik egiten hizkuntzaren ikas prozesuaren urratsei modu positiboan erantzuteko. Ahozko probak, adibidez, estuasun egoera larriak sortzen ditu. Ez da arraroa izaten pilulen trukaketa ahozkoaren aurretik. Gauzak horrela, ikasleek egundoko

estrategia piloa garatzen dute azterketei aurre egiteko, bai eta nerbioei eusteko ere.

Gainera, urteak dira zenbait azterketa ez direla aldatu. EGA azterketa sortu zenetik urte asko joan dira, baina oinarrian azterketak berdin jarraitzen du (C-eranskina). Funtsean, ariketa berdina da (oraingoa laburragoa), itemen zailtasun maila eta zenbait ebaluazio irizpide aldatuta.

Gaur egun, hizkuntzaren irakaskuntza ikuspegi komunikatibo eta funtzional batetik ikusten dugun aldetik, ez dirudi oso egokia hain mugatua den ebaluazio sistemarekin jarraitzeak. Gainera, zenbait ariketa ez datoz guztiz bat HABEren Kurrikuluaren oinarri diren zenbait printzipioekin. Aurrerago aztertuko baditugu ere, hona hemen, gure ustez urratzen diren zenbait irizpide:

- Elementu nagusia ez da hitza ezta esaldia ere: diskurtsoa da.
- Azpi-sistemak (lexikoa, sintaxia, fonologia...) testuetan aurkitzen ditugu.
- Ezagutzatik erabilerara
- Formaletik instrumentalera
- Sistema sintetikotik analitikora
- Produktutik prozesura
- Esalditik testura eta pragmatikara
- Zuzentasunetik egokitasunera

Azter dezagun, bada, gaur egun balio ofiziala duen titulurik desiratuenaren ariketak

EGA

Atarikoak

1994az geroztik sortutako proba da. Azterketa bera, filtro moduan jarrita dago eta horrela onartzen du HABEk ere: " Azterketara aurkezten ziren hainbat herritarren gaitasun edo euskara maila urrundik ere nahikoa ez zela eta, aldi berean, horrek aztertzaile talde gero eta handiagoa eskatzen zuela. Hortaz, agiria lortzeko bidea apur bat mugatzea deliberatu zen: azterketa idatzia eta ahozkoa egiteko aukera trebetasun edo gaitasun maila arrunta frogatzen zuten azterketariak izango zuten, ez denek". Onartu egiten da jendea dagokion baino

maila altuagoko azterketetara aurkezten dela eta, beraz, helburua titulua bera dela.

Ariketak honako egitura du:

- Azterketak 100 item edo ariketa ditu, aukera anitzeko 100 item.
- Azterketa hori gainditzeko 75 item zuzen erantzutea eskatzen da; txarto erantzundakoengatik ez da punturik kentzen.
- Erantzun zuzen edo egoki bakarra dute ariketek.
- Euskara maila egokia duen normahik asmatzeko moduko azterketa gertatu behar da; beraz, alde batera uzten da arlo espezialduei dagokien jakituria zehatza.

Sailak

Azterketak honakoa neurtzen du:

- a) Entzutezko ulermena: 15 +/- 3
- b) Ahozko hizkuntzan oinarritutakoak 30 +/- 3
- c) Lexikoan oinarritutakoak 10
- d) Morfosintaxia 24
- e) Euskara batua jakitea 8
- f) Hizkuntza idatziaren ulermena 8
- g) Beste batzuk 5

Entzutezko ulermenean, sarritan, gelako baldintzak eta egoeraren larritasunaz gain, itemen izaera korapilatsuak bihurtzen du zaila zati hau. Testu eredua elkarrizketa izaten da gehien-gehienetan, beti ere audio hutsean. Beste atalei dagokienez, testuingururik gabe ematen dira. Zuzentasunari bideratutako ariketa da nagusiki.

Sarritan txikikeriak galdetzen dira, eta horrek ikasleek urtean zehar horrelako kontuei begira egotea dakar, ahaleginen dispersioa sortuz.

Idazlana

Testu eredu jakin bat egin beharko da, normalean argudio edo azalpen-testua. Esan liteke, zuzendariei gutun bat edo aldizkari batean agertzeko testuak liratekeela, baina benetan, testu eredu horien benetako toki soziala euskaltegia da. Euskaltegietan egiten dira gehien horrelako idazlanak, ez horrenbeste bizitza errealean. Beraz, sarrerak eta amaierak prestatu, erditik zenbait egitura txertatu (baldintzaren bat, subjuntiboren bat, konparazio esaldi landuren bat, hitz arraro pare bat) eta gutxi-gorabehera, zuzentasun akats larririk egin ezean gainditzeko moduan egongo da. Gaia asmatzeko kinielak egiten dira, asmatuz gero, ia-ia idazlana etxetik prestatuta eraman daiteke eta. Sasoi batzuetan, gutxienik, astean idazlan bat egiten dute. Testuaren egitura eurenganatutakoan, idazlanak egin eta egin eta zuzentasuna fintzen dute. Ohikoa izaten da, gainera, beste ariketetan ikasitakoa (atarikoetan, berridazketetan, sinonimoetan...) idazlanean txertatu nahi izatea. Ondorioz, testu zuzen-zuzenak ekoizten dituzte, baina egokitasunaren kaltetan. Ondorengo helburua azterketan eskatzen dituzten 300 hitzak ordu bat baino gutxiagoan egitea izaten da, horrela, azterketaren beste ataletarako denbora gehiago geratzen da.

Berridazketak

Esaldia hartzen du egitura nagusi moduan. Klasean egiteko ariketa polita izan badaiteke ere, ez da item egokia ikaslearen gaitasuna neurtzeko, gaitasun partziala neurtzen baitu, gaitasun gramatikala edo morfosintaktikoa gehienetan. Ematen den elementu berria erabiliz eta esanahia aldatu gabe, esaldiak berridatzi egin behar dira. Askotan ikasleak aztertzaileek zer nahi duten esatea asmatu egin behar du, beste askotan kostatu egiten da ikasleak idazteko lerroetan agertzen diren laburdurek zer bilatzen duten jakitea. Galdegaiari eta ordenari gehiegizko garrantzia ematen zaio. Ikaslearen ikas-prozesuan garrantzi handia hartzen du ariketa honek eta esaldi motak eta elementu gramatikalak testuingurutik kanpo ikastea dakar (osagarriak, erlatibozkoak, subjuntibera...).

Sinonimoak

Lexikoa, testuinguru txiki eta sarritan esangura nahasikoa emanda neurtzen da, beti ere beste hitz baten ordezeko moduan jartzeko. Ikaslearen lexikoaren neurketa eskasa egiten da. Ikasleek EGA maila lortzean, sarritan perifrasiak, anafora kontzeptualak eta abar erabiltzen dituzte hitz egokia aurkitzen ez dutenean, baina ariketa honetan ez zaio aukerarik ematen hain garrantzitsuak

diren estrategia horiek garatzeko duen gaitasuna erakusteko. Hitz bakoitzaren erantzunek zerrenda itxi batosatzen dute. Zalantzarik gabe, eragin handia du ariketa honek ikas-prozesuan.

Irakurriaren ulermena

Testuak edonolakoak direla ere, sarritan itemak izaten dira korapilatsuak. Testua egokia izan daiteke, baina galderetan agertzen da zailtasuna. Galderen estiloa sarritan korapilatsua da, ondo ulertzeko bi edo hiru aldiz irakurri behar izaten dira.

Beste alde batetik, denbora neurtua izatea neurri batean ulergarria izan daiteke, ikasle batzuk 10 ordu egon ez daitezen, baina justu ibili behar izateak ez dirudi oso egokia. Egia da ikasle askok arazoak dauzkatela ariketa horiek guztiak denbora neurtu horretan egiteko, baina horrek ez du esan nahi euskaldun moduan aritzeko gai ez direnik.

Jakin badakigu nola edo hala neurtu behar dela ikasleen maila, baina seguruenik gure hizkuntzaren eta gizartearen ezaugarriak kontuan hartuta, ebaluaziorako modu egokiagoak bilatzeak asko lagundu ahal digu emaitzak hobetzen. Gure euskalduntze prozesua oso instituzionalizatuta dago, azterketek markatzen baitute euskalduntzen ari diren ikasle askoren ikasteko modua.

3.LAN ENPIRIKOA

3.1.HELBURUAK

Bizkaiko hainbat euskaltegitako ikasleen motibazio maila eta nolakotasuna aztertzea.

Duten inguru soziolinguistikoa aztertzea.

Solaskide mota eta toki sozial ezberdinetan, euskara erabiltzeko duten nahia eta etorkizunean izan dezaketen erabileraren igurikapena neurtzea.

Honetan eragiten duten faktoreak aztertzea.

Ikas prozesua nola enfokatzen duten aztertzea

Hizkuntz politikari buruz duten ezagutza eta balorazioa neurtzea

3.2. GURE HIPOTESIAK

3.2.1. Hipotesia

Gure ikasle gehienak euskalduntzera datozen inguru erdalduneko herritarrak dira.

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienak Bizkaian jaio eta bizi dira.

Ikasle gehienek erdaraz burutu dituzte euren ikasketak.

Ikasle gehienek lehen hizkuntza gaztelania izan da.

Ikasle gehienek hurbileko senideek ez dakite euskaraz.

Ikasle gehienek ez dute euskaraz hitz egiten euren inguru naturaletan.

Lagun ingurua ere nagusiki erdalduna da, baina gehienek badute euskaldunik inguru honetan.

Lan-ingurua erdalduna da nagusiki, baina zenbait ikaslek inguru nahiko euskalduna dute (irakaskuntza arlokoak, adibidez).

Ikasketa-ingurua dute gunerik euskaldunena.

3.2.2. Hipotesia

Gure ikasle gehienak titulu ofizialen bat behar dutelako etortzen dira euskaltegira, beraz, esan dezakegu ikasleak ez datozela motibazio integratzaileak bultzatuta.

Azpi-hipotesiak

Nahiz eta integratzeko nahia izan, ikasle gehienak, nagusiki, lanpostua lortzeko, mantentzeko edota hobetzeko etortzen dira euskaltegira.

Ikasle gehienek titulua lortu nahi dute, nahiz eta hasierako motibazioa hori izan ez.

Ikasle gehienek administrazioan lan egitea dute helburu.

Ikasle gehienak kanpotik derrigortuta sentitzen dira.

3.2.3. Hipotesia

Titulu beharrak jarreran eragiten die.

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek beti edo ia beti erdara erabiltzen dute euskaltegitik kanpo.

Ikasle gehienei euskara zaila edo oso zaila iruditzen zaie.

Ikasle gehienek azterketa gainditzea dute helburu nagusi, gainditzean utziko dute .

Gehienek elebitasunaren aldekoak direla diote.

Ikasle gehienei euskara ikasteak sentsazio eta sentimendu txar gehiago sortzen dizkio onak baino.

Ikasle gehienek balio instrumentala baino, balio sinboliko handiagoa ematen diote.

Ikasle gehienek, ordea, motibazio instrumental partziala dute (tituluari begira, ez bestelako helburuak lortzeari begira).

Azterketarik ez balego askok ez lukete euskara ikasiko.

Askok beste modu batean ikasiko luketela esango dute

3.2.4. Hipotesia

Gure ikasleek euskaraz eta erdaraz aritu nahiko lukete, oro har, inguruko pertsonekin eta bizitzaren arlo ezberdinetan.

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek erdaraz euskaraz baino gehiago aritu nahiko lukete gurasoekin.

Ikasle gehienek, euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete bikotekidearekin.

Ikasle gehienek euskaraz aritu nahiko lukete seme-alabekin.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete lagunekin.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete lankideekin.

Ikasle gehienek euskaraz erdaraz baino gehiago aritu nahiko lukete ikaskideekin.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete dendetan.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete instituzio publikoetan.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete aisialdian.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete Komunikabideen erabilerari dagokionean.

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdina aritu nahiko lukete sentimendu eta adimenaren arloan.

3.2.5. Hipotesia

Gure ikasleek ez dute gerora euren burua euskaraz irudikatzen, oro har, inguruko pertsonekin eta bizitzaren arlo ezberdinetan.

Azpi-hipotesia

Ikasle gehienek gurasoekin erdaraz baino ez direla arituko uste dute .

Ikasle gehienek bikotekidearekin, erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek seme-alabekin euskaraz erdaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek lagunekin euskaraz zein erdaraz, berdin arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek lankideekin erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek ikaskideekin euskaraz zein erdaraz, berdin arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek dendetan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek instituzio publikoetan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek aisialdian erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek Komunikabideen erabilerari dagokionean erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Ikasle gehienek sentimendu eta adimenaren arloan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute.

Euskalduntze plangintzak dauzkaten erakundeekin euskaraz aritzeko irudikapen handiagoa dago.

3.2.6. Hipotesia

Azterketa gainditu beharrak ikas-irakasteko moduan eragin zuzena du.

Azpi-hipotesia

Ikasle gehienek 3 urte edo gehiago daramate euskara ikasten.

Ikasleek ikastaro motak iraupenaren arabera sailkatzen dituzte.

Helburua titulua lortzea dutenei gustatu egiten zaie euskaltegietako ikasteko modua.

Azterketan eskatzen zaizkien ariketa motak landu nahi dituzte, beraz, horretara bideraturik ez dauden ariketei garrantzi txikiagoa ematen diete.

Ikasleei hitz egitea da gehien kostatzen zaiena.

Euskara erabiltzen dutenean ez dira lasai sentitzen.

Jatorrizko hiztunekin elkarreragina bilatzeko ez dute erraztasunik aurkitzen .

Irakaslearengan motibagarria izatea eta ezagutza maila handia izatea baloratuko dute.

Gramatikak kezkatzen ditu gehien (horretara bideratuta daudelako azterketak).

Gehienentzat euskalkiak ezarritako zailtasun bat dira.

Euskara maila euskaltegiko urratsen arabera neurtzen dute.

3.2.7. Hipotesia

Ikasleek hizkuntz politikaren inguruko informazio urria edo oso urria dute eta, hala ere, txarra iruditzen zaiela diote.

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek Hizkuntz Politikari buruzko informazio gutxi dutela uste dute.

Ikasle gehienek Hizkuntz Politikari buruzko interes gutxi dute.

Ikasle gehienek ez dute ontzat hartzen perfilen sistema.

Ikasleei garesti iruditzen zaie euskaltegia.

Ikaslek ez dute argi zein euskaltegi mota dauden.

3.3. METODOLOGIA

Ikerlan honen helburuak frogatzeko ikerketa kuantitatiboa burutu dugu. Egia esan ikerketa kualitatiboaren beharra ikusten genuen, baina ez zaigu egingarria gertatu.

3.4. LAGINA

Bizkaiko hainbat euskaltegitan egin ditugu gure inkestak. Euskaltegi pribatu batzuetan, Ulibarri eta Bilbo Zaharra Bilbon eta AEK Gernikan; bi barnetegi pribatutan, AEKko Foruko Barnetegian eta Aurten Bairen Zornotzako Barnetegian; eta Udal euskaltegi batean, Basaurikoan.

Guztira 177 inkesta batu ditugu.

Lagin hau lortzeko zailtasun berezia izan dugu, uda garaian egin baitugu eta ondorioz, euskaltegi askotan ez dute ikasle kopuru nahikorik izan. Beraz zenbait euskaltegitako lagina ez da esanguratsua. Ondorioz emaitzak ez ditugu euskaltegien arabera banatuko. Hala ere, interesgarria izango litzateke ikerketa hori egitea, ezberdintasunak gutxituz doazela uste dugun arren, , oraindik ere, motibazioari dagokionean euskaltegi motaren arabera ezberdintasunik egon daiteke. Bestalde, ikasleen perfila ez da ikasturtean zehar izaten duguna. Horrek ere emaitzak baldintzatu ditu.

3.5. PROZEDURA

Ikerlanean parte hartu duten ikasleek euskarazko galde-sorta bete dute, aurretik azalpenik eman gabe euren erantzunak ez baldintzatzeko. Foruko barnetegian, ikerketa burutu ondoren gure lanaren inguruko solasalditxo bat izan genuen bertako ikasleekin eta, zinez esan dezakegu oso aberasgarria izan zela. Horregatik esan dezakegu, ikerketa kualitatiboak egitea oso lagungarria izan daitekeela. Ikasleek beraiek ekarpen handiak egin ditzakete.

3.6. AZTERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK D ERANSKINEAN.

3.7. HIPOTESIEI BURUZKO ONDORIOAK

1. Hipotesia

Gure ikasle gehienak euskalduntzera datozen inguru erdalduneko herritarrak dira. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienak Bizkaian jaio eta bizi dira. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek erdaraz burutu dituzte euren ikasketak. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek lehen hizkuntza gaztelania izan da. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek hurbileko senideek ez dakite euskaraz. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek ez dute euskaraz hitz egiten euren inguru naturaletan. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Lagun ingurua ere nagusiki erdalduna da, baina gehienek badute euskaldunik inguru honetan. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Lan-ingurua erdalduna da nagusiki, baina zenbait ikaslek inguru nahiko euskalduna dute (irakaskuntza arlokoak, adibidez). **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Ikasketa-ingurua dute gunerik euskaldunena. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

2. Hipotesia

Gure ikasle gehienak titulu ofizialen bat behar dutelako etortzen dira euskaltegira, beraz, esan dezakegu ikasleak ez datozela motibazio integratzaileak bultzatuta. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesiak

Nahiz eta integratzeko nahia izan, ikasle gehienak, nagusiki, lanpostua lortzeko, mantentzeko edota hobetzeko etortzen dira euskaltegira. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek titulua lortu nahi dute, nahiz eta hasierako motibazioa hori izan ez. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek administrazioan lan egitea dute helburu. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienak kanpotik derrigortuta sentitzen dira. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

3. Hipotesia

Titulu beharrak jarreran eragiten die. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek beti edo ia beti erdara erabiltzen dute euskaltegitik kanpo. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienei euskara zaila edo oso zaila iruditzen zaie. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek azterketa gainditzea dute helburu nagusi, gainditzean utziko dute. **Azpi-hipotesi honen lehenengo partea bete-betean bete da; bigarrena, berriz, oro har ezin baieztatu dezakegu.**

Gehienek elebitasunaren aldekoak direla diote. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienei euskara ikasteak sentsazio eta sentimendu txar gehiago sortzen dizkio onak baino. **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Ikasle gehienek balio instrumentala baino, balio sinboliko handiagoa ematen diote.

Azpi-hipotesi hau ez da bete, balio instrumentala eta balio sinbolikoa parekaturik baitaude.

Ikasle gehienek, ordea, motibazio instrumental partziala dute (tituluari begira, ez bestelako helburuak lortzeari begira). **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Azterketarik ez balego askok ez lukete euskara ikasiko. **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Askok beste modu batean ikasiko luketela esango dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da**

4. Hipotesia

Gure ikasleek euskaraz eta erdaraz aritu nahiko lukete, oro har, inguruko pertsonekin eta bizitzaren arlo ezberdinetan. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek erdaraz euskaraz baino gehiago aritu nahiko lukete gurasoekin. **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Ikasle gehienek, euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete bikotekidearekin. **Azpi-hipotesi hau ez da bete ikasle gehiagok aritu nahiko bailuke euskaraz.**

Ikasle gehienek euskaraz aritu nahiko lukete seme-alabekin. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete lagunekin. **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete lankideekin. **Azpi-hipotesi hau ez da bete.**

Ikasle gehienek euskaraz erdaraz baino gehiago aritu nahiko lukete ikaskideekin. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete dendetan. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete instituzio publikoetan. **Azpi-hipotesi hau erdizka bete da asko baitira beti euskaraz aritu nahiko luketenak.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete aisialdian. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete Komunikabideen erabilerari dagokionean. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek euskaraz zein erdaraz, berdin aritu nahiko lukete sentimendu eta adimenaren arloan. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

5. Hipotesia

Gure ikasleek ez dute gerora euren burua euskaraz irudikatzen, oro har, inguruko pertsonekin eta bizitzaren arlo ezberdinetan. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesia

Ikasle gehienek gurasoekin erdaraz baino ez direla arituko uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek bikotekidearekin, erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek seme-alabekin euskaraz erdaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek lagunekin euskaraz zein erdaraz, berdin arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete. Asko izan arren bietara berdin arituko direla uste dutenak, beste askok beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz gehiago arituko direla erantzun dute.**

Ikasle gehienek lankideekin erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete: bietara berdintsu edo euskaraz gehiago.**

Ikasle gehienek ikaskideekin euskaraz zein erdaraz, berdin arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete, euskaraz gehiago.**

Ikasle gehienek dendetan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek instituzio publikoetan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete. Asko dira bietara berdintsu aukeratu dutenak.**

Ikasle gehienek aisialdian erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete. Asko dira bietara berdintsu arituko direnak.**

Ikasle gehienek Komunikabideen erabilerari dagokionean erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau ez da bete. Bietara berdintsu aritzeko joera agertzen dute.**

Ikasle gehienek sentimendu eta adimenaren arloan erdaraz euskaraz baino gehiago arituko direla uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Euskalduntze plangintzak dauzkaten erakundeekin euskaraz aritzeko irudikapen handiagoa dago. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

6. Hipotesia

Azterketa gainditu beharrak ikas-irakasteko moduan eragin zuzena du. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesia

Ikasle gehienek 3 urte edo gehiago daramate euskara ikasten. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasleek ikastaro motak iraupenaren arabera sailkatzen dituzte. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Helburua titulua lortzea dutenei gustatu egiten zaie euskaltegietako ikasteko modua. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Azterketan eskatzen zaizkien ariketa motak landu nahi dituzte, beraz, horretara bideraturik ez dauden ariketei garrantzi txikiagoa ematen diete. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasleei hitz egitea da gehien kostatzen zaiena. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Euskara erabiltzen dutenean ez dira lasai sentitzen. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Jatorrizko hiztunekin elkarreragina bilatzeko ez du erraztasunik aurkitzen. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Irakaslearengan motibagarria izatea eta ezagutza maila handia izatea baloratuko dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Gramatikak kezkatzen ditu gehien (horretara bideratuta daudelako azterketak). **Azpi-hipotesi hau ez da bete. Gramatika ez ezik, mintzamena eta idazmena ere oso kezagarriak dira.**

Euskara maila euskaltegiko urratsen arabera neurtzen dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

7. Hipotesia

Ikasleek hizkuntz politikaren inguruko informazio urria edo oso urria dute eta, hala ere, txarra iruditzen zaiela diote. **Hipotesi hau bete egin da.**

Azpi-hipotesiak

Ikasle gehienek Hizkuntz Politikari buruzko informazio gutxi dutela uste dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek Hizkuntz Politikari buruzko interes gutxi dute. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasle gehienek ez dute ontzat hartzen perfilen sistema. **Azpi-hipotesi hau bete egin da, baina aldea ez da oso esanguratsua.**

Ikasleei garesti iruditzen zaie euskaltegia. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

Ikasleek ez dute argi zein euskaltegi motatan dauden. **Azpi-hipotesi hau bete egin da.**

4. EGOERA KONPONTZEKO PROPOSATZEN DUGUN BIDEA

Euskalduntze-prozesuan gabezi eta erronka berriak agertu dira, eta horiei ere aurre egin behar zaie.

Batetik, maila jasoko teknikoak prestatzeko premia dago. Zientzia egiteko edo lan munduan euskara esparru eta maila guztietara zabaltzeko, maila jasoan eta hiztegi teknikoa erabiliz arituko diren profesionalak prestatu behar dira eta sarritan ez dago behar bezainbesteko egitura eta baliabiderik erronka horri aurre egiteko.

Ezagutzatik erabilerarako urratsean gero eta zailtasun handiagoak ikusten ditugu. Sarritan gure ikasgelak dira ikasleek duten euskarazko espazio bakarrak. Eginahalak eginda ere, guk ezin diegu ikasleei euskarazko ingurune bat eman; gehienez ere kanpo-ekintza batzuk antolatu eta zenbait ekintza "gidatu" eskaini.

Bestetik euskara normalizatzeko plangintzak agertu dira. Gure ustez, hementxe dago, hain zuzen ere, gure motibazio arazoei eta ikas-prozesuan norabide berria emateko aukera. Plangintzak dira hizkuntza esparru ezberdinetara zabaltzeko dugun bidea. Euskalduntze-alfabetatzea hauen barruan kontenplatu behar dugu; hauetara bideratuta eta hauen osagarri eta sustatzaile. Horretarako, egun dauden tresna eta baliabideak aztertu behar ditugu eta hizkuntzaren irakaskuntza eta ebaluazioa bideratu. Ikasleak partaide bihurtuz gero, beren jarrera hobetuko da eta motibazio hobea izango dute.

Gure tesi hau defendatzeko lau tresnaz baliatuko gara. Lehenengo eta behin, motibazioaren inguruan egin diren zenbait lanen ekarpen teorikoa aipatuko dugu. Bigarrenik, plangintza ezberdinek normalizazio prozesua gidatzeko egiten duten ekarpena aztertuko dugu. Hirugarrenik, gaur egun euskaltegien funtzionamendu didaktikorako gidaliburua den Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko oinarriak aztertuko ditugu. Laugarrenik, Europako Erreferentzi Markoak egitarauak, kurrikuluak, azterketak, testu liburuak eta abar egiteko zabaltzen dituen bideak aztertuko ditugu.

5. MOTIBAZIOAREN INGURUKO TEORIAK ETA LANAK

5.1. TEORIAK

Motibazioa landu duten hainbat autoreren esanetan motibazioa kontzeptu abstraktu eta hipotetikoa da, jendeak modu batean edo bestean zergatik pentsatzen duen azaltzeko erabiltzen dena. Beraz, terminoak era askotako motiboak biltzen ditu, haien artean komunean gauza bakarra dutenak: eragina daukate jendearen portaeran. Beraz, esan dezakegu "motibazio" hitzak hainbat esanahi batzen dituela.

Terminoak giza gogoaren alderdi oinarritzko bat nabarmentzen du eta zerikusia dauka pertsonak nahi edo desiratzen duenarekin (funtzio konatiboa), ez modu arrazionalen pentsatzen duenarekin (funtzio kognitiboa) edo sentitzen duenarekin (funtzio afektiboa). Ikasleren bat definitzean, hiru funtzio hauek izen banarekin identifikatzen ditu: grina, argitasuna eta izaera, hurrenez hurren.

Irakasle eta ikertzaile gehienak ados jarriko lirateke motibazioaren eginkizunaren garrantzia aipatzean edozein ikas-egoeraren arrakastan edo huts egitean. Dörnyei berak baieztatzen du hizkuntza bat benetan ikasi nahi duten ikasleek, benetan motibatuta badaude, kasurik gehienetan (% 99), ezagutza praktikoa lor dezaketela, nahiz eta hizkuntzetarako gaitasuna eta bestelako ezaugarri kognitiboak edonolakoak izan. Motibazio nahikorik ez badute, berriz, ikasle bikainak izanda ere, ez dute lortuko, ez baitiote ikasteari eutsiko hizkuntza ikasteko bezain luze. Beraz, motibazioa da gakoa.

"Motibazioa" ekintza baten kausa eta jatorriaz aritzeko modu orokorra da. Ikasle batek asko aurreratzen badu, oso motibatuta dagoela esango dugu, aurrerapen hori bultzatu duten faktoreak zehaztu barik; gogogabeturik ikusten badugu, ordea, motibatuta ez dagoela esango dugu, egoera hori eragin duten arrazoiak aipatu barik.

Bada, horixe da hain zuzen motibazioaren psikologoak argitzen saiatzen direna, zeintzuk diren ekintza baten aurrekariak.

Gizakiaren portaeraren oinarritzko dimentsioak bi dira: norabidea eta intentsitatea, eta motibazioa biei dagokie. Motibazioak azaltzen du, beraz, zergatik erabakitzen dugun ekintza bat egitea, zenbateko ahalegina egingo dugun eta zenbat denboraz eutsiko diogun zeregin horri. Eta hauexek dira motibazioaren teoriagile guztiak erantzuten saiatzen diren galderak.

Gizakiok zergatik jokatzeko eta pentsatzeko dugun modu jakin batean azaltzeko, psikologia eskola desberdinek ematen dituzten erantzunak anitzak dira. Historian zehar ere, erantzunok aldatu egin dira, motibazioa ulertzeko moduan garrantzia zein alderdiri eman zaion. Joan den mendearen hasieran, motibazioa gizakien oinarritzeko *sen* eta *irrikek* eragindakoa dela zioten (Freud-ek, adibidez) eta horietako asko inkontzienteak edo erreprimituak. Eta nahiz eta gaur egungo teorian presentzia handirik izan ez, Dornyeiren ustez, argi dago zeregin inportantea jokatzeko dutela gure bizitzetan.

Hogeigarren mendearen erdialdera psikologia behaviourista izan zen nagusi. Animaliekin egindako esperimientuen bidez hainbat ezagutza lortu ziren, gaur egun ere garrantzitsuak direnak: praktika eta drill, errefortzu positibo eta negatiboa edo zigor eta sariak zeregin ikaskuntzan.

Hirurogeiko hamarkadan aldaketa garrantzitsuak egon ziren, ikuskerak mekanizisten kontrako erreakzio moduan, psikologo humanistek (Carl Rogers, Abraham Maslow) proposatutako teoriarekin. Haiek zioten, animalien bizitzan ez bezala, pertsonen bizitzaren indar motibagarri nagusia auto-errealizatzeko joera dela, hots, jaso ditugun gaitasun eta dohaiak erabateki garatzeko nahia.

Gaur egun planteamendu kognitiboa da joera teoriko nagusia. Ikuspegi kognitiboak gogo prozesua ekintza nola bihurtzen den aztertzen du eta jendeak gauza bat egitea ala ez erabakitzean eragiten duten faktoreak zeintzuk diren zehaztu. Haiek dira: ekintzaren balioez dituen sinesteak eta nola ebaluatzen duen bere ahalmena (erronka horri aurre egiteko bestekoa den), eta inguruko jende eta erakundeetatik jaso lezakeen laguntza.

Gaur egun, ikuspegi kognitibo honen barruan azpi-teoria asko aurki daitezke; izan ere gizakion portaeran eragina izan dezaketen motiboek zerrenda luzea betetzen dute. Horregatik saiatu dira motibazioaren psikologoak motiboak kopurua murrizten, jokabide desberdinak azal litzaketen aldagai garrantzitsuak identifikatuz. Identifikatutako arrazoi garrantzitsuenak desberdinak dira, eta honek markatzen ditu teorien arteko ezberdintasunak.

Gaur egun nagusi diren motibazioaren teoriak, modu laburrean, jarraian aipatuko ditugunak dira.



Dörnyeik modu ulergarriagoan ematen du koadroan aipatutako motibazio teorion azalpena, eta teoria bakoitza, berez, oso konbentzigarria dela gaineratzen du, izan ere, inor gutxik esango luke teoriok diotena ez dela egia:

-Itxaropen eta balioen teoria: jendeak gauza bat egiteko motibazioa izan dezan, ezinbestekoa da arrakasta-itxaropena izatea eta emaitza baloratzea. Gure ikasleen kasuan, esan liteke arrakasta itxaropena, gehienetan, lehenengo azterketak egiten hasten direnean hasten dela ahultzen, hau da, bosgarren edo seigarren urratsean. Maila hau aitor dakien ikasleek IVA Peko 1. Hizkuntz Eskakizuna edo HABEkoa gainditu behar dute. Kasu askotan azterketa egin orduko eman beharreko maila oraindik ere lortu ez dutenez (bidea azkarregi egin nahi izan dutelako hainbat kasutan), emaitza ez da ona izaten, beraz, maila lortzen dutenerako, hiru edo lau deialditan hartu izan dute parte eta, honezkero "erreta" daude. Plangintzaren barruan arrakasta itxaropenak plangintzan bertan helburuak betetzean ikasleak bere lanak duen garrantzia ulertuko du eta era berean baloratu. Gainera, epe motzerako helburuak jarriaz, arrakasta sentsazioa

izango du eta ondorioz, motibatuago egongo da. Arrakasta hori baloratu egin behar zaio, kanpoko motibazioa emanez.

-Helburuen teoria: ekintza jakin bati xedeak ematen dizkio esanahia, norabidea eta helmuga. Ikasle gehienen helburu nagusia titulua ahalik eta lasterren lortzea da, baina hain erraza gertatzen ez zaienez, eta helburuak errealitatean izango duen erabileratik oso urrun daudenez, xedeak bultzatutako motibazioa ez da oso lagungarria. Plangintzaren barruan helburua egoera orokorrago baten eta bere komunikazio gaitasunaren eraldaketa izanik, xedea bere neurrira mailakatzeko aukera izango dugu.

-Norberaren balioaren teoria: jokabide batek itxura hobean agerrarazten badu, jendea modu horretan jokatzeko motibatuta sentituko da. Hemen ere hainbat oztopo dago ikaslearentzat behin maila batera helduta; izan ere, euskaltegian edo barnetegian irakasten diogun erregistro formala oso urrun dago kaleko erregistrotik, eta ikasitakoa praktikan jartzeko ahalegina egiten ausartzen direnean, ezintasunari, lotsari eta hauek bezalako beste hainbat sentsazio ezatsegin, egin behar diete aurre. Horregatik gure ustez oso garrantzitsua da jatorrizko hiztunek, ikaste prozesuan daudenen esfortzua bere neurrian baloratzea, bai eta eredu izateko prestaturik egotea ere.

-Norberaren eraginkortasunaren teoria: eginbehar bat betetzeko gai garen ziurtasuna eduki ezean, oso litekeena da zeregin hori saihestea. zoritxarrez, ikasleen ehuneko altuak ez dio inoiz bere buruari planteatu, euskaraz ikasitakoan, jokabidea aldatzea eta bere bizitzaren hainbat esparrutan euskaraz aritzea. Arrazoiak, hainbat kasutan, ez da gaitasun linguistikorik eza; izan ere, ikasle askok eta askok oso maila polita lortzen dute. Arrazoiak, hizkuntza erabiltzeak ekar ditzakeen ondorioen onuraz ez konturatzea izan daiteke. Egoera planifikatuan eta horren kontzientzia hartuta, edukiz hornitutako ikas-prozesua egiteko motibazioa izango du. Adibidez, plangintzan ikasle batek bere lankidearekin izango duen idatzizko elkarreragina euskaraz izatea badu helburu, edo megafoniatik esan beharrekoak euskaraz esatea erabaki bada, ikasleak horretarako gaitasuna lortzen duenean, helburua bete, ekintza egin eta arrakasta sentsazioa izango du, zalantzarik gabe.

-Egozpen teoria: iraganean burututako ekintzek eta, batez ere, arrakasta eta huts egiteei ematen dizkiegun esanahiek edota interpretazioek, zalantza barik, gure etorkizuneko jokabidea mugatu egingo dute. Berrirori ere azterketen arazoari heldu behar diogu. Batetik, ikasleen maila eskasa azterketa egin orduko; bestetik, azterketen desegokitasuna ikasle ezberdinen benetako

beharrizanetarako erabilera neurtzeko. Gainera ikaslea ez dugu bultzatzen egiten dituen aurrerapenei erreparatzera. Ikasleak ez ditu erabiltzen dituen estrategiak kontuan hartzen eta, beraz ez du ezagutzeko bideen arteko erlazioak egiten. Bestetik, akatsak etengabe zuzentzeak ikaslea uzurtzea dakar; zuzentasunari bere neurrian erreparatu behar diogu, komunikazioaren kaltetan gerta ez dadin.

-Burujabetzaren teoria: guk geuk nahi badugu gauza bat egin, hori burutzeko askoz motibatuago egongo gara behartuta egin behar dugun gauza bat burutzeko baino.

Gure ikasle asko horrelaxe sentitzen dira, behartuta. Ez dute ikusten euskaraz jakitea euren eskubidea ere badela.

-Portaera planifikatuaren teoria: atsegin eta desatseginak ere, hau da jarrerak, zeresan garrantzitsua dute jendeak zer egin eta zer ez erabakitzeo. Ikasle kopuru handi batek ez du bere burua euskaraz bizitzen ikusten, beraz, nekez saiatuko da helburu hori lortzen. Zalantzarik gabe aldatu beharreko elementua da hau.

Banan-banan aztertuta, hortaz, teoria guztiek dute zentzu handia. Arazoa da teoriagileek ez dutela besteen teoriak diotena kontuan izaten eta, askotan, ez direla teoria hauen guztien sintesia egiten saiatzen, beraz, motibazioari buruzko teorien irudi orokorra oso zatikatuta geratzen da. Jarraian laburtuko dugu Raymond Wlodkowskik arazo honi buruz dioena : "Motibazioa psikologiaren eremu zabala duen arloa da, jendeak zergatik jotatzen duen jotatzen duen moduan aztertzen duena". Baina elkar ulertzeari eta aplikazio esparrua mugatzeari dagokionez, zeregin handia badago ere, ez du ematen horri ekiteko ahaleginik egiten dutenik adituek. Nazioartean onartutako teorien artean (hogei baino gehiago), elkarren kontrako ikuspuntu asko daude, terminologia egokiari buruzko desadostasunak, definizio arazoak...Honek, irakaskuntza eta ikaskuntzaren arloetan arazo larriak eragiten ditu. Oro har, irakasle eta prestatzaileak oso galduta ibiltzen dira motibazioari buruzko informazio izugarri honek proposatzen dituen osagaien artean baliagarri eta praktikoenak kohesioz eta koherentziaz aplikatzeko orduan.

Dörnyeiren lanari berriro helduz, autore honek helburu praktikoetarako zelako motibazioaren teoria behar dugun galderari nola erantzuten dion ikusiko dugu.

Beraren ustez, ikasgelak mikrokosmos konplexuak direnez, ikasleen jokabide ezberdinen zergatiak ulertzeko, hainbat ikuspegi ezberdin jasotzen dituen konstruktua zehatz eta eklektikoa behar da.

Ikas-portaeretan duten eraginagatik, motibo giltzarri batzuk funtsezkoak dira; izan ere, hauek falta badira, edozein faktore ezeztatu edo nabarmen ahuldu daiteke; eragin horiek egon badaude, ordea, ikasleen lorpenak areagotu egin daitezke.

Autore honen eskutik, bigarren hizkuntzaren eskurapenaren arloan indarrean dauden planteamenduak aipatuko ditugu.

Hizkuntza komunikazio-kodea (eskolako beste edozein gai bezalatsu irakats daitezkeen gramatika eta arauak dituen), baino askoz ere gehiago badela inork ez du zalantzan jarriko. Robert Gardnerrek, 1979ko artikulua batean argudiatu zuen bigarren hizkuntza ez dela ikasleek ikasi beharreko gai hutsa, baizik eta hizkuntza horretako hiztunen ondare kulturalaren ordezkari ere; hortaz, pentsa litekeela hizkuntza bat irakastean ikaslearen "bizi espazioan" hizkuntza horrek adierazten duen kulturaren elementuak inposatzea dela, hizkuntza hori ikasteko ikasleek hizkuntza horretan pentsatzen ikasi behar dutela. (Zenbat aldiz errepikatzen dugu euskara irakasleok esaldi horren bariante bat eskolan? "Ez itzuli, euskaraz pentsatu **behar** duzu". Baina, irakasten diegu euskaraz pentsatzen?)

Hizkuntza bat ikastea hizkuntza horretako hainbat elementu kulturez jabetzea eskatzen duen gertaera soziala da. H2ko hiztunak eta H2ko kultura zelan ikusten dituzten modu ezberdinetan eragiten die ikasleei. Hauxe izan zen 60ko eta 90eko hamarkaden artean H2ko motibazioari buruzko ikerketa gehien arretagunea, Kanadako gizarte-psikologo talde batek (Gardner, Lambert eta Climent, aipagarrienak) bultzatutako ikerbidea.

Gizarte-psikologo talde honen esanetan, H2ko hiztun-komunitateari buruzko jarrerak eragin handia dute H2ren ikasketan. Teoria honi jarraituz, ikasleak multzo bitan bana daitezke:

-Joera integratzailea duten ikasleak: jarrera positiboa agertzen dute H2ko taldearenganako, eta euren antzekoak izan nahi dute.

-Joera instrumentala dutenak: ikasleak ikasten H2 hizkuntza jakiteak ekarriko dituen etekin pragmatikoengatik: lanpostu hobea, soldata handiagoa agian...Gure ikasleen kasuan esan genezake hauxe dela gehienetan agertzen duten joera. Dena dela, hainbatetan entzuten duguna ez da euskaraz ikasi behar dutela lanpostua lortzeko, mantentzeko edo hobetzeko, baizik eta euskarazko titulua behar dutela. Askok gainera ez dute erreparorik izaten esateko titulua lortuz gero ez daukatela inolako asmorik euskaraz egiteko. Horrela zergatik jokatzen duten aztertuz gero, baliteke kasuren batean edo bestean hiztun-komunitateari


buruzko jarrera txarra izatea arrazoia, baina seguruenik beste hainbat arrazoi ere badaude tartean.

Gardnerren teoritik gehien landu den alderdia, ordea, "motibo integratzailearen" kontzeptu zabalagoa da, hiru osagai nagusi dituena:

-Integratzailetasuna: joera integratzailea, H2 hizkuntza eta hiztunei buruzko interesa eta jarrerak.

-Ikas egoerari buruzko jarrerak: irakasteari eta ikastaroari buruzko jarrerak.

-Motibazioa: honen intentsitatea, H2 ikasteko gogoia eta, oro har, hizkuntza ikastearen gaineko jarrerak.



Gardnerren motibazioaren kontzeptualizazioari, Richard Clémentek (1989; Clément et al. 1994), norberaren ziurtasun linguistikoaren kontzeptua gehitu zion, gaur egun ikerketa psikologikoaren korrante nagusiek oso garrantzitsutzat jotzen dutena.

Laurogeita hamarreko hamarkadan aldaketa nabarmena egon zen H2 ikasteko motibazioaren arrazoiei dagokienez. Aitu guztiak ados zeuden alderdi soziokulturalak berebiziko garrantzia zeukala esatean, baina baita motibazioa hori baino gehiago badela esatean. Graham Crookesek eta Richard Schmidtek (1991:469) esaten zuten, alderdi sozialari hainbesteko garrantzia ematean, motibazioaren beste alderdi garrantzitsu batzuk isilpean geratzen ziren. Hori zela eta, H2 ikasteko motibazio arloan, osagai zahar eta berrien sintesia egiten zuten konstruktuek berri eta zabalagoak proposatu ziren:

Dörnyeiaren eredua (1994): eredu honetan hiru mailatan kontzeptualizatzen da H2ko motibazioa.

- Hizkuntza maila: maila honetan joera integratzailearekin eta joera instrumentalarekin zerikusirik duten H2ko elementu tradizionalak biltzen dira (H2ko kultura eta komunitatea, balio instrumentalak eta pragmatikoak)

- Ikaslearen maila: maila honetan ikaslearen ezaugarri indibidualak biltzen dira, batez ere norberarenganako konfiantza.

- Ikas-egoeraren maila: maila honetan egoera bakoitzari lotutako motiboak batzen dira (ikastaro bakoitzeko motibazio osagaiak; irakasle bakoitzari lotutako motibazio osagaiak; talde bakoitzari lotutako motibazio osagaiak)

2. taula H2ko motibazioa: Dörnyei-ren eredua (1994)

HIZKUNTZAREN MAILA

Motibazioaren azpisistema integratzailea
Motibazioaren azpisistema instrumentala

IKASLEAREN MAILA

Lorpenen beharra
Norberarenganako konfiantza
*Hizkuntza erabiltzeak eragindako antsietatea
*Nork bere H2ko gaitasunez dauzkan usteak
*Kausa eragozpenak
*Norberaren eraginkortasuna

IKAS-EGOERAREN MAILA

Ikastaro bakoitzeko motibazio osagaiak

Interesa (ikastaroan)
Pertinentzia (ikastaroak norberaren beharretarako)
Itxaropenak (arrakastarako)
Poztasuna (nork bere emaitzekin)

Irakasle bakoitzari lotutako motibazio osagaiak

Afiliazio motiboa (irakaslea pozik edukitzea)
Agintzeko modua (kontrolatzen du ala autonomia bultzatzen du)
Motibazioaren sozializazio zuzena
*Ereduak ematea
*Atazak aurkezteko modua
*Feedbacka

Talde bakoitzari lotutako motibazio osagaiak

Helburuei begira ala ez
Arau eta sarien sistema
Taldearen batasuna
Taldearen egitura helburuei dagokienez
(lankidetzazkoa, lehiakorra edo indibidualista)

William eta Burdenen eredua (1997)

Autore hauen ustez ere, motibazioa konstrukto konplexu eta alde ugariak da, eta faktoreen sailkapena egiteko eragin motibatzailea barrukoa ala kanpokoa den izaten dute irizpide.

BARRUKO FAKTOREAK

Jarduerak berez daukan interesa

- Jakingura piztea
- Erronka neurri egokia

Jarduerari antzematen zaion balioa

- Norberarentzako pertinentzia
- Emaitei aurretik aitortzen zaion balioa
- Jarduerari berez egozten zaion balioa

Norberak zer bait egitearen inpresioa

- Kausalitatearen topikoa
- Kontrolaren topikoa, prozesuari eta emaitzei dagokienez
- Helburu egokiak ezartzeko trebezia

Gaia menderatzea

- Gai izatearen inpresioa
- Norbera konturatzea hautatutako arloan trebetasunak garatzen eta gaia gero eta hobeto menderatzen dabilela
- Norberaren eraginkortasuna

Norberari buruzko iritzia

- Modu errealistan konturatzea norberaren indar eta ahuleziez kasu bakoitzean behar diren trebetasunei dagokienez

KANPOKO FAKTOREAK

Norberarentzat inportanteak diren pertsonak

- Gurasoak
- Irakasleak
- Ikaskideak

Pertsona inportante horiekiko interakzioa zelakoa den

- Bitartekari batez izandako ikas-esperientziak
- Feedbacka: zelakoa eta zenbat
- Sariak
- Goraipamen egokia: zelakoa eta zenbat
- Zigorrak, zehapenak

Ikas-lanaren ingurunea

- Erosotasuna
- Baliabideak
- Ordua, eguna, urtea
- Taldearen eta eskolaren tamaina
- Taldearen eta eskolaren izpiritua

Testuinguru zabala

- Familia sare zabalak
- Lekuan lekuko hezkuntza sistema
- Interesen talka
- Arau kulturalak
- Gizartearen itxaropenak eta jarrerak

Istvan Ottó eta Dörnyeiren eredua (1998)

Eredu honek H2ko motibazioaren ikerketan planteamendu berria erakusten du: ikas-prozesuari begirako planteamenduan dago oinarrituta. Beraz, motibazioa modu dinamikoan lantzen du eta denboran gertatzen diren aldaketak ere azaltzen ditu. Puntu hau oso garrantzitsua da zeren motibazioa ez baita ezaugarri egonkorra ikaste-prozesuan; izan ere, hainbat gorabehera izaten ditu beste hainbat faktorek eraginda.


Motibazioaren hiru fase bereizten dira.

- Lehenengo fasean motibazioa sortu egin behar da. Hasierako motibazioak helburua aukeratzeraz garmatza (aukeratzeko motibazioa)

- Bigarren fasean motibazioa elikatu eta babestu egin behar da (motibazio eragilea).

- Hirugarren fasean (atzera begirako fasea) , ikasleak, ekintza burututakoan egindakoaren ebaluazioa egin behar du.

Hurrengo taulan faseotan ikasleen jokabidean eragina izaten duten motibo nagusiak daude zerrendatuta.



Helduentzako hizkuntza ikastaroetara joaten den zenbait ikasleek berehala uzten diote joateari, eskolara egunero joateko eta etxeko lanak egiteko gai izango ez direlakoan. Hauetako asko, ordea, itzuli egiten dira ikastarora, eta behin baino gehiagotan errepikatzen da zikloa (hauxe da gure ikasle askoren prozesua; horregatik, batzuek, euskara ikasten zenbat urte daramaten galdetuz gero, hamar, hamalau, hogeitau urte daramatzatela erantzuten dute). Dörnyeik azalpen bat ematen dio jokabide honi. Autoreak dioenez, ikastaro batean izena ematea aukeratzeko motibazioak eragiten du, baina, behin ikasten hasita, egunero egin beharreko lanei heltzea motibazio eragileak eragiten du. Ikasteari uzten dioten ikasleen kasuan, bigarren motibazioak ez die jarraitzeko behar besteko indarra ematen. Zikloa behin eta berriro zergatik errepikatzen den ere aipatzen du: ikasle batek ikastaroa utzi eta handik gutxira ahaztu egiten du zenbateko lana eskatzen duen; H2 ikastearen garrantzia berriro agertzen da eta aukeratzeko motibazioa piztu. Behin betiko uzten dutenen kasuan, ordea, arrazoia da motibazioaren hirugarren fasean (atzera begirakoa), onartzen dutela, nahiz eta H2 baloratu, ezin diotela ikas-prozesuak eskatzen duen esfortzuari aurre egin.

Ikusten dugunez, asko dira H2ko ikasleen motibazioari buruzko teoriak. Dena dela, teoria eta praktikaren arteko tartea handia da. Azken hamarkadan idatzitako hainbat artikulutan, berriz, motibazioaren ikertzaile eta hezkuntzaren psikologo ezagunenetako batzuek praktikari erreparatu diote, hau da, ikasgelako aplikazioari. Izan ere, urteetan pilatutako teoria bilduma oso baliagarria da praktikara eramateko. Horixe dio Dörnyeik bere Motibazio-estrategiak hizkuntza ikasgelan izeneko liburuan, non motibazio teknika praktikoak azaltzen dizkigun, jarraian laburtuta aipatuko ditugunak.

Lehenengo eta behin, irakaskuntza motibagarria izan behar da. Autorearen esanetan, batzuetan gure irakasle lana hobeto egitea nahikoa izango da ikasleak motibatzeke. Izan ere, irakaslea motibatzaile ona bada ere, argi irakasten ez badu ikaslea ez da sentituko gai hori jorratzeko oso motibatuta. Honi dagokionez, jarraian ikusiko dugu argi irakasteko zer egin zehazten duen Raymondo Wlodkowski motibazio psikologoaren taulak.

4. taula *Argi Irakasteko Eginbeharren Zerrenda, (Wlodkowski: 1986:42)*


1. Azaldu gauzak modu sinplean.
2. Eman guk geuk ulertzeko moduko azalpenak.
3. Ez irakatsi ez arinegi ez astiroegi.
4. Eutsi gai berari harik eta denok ulertu arte.
5. Saiatu konturatzen noiz ez dugun ulertzen eta orduan gauzak errepikatu.
6. Irakatsi gauzak pausoz pauso.
7. Deskribatu zer egin behar den eta zelan egin behar den.
8. Galdetu ea badakigun zer egin behar dugun eta zelan egin.
9. Ulertzen ez dugunean errepikatu gauzak.
10. Azaldu gauzak eta gero eman adibideak.
11. Azaldu gauzak eta gero gelditu, guk galderak egiteko.
12. Presta gaitzazu hurren egingo dugunerako.
13. Eskola ematean edo trebakuntza saioetan azaldu gauzak xehetasunak emanez.
14. Errepikatu ulergaitzak diren gauzak.
15. Erabili adibideak eta azaldu itzazu guk ulertu arte.
16. Azaldu gauzak eta gero geratu une batez horretaz pentsatu ahal izan dezagun.
17. Erakutsi zelan egin behar dugun lana.
18. Azaldu etxeko lanak eta eurok egiteko behar ditugun materialak.
19. Azpimarratu puntu zailak.
20. Erakutsi eskolako lanak eta etxeko lanak egiteko ereduak.
21. Emaguzu nahiko denbora praktikatzeko.
22. Erantzun gure galderak.
23. Egin galderak ikusteko ea ulertu dugun.
24. Etxeko lan zailak behin eta berriro azaldu, harik eta guk ulertu arte zelan egin behar diren.

Baina nork hartu behar du ikasleak motibatzeke ardura? Dörnyeik goian aipatutako liburuan dio ikasleak motibatzearen erantzukizuna **"Bere ikasleen epe luzeko garapenaz pentsatzen duen irakasle ororen erantzukizuna dela. Epe laburrera, onartu beharra dago ikasleak azterketetarako prestatuz berehalako emaitza hobeak lor litezkeela, taldearen eta ikasle bakoitzaren motibazio ezaugarriari antza hartzen denbora emanaz baino. Hala ere, irakaslearen artean gutxi sartu dira profesioan ikasleak azterketetarako prestatzeko helburu hutsarekin...Gainera, motibazio-trebakuntza oso inbertsio ona izan daiteke epe luzean, eta askoz atseginagoa egin dezake zeure bizitza ere ikasgelan"**.

Autore honen ustez, H2 ikastea bultzatzeko estrategiak modu ezberdinetan sailka daitezke: klase bateko egiturari begira (feedbacka emateko estrategiak, ataza komunikatiboak planteatzeko...); arazoei aurre egiteko oinarritzko gida (adibidez, borondatez parte hartzeko gogo faltari); motibazio kontzeptu giltzarriak hartu abiapuntu (berezko interesa, norberarenganako konfiantza...); motibatzen duten irakasleen portaera-motak irizpide hartu (ad. Ikasleekin komunikazioa izatea eta haiengana hurbiltzea...). Dena dela, Dörnyeik, hezkuntzan bereziki aplikatzeko eredua diseinatu du, eredu zabala, hurrengo unitate giltzarriak dituen:

- Motibaziorako oinarritzko baldintzak sortzea.
- Hasierako baldintzak sortzea.
- Motibazioa elikatu eta babestea.
- Atzera begirako autoebaluazio positiboa bultzatzea.

Hona hemen H2ren irakaskuntza motibagarriaren osagaiak nola antolatzen dituen Dörnyeik bere ereduan.



Azkenik, Dörnyei, gure eguneroko lanean erabilgarria izan daitekeen bere ereduaren azalpen zabalago baten zerrenda ematen digu, non berak proposatutako estrategiak banan-banan agertzen diren ondoan zutabe bi dituztela, irakasleok geure egitekoari buruzko hausnarketa egin dezagun.

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIORAKO OINARRIZKO BALDINTZAK SORTU	PROBATUFA	ERABILITZEN DUT
1. Erakutsi eta adierazi ikastaroko materialak lantzeko daukazun gogo bizia eta horrek zelan eragiten dizun maila pertsonalean.		
Azaldu ikasleei H2an daukazun interes pertsonala.		
Erakutsi ikasleei H2 ikastea baloratzen duzula, esperientzia esanguratsua iruditzen zaizulako, betetzen zaituelako eta zure bizitza aberasten duelako.		
2. Hartu oso serio ikasleen ikaskuntza.		
Erakutsi ikasleei axola egiten zaizula eurek aurrera egitea.		
Adierazi euren eskura zaudela, gorputzez eta gogoz, kontu akademiko guztietarako.		
Eduki itzazu behar bezain itxaropen handiak zure ikasleek lor dezaketenez.		
3. Landu ikasleekiko harreman pertsonala.		
Erakutsi ikasleei onartu egiten dituzula eta axola zaizkizula.		
Entzun eta arreta jarri bakoitzari.		
Adierazi euren esku zaudela gogoz eta gorputzez.		
4. Landu elkarlaneko harremana ikasleen gurasoekin.		
Aldiro-aldiro azaldu gurasoei zelan dabiltzan eskolan euren seme-alabak.		
Eskatu iezaiezu laguntza etxean zenbait bultzatze-lan egiteko.		
5. Giro atsegin eta laguntzazkoa sortu ikasgelan.		
Tolerantzia araua ezarri.		
Bultzatu ikasleak arriskatzera, eta onarrarazi hutsegiteak ikastearen berezko parte lege.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARAKO ONARRIZKO BALDINTZAK SORTU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Umorea eroan klasera eta umorea bultzatu.		
Bultzatu ikasleak ikasgela pertsonalizatzera euren gustuen arabera.		
6. Taldearen kohesioa sustatu.		
Saiatu ikasleen arteko interakzioa, lankidetzara eta benetako informazio pertsonalaren trukea sustatzen.		
Erabili izotza apurtzeko jarduerak ikastaroaren hasieran.		
Erabili sarri talde txikiko atazak, ikasleak nahas daitezten.		
Sustatu, eta ahal izanez gero, antolatuta, eskolaz kanpoko jarduerak eta irteerak.		
Saiatu eragotzen ikasgelan jesartzeko eskema zurrunk finkatzea.		
Erabili itzazu talde osoak batera zenbait ataza arrakastaz burutu behar dituen jarduerak, edota talde txikien arteko norgehiagoka jokoak.		
7. Formulatu taldearen arauak modu agerian, eta eskatu ikasleei eztabaidatzeko eta onartzeko.		
Taldearen ibiliaren hasieran "talde-arauak" izeneko jarduera bat sartu, arauak modu agerian ezartzeko.		
Azaltu zuk jartzen dituzun arauen garrantzia, eta zelan laguntzen duten ikasteko, eta eskatu ikasleei euren adostasuna.		
Elizitatu ikasleengandik beste arau batzuk, eta eztabaida itzazue horiek zuk proposatutako arauen moduan.		
Jarri arauak (eta erregelok haustearen ondorioak) ikusgai denentzat.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK HASIERAKO MOTIBAZIOA SORTU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Sustatu H2ko hiltunekiko eta H2ko produktu kulturalakiko harremana.		
12. Ohartarazi ikasleak H2 jokiteari lotutako balore instrumentalez		
Aldiro-aldiri gogoratu ikasleei H2 ondo jakitea euren baloratzen dituzten helburuak lortzeko tresna dela.		
Azpiratu H2k munduan betetzen duen lekua, eta nabarmendu zein baliagarria izango zaien H2 bai euren eta bai euren komunitateari ere.		
Bultzatu ikasleak H2z dakitena benetako egoeretan erabiltzera.		
13. Ikasleen arrakasta-itxaropena handitu, bai ataza zehatzetarako eta bai ikasteko, oro har.		
Neurriak hartu behar besteko prestakuntza eta laguntza izan ditzaten.		
Neurriak hartu zehatz eta mehatz jakin dezaten zer den ataza horretan arrakasta izatea.		
Neurriak hartu arrakastarako oztipo larririk egon ez dadin.		
14. Bideratu ikasleak helburuetara denek onartutako taldearen helburu esplizituak formulatz.		
Eskatu ikasleei euren helburu indibidualak negoziatzeko eta helburu komun bat deskribatzeko, eta gero azken emaitza guztien aurrean azaltzeko.		
Noizetik noizera, gogoratu taldearen helburuak ikasleei, eta azpiratu zelan jardura jakin batzuk lagungarriak diren helburuak lortzeko.		
Taldearen helburuak lorgarriak izan behar		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARAKO ONARRIZKO BALDINTZAK SORTU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
8. Talde-arauak koherentziaz bete daitezten lortu.		
Arduratu zaitez zuk zeuk arauak koherentziaz betetzeaz.		
Ez utzi arau hausteak oharkabea pasatzen.		
MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK HASIERAKO MOTIBAZIOA SORTU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
9. Hizkuntzari lotutako baloreak sustatu ikasleengan, kide ereduariak aurkeztuz.		
Gonbidatu goiko mailetako ikasleak eskolara, euren esperientzia positiboak azal diezazkioten taldeari.		
Eman atzera zure ikasleei euren ikaskideen iritziak, adibidez taldearen berriperaren bidez.		
Elkartu ikasleak gaiarekin ilusioatuta dauden ikaskideekin (adib. talde txikiko lanetan edo irakasleari emateko lan luzeak prestatzen).		
10. Piztu H2 ikasteko berezko interesa ikasleei.		
Zure ustez ikasleei gustatuko zaizkien H2 ikastearen alderdiak nabarmendu eta erakutsi.		
Bihur itzazu H2rekiko aurreneko hartu-emanak esperientzia positibo.		
11. Sustatu balore "integratzaileak" H2 eta haren hiztunenganako -eta, oro har, atzerriaritasunarenaganako- jarrera positibo eta irekia bultzatu.		
Txertatu osagai soziokultural bat zure hizkuntz curriculumean.		
Eragin handiko jende ezagunak hizkuntzak ikastearen gainean adierazitako ikuspegi positiboak aipatu.		
Bultzatu ikasleak H2ko komunitateaz euren kabuz ikertzera (adib. Interneten).		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK HASIERAKO MOTIBAZIOA SORTU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
dira beti: behar izanez gero, birnegoziatu ikasleekin, lorgarriak izan daitezten.		
15. Bihurtu curriculum eta ikasmaterialak ikasleen interesekoak.		
Beharren analisirako teknikez baliatuta, ikertu zure ikasleen premia, helburu eta interesak, eta horiek txertatu zure curriculumean ahalik eta gehien.		
Erlazionatu eskolako gaiak ikasleen eguneroko esperientzia eta jatorriekin.		
Ikasleei laguntza eskatu ikastaroa diseinatu eta aurrera eramateko.		
16. Lagundu ikasleei uste errealistak sortzen.		
Egin aurre, modu positiboan, ikasleek izan ditzaketen uste, itxaropen eta suposamendu okerre.		
Ohartarazi ikasleei hizkuntzak modu diferenteetara ikasten direla, eta badiela hainbat faktore hizkuntza ikasten lagun dezaketenak.		
MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARI BUSTEN ETA BERORI BABESTEN	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
17. Bihurtu ezazu ikas-lana kilikagarriago eta jostagarriagoa ikasgelako gertaeren monotonia apurtuz.		
Aldatu atazak eta zure irakaslanaren beste alderdi batzuk ahalik eta gehien.		
Erreparatu motibazio-isuriari zure eskolan, eta ez bakarrik informazio isuriari.		
Noiz edo behin, egizu ezustekoren bat		
18. Bihurtu ikasketa gauza kilikagarri eta jostagarri ikasleentzat, atazak erakargarriago eginez.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARRI EUSTEN ETA BERORI BABESTEN	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Bihurtu atazak erroka.		
Egin edukiak erakargarri, ikasleek berez dauzkaten interesetara egokituz edota osagai berriak, harriagarriak, exotikoak, umoretsuak, lehiakoak edo fantastikoak erantsiz.		
Pertsonalizatu atazak.		
Ikusteko moduko produktu amaitua sortzea dakarten atazak aukeratu.		
19. Bihurtu ikas-lana gauza kilikagarri eta jostagarria ikasleentzat, eurak atzetako partaide aktibo bihurtuz.		
Aukeratu partaide bakoitzaren parte hartze mental edo fisikoa eskatzen duten atazak.		
Sortu rol zehatzak eta eginkizun pertsonalizatuak ikasle guzti-guztientzat.		
20. Aurkeztu eta agindu atazak modu motibagarrian.		
Atazaren xedea eta erabilgarritasuna azaldu.		
Atazaren edukiaren gosea piztu ikasleei.		
Ataza burutzeko estrategia egokiak eskaini.		
21. Erabili helburuak ezartzeko estrategiak ikasgelan.		
Bultzatu ikasleak helburu zehatzak eta epe laburrekoak hautatzera.		
Helburuak betetzeko epeei garrantzia eman, eta etengabeko feedbacka eman.		
22. Erabili kontratu-metodoak ikasleekin, helburuekiko daukaten konpromisoa formalizatzeko.		
Egin hitzarmen idatzi eta ondo zehaztu bat ikasleekin banan-banan edo ikasle taldeekin, eta bertan adierazi ikasleek zer ikasiko duten eta zelan, eta zein erataria lagunduko diezun eta sarituko dituzun.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARRI EUSTEN ETA BERORI BABESTEN	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Ikas-estrategiak irakatsi, material berria errazago eurengean dezaten.		
Komunikazio estrategiak irakatsi, komunikazio arazoak gaingiduzten laguntzeko.		
27. Eman ikasleei irudi sozial positiboa mantentzeko aukera ikas-lanetan diharduten bitartean.		
Aukeratu ikasleentzako rol "onak" dauzkaten jarduerak.		
Saihestu ikasleen irudia arriskuan jartzen duten ekintzak, adibidez kritika umilgarriak edo ikasleak ustekabeen erdigunean jartzea.		
28. Handitu ikasleen motibazioa ikasleen arteko lankidetzaz sustatuz.		
Eman ikasle-taldee helburu bera lortzeko elkarrekin lan egin beharko duten atazak.		
Ebaluazioa egitean kontuan hartu talde produktuak, eta ez bakarrik bakoitzaren produktuak.		
Eman ikasleei zelanbaiteko "prestakuntza soziala", hartara taldean ondo lan egiten ikas dezaten.		
29. Handitu ikasleen motibazioa euren autonomia modu aktiboan bultzatuz.		
Utzi ikasleei aukeratzeko ikas-prozesuaren ahalik eta alderdi gehienetan.		
Gidari/irakasle-rol eta funtzioetatik, utzi ahalik eta gehien ikasleen esku.		
Hartu bideratzailearen rola.		
30. Handitu ikasleen automatibazioa ahalmena.		
Ohartarazi ikasleak automatibazioaren garrantziaz.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARRI EUSTEN ETA BERORI BABESTEN	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Egin jarraipena ikasleen aurrerabideari eta neurriak hartu alde biek bete ditzaten kontratuaren xehetasunak		
23. Aldiro-aldiri, eman ikasleei arrakasta-esperientziak.		
Eman ikasleei arrakastarako aukera ugari klasean.		
Egokitu atazen zailtasuna ikasleen abileziei eta ataza zailak ataza errazagoekin orekatu.		
Diseinatu azterketak ikasleek dakitena azpimarratzeko, ez ez dakitena nabarmentzeko. Gainera, nota hobetzeko aukerak ere eskaini.		
24. Eraiki zeure ikasleen konfiantza sarritan bihotz emanaz.		
Bideratu ikasleen arreta euren indar eta trebezietara.		
Erakutsi ikasleei sinesten duzula ikasteko esfortzua egingo dutela eta atazak burutzeko gai direla.		
25. Lagundu hizkuntz antsietatea gutxitzen, berori sortzen duten elementuak desagerraraziz edo murriztuz ikas-ingurunean.		
Saihestu konparazio soziala, are forma sotiletan ere.		
Bultzatu lankidetzaz, eta ez lehia.		
Lagundu ikasleei onartzen akatsak egin egingo ditzutena, ikas-prozesuaren parte baitira.		
Azterketak eta ebaluazioa guztiz "gardenak" egin, eta inplikatu ikasleak azken notaren negoziazioan.		
26. Ikasleek euren ikasteko abildadeetan izan beharreko konfiantza eraiki, eta horretarako irakatsi hainbat ikasle-estrategia.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK MOTIBAZIOARRI EUSTEN ETA BERORI BABESTEN	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
Bakoitzari lagungarri gertatu zaizkion estrategiak elkarri azaldu.		
Bultzatu ikasleak automatibazio-estrategiak hartu, garatu eta erabiltzera.		
MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK AUTOMATIBAZIO POSITIBOA BULTZATU	PROBATUTA	ERABILITZEN DUT
31. Sustatu ahalegin egozpenak zure ikasleengan.		
Bultzatu ikasleak euren huts egiteak ahalegin urriaren eta estrategia egokien ezaren bidez azaltzera, eta ez abilezia gutxiegiaren bidez.		
Uko egin abilezia egozpenak onartzeari, eta azpimarra ezazu curriculuma ikasleen abilezia mailaren barnean dagoela.		
32. Eman ikasleei informazioarako feedback positiboa.		
Erreparatu eta erantzuna eman ikasleen ekarpen positibo guzti-guztiei.		
Aldiro-aldiri, eman feedbacka ikasleei egiten dabilztan aurrerapenez eta aparteko arretaz landu beharko litzuketen alderdiez.		
33. Handitu ikasleen poza.		
Egin jarraipena ikasleen aurrerapen eta lorpenei, eta hartu denbora garaipen oro ospatzeko.		
Bihurtu ikasleen aurrerapena ikusteko moduko objektu, ikus daitezkeen erregistroak eramatea proposatuz, eta aldiri gertaera bereziak antolatuz.		
Ikasleek euren trebetasunak besteen aurrean erakustea dakarten atazak agindu noizetik noizera.		
34. Eskaini sariak modu motibagarrian.		

MOTIBAZIO-ESTRATEGIAK: AUTOEBALUAZIO POSITIBOA BULTZATU	PROBATUTA	ERABILTZEN DUT
Ez daitezela ikasleak sariekin larregi arduratu.		
Materialak ez diren sariek ere gordetzeko moduko erakusgarriren bat izan dezatela.		
Sariak eskaini "harrapatzen" duten jardueretan parte hartzeagatik, hots, helburuari begira eta sormenez jokatzeari eskatzen duten eta esperientzia berriak nahiz etengabeko arrakastak eskaintzen dituzten jardueretan aritzeagatik.		
35. Erabili notak modu motibagarrian, euren eragin desmotibagarria ahalik eta gehien murriztuz.		
Ebaluazio-sistema guztiz gardena izan dadila, eta txertatu sistema horretan ikasleek eta euren ikaskideek euren iritzia emateko mekanismoak.		
Notetan ahalegina eta hobekuntza ere ispila daitezela, eta ez bakarrik errendimendu-maila objektiboak.		
Erabili etengabeko ebaluazioa, eta boligrafo eta paperezko azterketez gain, bestelako neurketa tresnez ere baliatu.		
Bultzatu ikasleen autoebaluazio zehatza, autoebaluaziorako tresnak eskainiz.		

5.2. GURE TESTUINGURUAN EUSKARA 2H BEZALA IKASTEKO MOTIBAZIOAREN INGURUAN EGINDAKO HAINBAT LANEN EMAITZAK

5.2.1. Peralesen Lana (1989)

Gipuzkoako Euskaltegi Publikoetan egindako lana da, 343 ikasleko lagina hartuta. Motibazioari dagokionez, honako emaitzak jasotzen dira:

- Instrumentaltasunetik integratzailetasunera doan kontinuumean hiru orientazio mota bereizten dituzte: instrumentalak, tartekoak eta integratzaileak.

- Ikasleak zenbat eta gazteagoak, orduan eta modu nabarmenagoan eragiten die motibazio instrumentalak (arrazoia baliteke gazteek lana aurkitu behar izatea).

- Gizonezkoek emakumezkoek baino integratiboagoak izateko joera agertzen dute.

- Noranzko integratiboak gehiago eragiten die Euskal Herrian jaiotako gurasoen seme-alabei kanpoan jaiotakoen seme-alabei baino.

- Noranzko instrumentalak ikasle unibertsitariei eragiten die gehien.

- Lagunartea zenbat eta euskaldunagoa orduan eta gehiago sortzen ditu noranzko integratiboak.

- Langile ez espezialdu, espezialdu eta teknikariek, batez ere, noranzko integratiboak bultzatuta ikasten dute; irakasleek, ordea, noranzko instrumentalak eraginda.

- Ikaslearen motibazioa zenbat eta integratiboagoa izan orduan eta gehiago saiatzen da euskara ikasten.

5.2.2. Siadekoren lana

SIADEKOK, 1996an egin zuen helduen euskalduntzeari buruzko azterketan, Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko 708.931 erdaldunek osatutako unibertsoa hartu zuen aztergai. Motibazioari buruzko datuak aztertuta, honela banatzen dira:

- Motibazio afektibo-ideologikoak (nahi dudalako, gure hizkuntza delako...)

- Motibazio komunikatzaileak (euskaldunekin hobeto komunikatzeko)
- Motibazio pragmatikoak (lanean behar dut, lana aurkitzeko, gaia gainditzeko...)

Nafarroa eta Iparraldeko euskaltegietako ikasleek motibazio afektibo-ideologiko handiagoa agertzen dute beste guztiek baino. Arrazoi komunikatzaileak garrantzitsuagoak dira, oro har, Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparraldean. Motibazio pragmatiko altuena Donostian eta Gipuzkoan azaltzen da, eta baxuena, Nafarroan, Iruñean eta Gasteizen, hau da, zonalde erdaldunenetan.

5.2.3. Goiherriko Euskaltegietako ikasleen motibazioa.

Maite Otegi Jauregik egindako ikerketa sozilinguistikoa: Zergatik euskaraz; Goierriko euskaltegietako ikasleen motibazioak.

Autoreak dioenez, lan honen helburu nagusia da euskara ikasten ari direnen motibazioak aztertu eta lantzea, etorkizuneko emaitzak hobetzeko baliagarria izango delakoan.

Horretarako, ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin du Goierriko euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten euskaltegietako ikasleek (guztira 251) osatutako lagina hartuta. Hauetatik, %47 Maizpideko barnetegiko ikasleak; beste %53ak euskaltegietako ikasleak.

Bai euskara ikasteari ekiteko, bai euskara ikasten jarraitzeko motibazioaren nolakotasunari dagokionez, euskaltegietako ikasleen arteko orientazio nagusia integratzailea da (%72,7 eta %70,9), baita barnetegikoen artekoa ere, nahiz eta neurri txikiagoan (%56,1 eta %54,4). Ikasle hauek, jarrera positiboa dute euskaldunenganako, baloratu egiten baitituzte. Honek, ikaste prozesua errazago burutzen lagunduko die.

Eragile integratzaile honek erlazio ezberdinak ditu gainerako aldagaiekin. Adibidez, eragile integratzaile sendoagoa dute gaitasun handiagoa dutenek, lurralde euskaldunagoak direnek, adin nagusiagoarekin hasitakoek, lortzeko igurikapen handiagoa dutenek, euskara ikasteari kostu psikologiko txikiagoa hautematen diotenek, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena dutenek, eragile instrumentala ere sendoa dutenek, erabilerari buruzko jarrera positiboa dutenek...

Eragile instrumentalak adinarekin, euskararako gaitasunarekin, eskolan jarraitutako ereduarekin eta bizilekuarekin dauka korrelazioa. Adibidez, gazteek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute; baita gaitasun handiagoa dutenek,

B edo D ereduan ikasi dutenek, euskararen erabilera txikiagoa den lurraldeetan bizi direnek ere. Modu berean, eragile instrumentalarekin maila esanguratsuan daude erlazionaturik lortzeko igurikapen handia, ikasteko zailtasun txikia, kostu psikologiko txikia, ikasi eta erabiltzeko asmo sendoa, balio sinboliko eta praktiko handia hautematea, euskaldunekiko jarrera positiboa, identitate euskaldunagoa...

Emaitza hauei erreparatuz, argi dago eragile instrumentala eta integratzailea batera ere joan daitezkeela, are gehiago, elkarri eusten diotela.

Motibazioaren intentsitateari dagokionez, motibazio-maila altua hurrengo aldagaiekin dago korrelazionaturik: gaitasun maila handia, adin gaztea, txikitako erabilerarekin, lortzeko igurikapena, kostu psikologiko txikia, emaitzen balorazio positiboa, eragile integratzaile eta instrumental handiagoa, erabiltzenerako jarrera positiboa, identitate euskaldunagoa, euskaldunekiko jarrera positiboagoa...

Ondorioz, balore positiboa duten aldagaiek eragin argia dute motibazio-mailan.

Azterketa kuantitatiboaren emaitzak jarraian aipatuko ditugu.

Ikasteko arrazoiatariko batzuk:

-Integrazio nahia: integratzeko nahia agertzen duten ikasleentzat euskara harreman bereziak izateko komunikaizo-tresna da; hizkuntza gutxitua den aldetik, hiztunek erabilera bakoitzean berritzen duten hizkuntzarekiko konpromisoa hartzen dute eta honek hiztunen arteko nolabaiteko konplizitatea sortzen du . Beraz, esan daiteke euskararako gaitasuna kualitatiboki ezberdinak diren harremanetarako bidea dela.

-Euskararen beharra lanerako: lan bila dabiltzan gazteek antzematen dute gehien euskararen lanerako balioa; lan publikoan aritu nahi dutenentzat lagungarri eta, batzuetan, derrigorrezkoa gerta daiteke. Motibazio honen balorazio soziala integratzailea baino eskasagoa da (helburu integratzailea oso ona da; instrumentala, ordea, ez hain ona).

-Haurrentzat euskara nahi duten gurasoak: hauetako askok familia euskaldundu nahi dute honen garrantziaz ohartu baitira.

-Hizkuntza gogoko eta ikastea atsegin: gutxi izanda ere, ikasle batzuk ikas-prozesua gogoko dutela esaten dute.

-Euskararekiko konpromisoa: ikasle batzuek, helburu pertsonalez gain, euskararekiko konpromiso trinkoa agertzen dute.

Ikas-prozesua:

- Ikasle gehienek euskara hizkuntza berezia eta zaila dela uste dute.
- Ikasle batzuek euren gaitasuna zalantzan jartzen dute ikas-prozesuaren emaitzak urriak direlako.
- Gaztelaniaren nagusitasunak ikas-prozesua oztopatu egiten du.
- Motibazioak zailtasunak gaingitzen laguntzen du.
- Helburu mota bakoitzak dinamika bereziak eragiten ditu.
- Hau dela eta irakasleak ikasleen behar eta baldintzetara egokitu behar du ikastaroa
- Titulua behar duten ikasle gehienek jarraitu egiten dute; gainerakoak, uzten joaten dira.
- Talde dinamikan norberaren interesei gero eta gehiago begiratzen zaie.

Erabilera:

- Haurrak dira erabilera gehien bultzatzen duen populazio multzorik handiena
- Guraso askok ikasten dute seme-alabengatik
- Hainbat gurasori zail egiten zaie etxeko hizkuntza ohiturak aldatzea, seme-alabek ez omen dute beraiekin hitz egin nahi.
- Helduekiko harremanetan ere ohiturak aldatzea zaila gertatzen da.
- Ikasitakoa erabiltzen hasteko ingururik egokiena denda omen dira.
- Goi-mailako ikasleek ere, gaztelaniara jotzen dute, bai hutsuneak betetzeko, bai adierazgarritasuna lortzeko (esamolde eta esapideak sartzeko ohitura).
- Gaitasuna nahiko samarra denean, euskaraz berba egitearen kostu psikologikoa handia da.
- Zenbait ikaslek erronka moduan hartzen dute erabilera, itxura onean agertzen saiatzen diren neurrian ikasteko aukerak eta motibazioa handitzen dira

Solaskideen jarrera:

- Ikasleak euskaraz egiten ahalegintzen direnean, mintzakidearen jarrera erabakitzailea da. Batzuek berauen pazientzia eza salatzen dute.

Usteak eta itxurak:

-Euskara menderatu eta erabiltzeko borondatea duten ikasle batzuek euren burua kritikatzeko hainbat egoeratan erdaraz hasten baitira elkarriketak.

-Bestea erdalduna den usteak eragindako jokabidea izaten da sarritan.

Euskararekiko jarrerak

-Denborarekin ikasleen euskarari buruzko jarrerak onerako aldatzen dira.

-Euskara lanerako behar duten ikasleen artean, batzuk euskara maitatzera heltzen dira eta beste batzuek hasieratik amaieraraino gorroto dute eta titulua ateratakoan gaztelaniaz egiten dute.

-Hizkuntza politikari buruz iritzi kontrajarriak agertzen dituzte ikasleek: batzuek derrigortuta daudela uste dute eta honen aurka agertu, ez baitzaie bide egokia iruditzen; batek galdetzen du ikastera nolabait behartuta izan ezean nork ikasiko duen; beste batek, gustura dagoela esan ondoren, beharrezkoa ez balitz hasi ere ez zela egingo dio; euskaldun zahar batek lantokietan euskaldunak alfabetatzea aurrerapausoa litzatekeela uste du, eurek euskaraz funtzionatzen badute, besteek beharrezkoa dela ikusiko dute eta, orduan emango baitute pausoa.

Ikasitakoa erabiltzeko zailtasun eta oztopoei buruz, jarraian laburtuko dugu Maite Otegik dioskuna:

-Euskalduntzearen azken xedea, ikasitakoa erabiltzea, ez da beti ikasleen esku egoten.

-Behar besteko gaitasuna lortzea ez da izaten eta lortutakoan ere hainbat oztopo daude erabilerarako, gaitasuna eta borondatea ez dira-eta nahikoa

-Ikasle askoren harreman sarea gehienbat erdalduna izanik aukerak murriztu egiten dira.

-Erabilera urria bada, zaila izaten da gaitasun egokia lortzea eta mailari eustea.

-Motibatuta dauden ikasleak dira erabiltzeko asmorik handiena agertzen dutenak.

-Erabiltzeko asmoak eragile integratzailearekiko korrelazio trinkoa dauka eta eragile instrumentalarekiko korrelazio nabarmena.

-Eragile integratzaile sendoa duten ikasleek euskararekiko leialtasun handiagoa dute.

-Eragile instrumentalaren eta euskararekiko atxikimenduaren artean ez dago korrelazio nabarmenik, ez positiborik, ez negatiborik

-Erabilerarako aukerak eskasak direla ikusita, inguru sozial erdalduneko ikasleen motibazioak behera egin dezake.

-Eragile integratzaile sendoa duten ikasleek euskaraz hitz egiteko eskubide handiagoa hautematen dute, honek erabilerari laguntzen dio.

-Eragile instrumentalaren eta euskara erabiltzeko hautemaniko eskubidearen artean ez dago korrelazio esanguratsurik

-Gaitasun falta ez da bakarrik euskaldun berrien arazoa, euskaldun zaharrak ere, euskarak jasan duen funtzio murrizketa dela eta, antzeko egoeran egoten dira sarritan.

-Norberaren gaitasunaren ahuleziaz jabetzea ez zaio batere eroso gertatzen hiztunari, beraz, batzuetan erdarara jotzen du.

-Honelako egoerak eraldatzeko bideak kontzientea behar du izan, bestela inertziak, ohiturak eta erraztasunak gehienetan gaztelaniaren alde egingo dute euskarak hizkuntza gutxiagotua izaten jarraitzen duen bitartean.

Ikerketa lan honetan autoreak espero ez zuen ondorio bat ageri da. Izan ere, Maite Otegik burujabetzaren teoriak gure testuinguruan izan zezakeen eraginkortasuna frogatu nahi zuen (norberak ikastea erabaki duelako ekiten badio euskara ikasteari, ezagutza maila altua nolabait bermatuta dagoela dio teoria honek funtsean). Emaitzek, ordea, ez dute horretarako aukerarik eman. Burujabetasunak motibazio integratzailearekin du korrelazioa, baina ez du korrelazio esanguratsurik ezagutza mailarekin. Berau, baina, motibazio instrumentalarekin ageri da loturik.

Burujabetasunak, beraz, ikasleak gerora izango duen euskararekiko fideltasuna bermatzen du. Baina, erabilera fidela izango bada ezagutza maila altua ere beharrezkoa da.

Beraz, eragile integratzaileak eta eragile instrumentalak sustatuko dituzten planak jarri behar dira abian. Azken finean, eragile integratzaileak eta eragile instrumentalak batera doaz eta beharrezkoak dira oraingo ikasleek geroan egingo duten euskararen erabilerarako.

6. PLANGINTZAK

Euskara normalizatzeko bere erabilera osoa bermatu behar da, hau da, lurralde osora eta esparru guztietara hedatu behar da. Jakina, gure hizkuntzak helburu horrekin benetan aurrera egingo badu neurriak azkar hartu behar dira. Argi dago hizkuntzaren berreskurapenean erdibidean geratzea ez dela konponbidea. Datozen urteotan munduan milaka hizkuntza galduko dira gauzak asko aldatzen ez badira. Gurea, noski, egoera larrian dagoela esan dezakegu. Globalizazioaren garaian txikiak larri ibiliko dira, baina bidea antolatu eta baliabideak jartzen baditugu, urrats garrantzitsua emateko moduan egongo gara.

Hizkuntza plangintza terminoak indar berria hartu du azken hamarkada honetan. Hizkuntzaren berreskurapena gizarte osoaren zeregina denez, gizartean bertan gertatu behar denez, planifikazio orokor bat behar da.

Euskararen normalizazioa modu planifikatuan bilatzea da, hain zuzen ere, euskara biziberritzeko planek eta erabilera plan ezberdinek duten erabakia eta helburua. Hauek, noski, maila ezberdinetan burutu daitezke, hasi gizarte osotik eta eskola bateko guraso elkarteraino. Edozein esparruk har dezake plangintza bat bere baitan.

Euskaraz aritzeko erabakia hartu eta horretarako ibilbidea planifikatu behar da. Hizkuntza testuinguru jakin eta zeregin jakinetarako erabiltzen denez, testuingurua bera planifikatzea behar-beharrezkoa da.

Geurean ere Plan Estrategikoaren beharra azpimarratu dute nola Kontseiluak hala Eusko Jaurlaritzak, bai eta Bai Euskarari akordioaren Plana eta EBPEN aurkeztu ere.

Lehen urratsa erabaki bat hartzea da. Helburu batzuk lortzeko eraldaketa prozesu bat eragin behar da. EBPEN eta BAI EUSKARARI akordioaren planen kasuan helburua hizkuntza erabiltzeko eskubidea izatetik normalizazio osoa bilatzera pasatzea da. Bestelako plangintza batzuek helburu xumeagoak izan ditzakete, tarteko helburuak jarritz. Plangintza batzuek, bezeroekiko harremana, irudi korporatiboa eta paisaia linguistikoa euskalduntzea izango dute helburu, beste batzuek, aldiz, barnera zein kanpora begirako komunikazio guztiak euskaraz izatea bilatuko dute. Adibide garbiak dira unibertsitatean, administrazioan, udal ezberdinetan eta lan-munduan martxan dauden plangintzak.

Horretarako, eragin beharreko esparruan euskarak duen egoeraren diagnostikoa egin eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu behar dira, beti ere alde eta kontra dauzkagun faktoreak kontuan hartuz.

AMIA metodologia erabili ohi da horrelako diagnostikoak egiteko. Ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak zeintzuk diren aztertuz, helburu lorgarriak aukeratzeko moduan egongo gara. Ondoren, ezarritako helburuak betetzeko neurri egokiak proposatu ahal izango ditugu, dauden baliabideak kontuan hartuta, noski. Neurriak martxan jarri ondoren emaitzak neurtu behar dira, berriz ere azterketa berri bat egin eta helburu berriak jartzeko.

Bestetik, jartzen diren helburuen arabera, plangintzek iraupen ezberdina izango dute. (3, 5, 10 urte...). Gerta daiteke plangintza erakunde baten arlo guztiei eragitea edo sail jakin batzuei baino ez.

Plangintzak, beraz, ezberdinak dira aplikazio esparru, helburu, iraupen, dimentsio eta abarri dagokienean, baina guzti-guztiek dituzte plangintzaren eragileak eta parte hartzaile edo jasoleak. Azken hauek, beste batzuek landutako planak betetzera muga daitezke, edo eurek diseinatzen lagundutako bidea jorratu. Eredu dinamikoagoa eta eraginkorragoa da zalantzarik gabe azken hau.

Zentzu horretan, geure erabilera plan ezberdinetan parte hartzaileak izango diren langile, guraso, gazte edo aisialdiko monitoreak, beraien plangintza ezagutzeaz gain, horren aldeko jarrera izatea funtsezkoa izango da, subjektu aktibo izan eta eragile garrantzitsu bihurtzeko. Oker ez bagaude, plangintza batek arrakasta izateko, plangintzaren subjektuak izango direnek, plangintza horren berri izan, diseinuan parte hartu eta eurena egitea litzateke egokiena.

Horregatik, gure ustez, edozein mikro-plangintzatan bezala gizarte osoan ere, ezer baino lehen euskalduntze prozesuari buruzko eztabaida zabaltzea behar da. Plangintzen sozializazioa eragin beharko litzateke eta horien aldeko kontzientzia piztu. Plangintzak garatu eta aurrera atera ahal izatea edozein enpresaren edota gizarte osoaren nagusitasunaren adierazle da zalantzarik gabe, baina horretarako gizarteak nolabaiteko ezagutza edo heziketa behar du.

Gure gizartearen zati izugarri handi batek, ez luke inondik inora gaitortuko euskararen biziberritzearen inguruko galdetegirik errazena ere. Gure ikasle direnek ez dakite ezer askorik hizkuntz politikaz, baina are gutxiago sekula euskaraz ikasi ez dutenek. Komunikabideetan euskarari buruzko berriak oso urriak dira, eta gainera aztertzeak litzateke zer nolako tratamendua ematen zaion gaiari. Euskarazko komunikabideetan izan ezik, inon ez da euskalduntze planei buruzko eztabaidarik egiten eta informazio askorik ere ez da zabaltzen.

Hizkuntza aniztasunak munduari egiten dion mesedeaz eta euskarari bizia emateko dugun arduraz eta aukerez ez da gizartean hitz egiten. Gure ustez, gizartera mezu garbia zabaltzea behar da. Euskaraz hitz egiteko aukerak erakutsi eta, ahal den neurrian, euskalduntzean hasitakoen lorpenak baloratu eta hasi ez direnen beldurrak uxatu.

Ikasleak plangintzaren protagonistak izan behar dira, plangintzaren objektuak batetik, baina subjektu bihurtu beharko ditugunak. Plangintza bakoitza eurekin adosten saiatu behar gara. Euren aldeko jarrera lortzea ezinbestekoa izango da arrakasta izateko. Antolatze moduan ere berebiziko garrantzia izango du honek. Euren aldeko-jarrera lortuz gero, diagnostiko egokia egiteko (datuak jasotzeko, mehatxuak, indarguneak, ahuleziak eta aukerak identifikatzeko...) laguntza handia emango digute. Gerora, arazo bakoitzaren aurrean hartu beharreko neurriak proposatuko dituzte eta plangintza euren sentituko dute. Jakin badakigu ikasleek duten motibazio instrumental hori, ondo bideratuz gero, ona ere izan daitekeela. Hortaz behar bezala baliatuz gero ikasleari bestelako motibazioa, irrikak, jakin-min eta beharrian batzuk sortu ahal zaizkio.

Bestetik erdaldunengana heltzea ere funtsezkoa izango da, euskalduntzera bultzatuz eta euren jarrera positibizatuz. Honetarako behar-beharrezkoa da erabilera handitzea beharra senti dezaten.

Jatorrizko hiztunak plangintzaren erdigunea izan behar dira. Eurek emango diete euskalduntze prozesuan daudenei beharrezkoa duten elkarreragina, eredia eta, nola ez, motibazio integratzailea. Hauekin harremanetan sentituko dira euskaldun ikasleak. Beraz, euskal hiztunak ere hizkuntz politikaren alde aktibatzea funtsezkoa izango da. Sarri gertatzen da euskaldun zaharrek ez dutela euskararen egoeraren inguruko informaziorik, ez diotela behar besteko garrantzirik ematen euskaraz aritzeko duten eskubidea aldarrikatzeari, ez dutela baloratzen euskaldun berriei laguntzen egin dezaketen lana edota ez dutela ikusten euskaraz irakurtzeak zer nolako garrantzia duen. Azterketa sakona mereziko lukete, zalantzarik gabe, jatorrizko hiztunek normalizazioari dagokionez dituzten ezagutza mailak, motibazioak eta jarrerak.

Ondo hezi beharreko beste multzo bat, plangintza ezberdinen gidaritzan arituko direnak dira. Orain arte plangintzetan dinamizatzaile edo teknikari aritu direnek, ia-ia lan autodidakta egin izan dute. Ez dago horri buruzko ikasketarik. Euskalduntze-alfabetatzean dabilen irakasle askok ere, ez du gaiaren inguruko ezagutza handirik.

Gizarte esparru ezberdinetan eragitea da, beraz, hizkuntza-plangintzen helburu nagusia. Arestian esan bezala, Bai Euskarari eta EBPN dira egun indarrean ditugun plan estrategikoak. Hauek ekarpen handia izan dira, batez ere eragin beharreko esparruak identifikatzea ekarri dutelako. Hona laburki zertan dautzan.

6.1. BAI EUSKARARI

1997an Euskararen Gizarte Kontseiluak, hausnarketa sakonen ondotik, Bai Euskarari akordioa eta honen ondorioz sortutako Plan Estrategikoa eman zituen. Esan daiteke, beraz, Kontseiluaren helburuak gizarte eragileengan eragitea eta plangintza bat garatzea izan zirela.

Euskararen unibertsoa bildu zenetik, euskalduntze prozesuan geldiuena zegoela konstatatu zen. Prozesua motelduta zegoen, euskararen aldeko mezuek ez zuten eraginik, Institutuzioetatik ez ziren neurri erabakigarriak hartzen, euskalgintza sakabanatuta zegoen eta helburu bateraturik ez zegoen.

Honen guztiaren inguruko hausnarketa sakona egin beharra zegoen, diagnostiko zehatza egin eta neurriak hartu ahal izateko. Gainera presio soziala egitea ere, funtsezkotzat hartzen zen.

Euskal Herri osoan euskararen normalizazio osoa lortzeko helburuaz, gizarte eragile garrantzitsuak inplikatzeko beharra ikusi zen. Luzera begirako eta eragin handiko dinamikan sartzea proposatzen zen, neurri zuzenak hartu eta inplikazioa sustatuz.

Gauzak horrela, Bai Euskarari akordioa sortu zen, honako hauek ziren, besteak beste, akordio honen lehen sinatzaileak:

Kirol erakundeak

Athletic Club Bilbao, Aviron Bayonnais, Deportivo Alavés, Osasuna eta Real Sociedad

Unibertsitateak

Deustuko Unibertsitatea. Mondragon Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea.

Sindikatuak

CCOO, CFDT, Confédération Française Démocratique du Travail du Pays Basque, EH N E, ELA, ELB eta LAB.

Enpresa eta finantza erakundeak:

ANEL (Asociación Navarra de Empresas Laborales), ASLE (Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi), Euskadiko Kutxa, Hemen, Herrikoa eta Mondragón Corporación Cooperativa,.

Bestelako erakundeak

Iruñeko elizbarrutia, Etxe erregionalen federazioak eta Kontseilua.

Ikus daitekeenez, gizartearen nahikoa errepresentazio zabala hartzen zuen sinatzaileen talde honek. Gerora akordioa hedatu eta honako eragileak bildu ziren akordiora:

8 unibertsitate, 15 eskola federazio edo gurasoen elkarte, 11 egunkari, 16 aldizkari, 18 herrialde, eskualde edo herri telebista, 21 irrati, 15 publizitate agentzia, 29 kirol talde, 48 kirol federazio, garraio publikoko 9 enpresa, 20 ospitale edo klinika, 48 elkargo ofizial, 7 aseguru etxe, 11 finantza entitate, 20 gainazal handi, 11 sindikatu, 40 formazio zentro, 42 enpresa kultur edo kirol ekitaldi antolatzaile, 42 gizarte mugimendu, 96 elkarte eta kultur talde, 45 zerbitzu enpresa, 25 enpresaburu-elkarte edo federazio, 60 nekazaritza elkarte edo kooperatiba.

Lehenengo egitekoa Plan Estrategikoaren metodologia zehaztea izan zen. Honako urratsak markatu ziren:

- Plana diseinatzen hasteko beharrezkoak ziren aurre urratsak edo baldintzak, eta horiek betetzeko irizpideak.
- Teknikarien formazio plana.
- Sektorializazioa (lantalde sektorialetan multzokatzea) .
- Urratsak eta horien epekatzea.
- Lantaldeen osaketa pertsonen.
- Giza baliabideak.
- Bileren kronologia.
- Lan taldeak dinamizatzeko eskuliburua
- Bestelako lan batzuen zehaztapena.

- Emaizta aurkezteko irizpideak
- Planaren segimendurako mekanismoak.
- Bestelako baliabideen zehaztapena

Sektorializazioa izan zen, zalantzarik gabe plangintzaren ikuspegi esanguratsuenetakoa. Testuinguru bakoitzean eragitea bilatzen bazen, hauen identifikazioa behar-beharrezkoa zen. Hona hemen honen arabera sortutako lantaldeak:

Unibertsitatea, Formazioa, Lehen mailako hezkuntza, Komunikabideak: prentsa, telebista, irratia, Publizitatea, Mundu Asoziatiboa, Ekitaldi Antolatzaileak, Gizarte Mugimenduak, Kirol Federazioak - EAE, Kirol Federazioak - Nafarroa, Kirol Taldeak, Kultura, Zerbitzu Orokorrak/Garraioak, Mundu Asistentziala, Osasuna, Elkargo Profesionalak, Finantzak/Aseguruak, Lan Mundua, Komertzioa/Ostalaritza, Nekazaritza eta Gainazal Handiak/Denda Kateak.

Iparraldean, gizarte eragile gutxiago izanik, hamar taldetan bildu ziren, honako hauek:

Formakuntza, Hezkuntza eta Irakaskuntza, Hedabideak, Elkartek eta Gizarte Mugimenduak, Kultura eta Ekitaldi Antolatzaileak, Kirol Mundua, Lan Mundua, Laborantza eta Arrantza, Saltegiak, Zerbitzuak eta Osasuna eta Laguntzarako Elkartek.

Hauei konpromiso mota batzuk proposatu zitzaizkien, lau mailatan banaturik:

Erakunde mailako konpromisoak

Erakundean bertan normalizazioan bultzatzeko helburua zutenak. konpromiso mota garrantzitsuenak izan ziren hauek.

Sektore mailako konpromisoak

Erakunde ezberdinetan euskara normalizatzeko, erakunde bakoitzaren eremua gaingitzen duten neurriak hartu behar direnerako. Konpromisoak erakunde ezberdinen artean hartu behar dira.

Kideen artean sustatzeko konpromisoak

Erakundearen barruan, bertako partaide diren kideen artean sustatzeko konpromisoak dira hauek.

Kide diren elkarteetan sustatzeko konpromisoak

Gizarte eragile bakoitzak, parte hartzen duen erakunde edo bilgune zabalagoetan sustatzen dituen konpromisoak dira.

Erakunde ezberdinetako plangintzetarako konpromiso maila ezberdinak proposatu ziren, hasierako egoera eta konpromiso mailaren arabera:

HIZKUNTZ PAISAJEA, IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA

Enpresa edo erakundeko paisaia euskara integratu. Errotulu nagusia, enpresa edota erakundearen egoitzan, enpresa edota aretoen seinalizazioa, etab.

Enpresa/erakundeko irudi korporatiboaren definizioan euskararen balioa jaso.

Enpresa edota erakundeak parte hartuko duen ekitaldi publikoetan euskararen presentzia zaindu.

Publizitatean euskara ere erabili.

BARNE KOMUNIKAZIOIA

Orokorrean, enpresa, elkarte edo erakundea osatzen duten kideekiko idatzizko komunikazioetan euskara (ere) erabili

LANGILE EDO KIDEEN EUSKALDUNTZEA

Trebakuntza-plana landu, euskara ikasteko aukera eskainiz.

GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

Kontratazio-politikan hizkuntz irizpideak kontuan hartu.

Langile, bazkide edo kideentzat landutako trebakuntza-plan zein jardunetan euskara kontuan hartu.

Ikasleei praktikaldia euskaraz egiteko aukera eskaini.

PUBLIKO EDO BEZEROEN AURREKO AHOZKO NAHIZ IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

Harreragileak edo telefonistak euskal publikoari edo bezeroei euskarazko harrera egin.

Publikoarekin edo bezeroekin zuzeneko harremana duten profesionalak euskaldunei euskarazko zerbitzua eskaini.

Publikoari/bezeroei heltzen zaizkien dokumentu eta inprimakietan euskararen presentzia bermatu.

EUSKARA LAN-HIZKUNTZATZAT HARTU

Orokorrean, enpresa, elkarte edo erakundea osatzen duten kideek parte hartzen duten bileretan euskara (ere) erabili.

Enpresa, erakunde etab.en barruko lan-prozedura eta lan-zirkuituetan euskara erabiltzeko aukera sortu.

Teknologia berriek euskaraz lan egiteko eskaintzen dituzten aukerak erabili.

Orokorrean, erakunde publikoetara zuzendutako komunikazioetan euskara (ere) erabili.

Hornitzaileekiko harremanetan euskara (ere) erabili, komunikazioetarako.

Azpik kontratatutako zerbitzuetan hizkuntz irizpidea erabili.

EUSKARA PLAN OSOA LANDU

Enpresa edo erakunde bakoitzak bere ezaugarrietara egokitutako euskara plana garatu.

EGITURAZKOAK

Arloko terminologia eta oinarrizko materialak euskaraz landu.

Oinarrizko dokumentuetan eta dokumentu fundazionaletan euskara erabili edota euskara kontuan hartu.

Euskararen kudeaketa egiteko egiturak eta tresnak sortu, indartu eta landu.

Euskararen etorkizuna bermatzeko lidergoa.

Planen dibertsifikazio honek, lotura zuzena du Europako Erreferentzi markoan egiten den programen dibertsifikazioarekin.

Planei ekiteko hiru urrats proposatzen dira:

Diagnostikoa

AMIA sistemaren bidez, dauden ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatu ziren. Lantalde bakoitzak bere esparruaren diagnosia egin zuen.

Neurriak

Diagnosi horretan oinarriturik, ahulezia bakoitzarentzako helburu bat eta horretara heltzeko neurriak proposatu ziren. Konpromisoekin lotutako fasea da, nolako konpromiso mota, halako neurriak.

Neurketa

Konpromisoak betetzen direla neurtzea funtsezkoa da, hitzak haizeak daramatza eta euskarak badaki hori esperientziak irakatsita. Honen ildotik etorri ziren gerora Bai Euskarari ziurtagiriak.

Konpromisoak borondatez hartu ziren. Beraz, gizarte eragileen konpromisoak sustatzeko, komunikazio plana garatu zen, Plangintza estrategikoa sozializatu zen, eragile ezberdinek sustatze lanean aritzea bultzatu zen, euskalgintza aktibatu zen eta konpromisoen agiria kaleratu zen.

Plangintza aurrera eramateko gutxieneko baldintzak dira planaren inguruko ezagutza zabaltzea eta helburuen aldeko kontzientzia piztea.

Kontseilutik sortutako plangintza honek oso ekarpen aberatsak egin zituen, besteak beste instituzioetatik sortutako EBPEN sortzean zerikusi handia izan zuela esan dezakegu. Baina batez ere, konpromiso hitza, arlo ezberdinen

bereizketa, jarraitu beharreko urratsak zehaztea eta maila ezberdinak ezartzea izan zen aipagarriena.

Azken atal honek, mailakatzeak hain zuzen ere, hiru ziurtagiri mota ekarri zituen: "bidean", "guk zerbitzua euskaraz" eta "guk zerbitzua eta lana euskaraz". Izenek ere nahiko argiro adierazten dute zer nolako konpromisoak diren. Oso interesgarriak gertatzen dira ziurtagiri bakoitzerako zenbait alderditan erabiltzen diren neurgailuak. Honako alderdiak neurtzen dira: Langileen hizkuntza eta gaitasuna, irudi korporatiboa, kanpo harremanak, barne harremanak eta programa informatikoak. Bi ziurtagiri aurreratuenetarako ematen dira. Ikus dezagun langileen hizkuntza gaitasunari dagokion deskribatzaile orokorra:

Guk zerbitzua euskaraz ziurtagirirako:

Bezeroekin ahozko eta idatzizko harremanak dituzten langileek beren lanposturako behar duten hizkuntza gaitasuna izan beharko dute:

- langile bitarteko erakundeetan: langileen %80k.
- 11 eta 50 langile bitartekoetan: %75ek.
- 51 langiletik gorakoetan: %66k.

Guk zerbitzua eta lana euskaraz ziurtagirirako:

Langile guztiek beren lanposturako behar duten ahozko eta idatzizko hizkuntza gaitasuna izan beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna barik, komunikazio gaitasuna litzateke lortu beharrekoa.

Ondoren, bi ziurtagirietan lehen hitza euskaraz erabiltzeko erabakia onartzen da. Hala ere, zerbitzua euskaraz ziurtagirian kanpoko laguntza behar izateko aukera zabalik uzten da.

Modu positiboan emandako neurgarriak zabalak dira, plangintza bakoitzean, testinguruari lotutako ñabardurez osatuta erabiltzeko baliagarriak. Adibidez, euskalduntzen dagoen langileak bezeroekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz burutu ahal izateko, duen lanaren arabera, gaitasun komunikatibo ezberdinak beharko ditu, testu ezberdinak ekoiztu beharko ditu, elkarreragin mota ezberdinetan trebatu beharko dugu. Saltzaileak produktuen deskribapenak egin beharko ditu edo bezeroa konbentzitzen jakin beharko du. Idazkariak, ordea, bestelako testu batzuk landu beharko ditu, eta bestelako lexiko bat erabiliko du gehien.

Honek lotura handia ematen dio, aurrerago ikusiko dugunez, BEPERi Europako Erreferentzi markoarekin.

6.2. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

6.2.1. Plangintza orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoan egin den hizkuntza-politikaren lerro nagusiak markatuko dituen plana da. Hortaz, herri-administrazioak aurrera eramango dituen ekimenak eta lan-lerroak bideratuko ditu, baita ekimen horiek aurrera erodateko dauden giza eta diru-baliabide nagusiak ezarri ere.

Euskararen Aholku Batzordearen azterketa-lanaren ondorengo proposamena da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin eta Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartu zutena. Aholku batzordean, batzorde iraunkorra egoteaz gain atal ezberdinak aztertzekeo batzordeak egon ziren:

Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atala

Lehenengo helburu estrategikoa aztertzea, proposamenak egitea, ondoren, ezar litezkeen neurrien betetze-maila neurtzea izango da batzorde honen zeregina. Esparruok honako hauek dira: irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea eta euskararen familia bidezko jarraipena.

Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Jarraipenerako Batzorde-atala

Batzorde-atal honetan zazpi esparru aztertzen dira: administrazioa, gune euskaldunenak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, lan-arloa, aisia, kirola eta erlijioa.

Azkeneko bi urteotan, arlo sozio-ekonomikoari eman zaio garrantzirik handiena, duen eragina kontuan hartuta.

Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atala

Jarraipenerako Batzorde-atal honek ere zazpi esparru ditu aztergai:

Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburugintza, irratia, telebista, publizitatea eta kulturgintza.

Lege Garapeneko Batzorde-atala

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko beharrezkoa izango zen lege-garapenaren ildoaz aztertzeko zeregina du.

Borondatea eta erabaki politikoak hartuta, honako helburuak markatu ziren:

euskararen transmisioa, erabilera eta kalitatea indartzea; euskararen funtzionaltasuna eta lurraldetasuna lortzea; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzea, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean.

Aipagarria da euskararen aldeko diskriminazio positiboa egitea planteatzen dela.

Beraz, plangintza diseinatzeari ekitea zen hurrengoa.

Lehenengo egitekoa arlo ezberdinen inguruko diagnostikoa izan zen. AMIA sistemaren bidez, Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak aztertu ziren. Ondoren, ahulezien kontrako konponbideak proposatu ziren, mehatxuak neutralizatzeko neurriak jarritz. Gainera lehentasunak eta baliabideak eta abar finkatu ziren. Hau guztia arloka egin zen. Honetarako honako lan-batzordeak eta txostenak eratu ziren:

Euskara geroratzea familiaren eta eskolaren bidez

- Euskararen bilakaera Ipar Euskal Herrian
- Euskararen bilakaera Nafarroan
- Hizkuntzaren kalitatea
- Familia bidezko jarraipena
- Hiztun berriak irabazi eskolaren bidez
- Hiztun berriak irabazi helduak euskaldunduz

Komunikabideak eta Kulturgintza

- Euskara biziberritzeko nola baliatu telebistaz
- Euskara biziberritzeko nola baliatu irratiaz
- Kulturgintza eta ikus-entzunezkoak euskaraz
- Euskarazko prentsa
- Euskarazko liburutegia

Erabilera planak

- Udalerri euskaldunetako egoera
- Gazteen aisialdia
- Kirola eta euskara
- Euskara lan munduan
- Euskara eta teknologia berriak
- Administrazioa euskaraz
- Euskararen erabilera erlijio munduan

Beraz, plangintza honako esparruetan aplikatuko da:

Irakaskuntza, familia, aisia, kirola, kulturgintza, telebista, irratia, prentsa idatzia, liburugintza, publizitatea, euskalduntze-alfabetatzea, enpresa-mundua, erlijioa, administrazioa eta corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.

Arlo bakoitzari buruzko diagnostikoa egin eta neurriak proposatu dira.

Euskalduntze-Alfabetatzearen kasuan, honako diagnostikoa egiten da:

Mehatxutzat honako hauek hartzen dira: euskaldun berrien behar funtzionalak eta sinboliko-afektiboak ez betetzeak agerian jar dezake euskara ikasteko ahaleginak ez direla nahikoa atsegingarri; erdararen aldeko arau sozialpean jarraitzeko inertiaren zama. Honekin batera, oinarrizko kalitatea irizpidetzat ez hartzea, erdarazko komunikabideek duten eragin erdaltzale gero eta handiagoa izatea; elebakartasunaren aldeko diskurtsoa; helburuen eta bideen arteko adostasun falta.

Aukerak honakoak dira : elebitasunaren aldeko jarrera; bezero-jarrera areagotzea; elebidunen masa kritikoa; teknologia berriak; azken urteotan euskarak lortu duen ospea eta indarra.

Bestalde, datozen hamar urteetarako erronka nagusiak ezartzen dira.

Honako hauek dira, arloka emanak:

1.a. Irakaskuntza

• EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean. Beraz, ereduok bultzatu behar dira.

- Diru publikoz finantzaturako euskarazko irakaskuntza ezinbesteko da euskararen jarraipenerako Iparraldean.
- Mugaz bi aldeetako herri-erakundeen arteko harremana areagotu.
- Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola.
- Unibertsitateko ikasketak, ikerketa eta sorkuntza euskaraz egiteko eskubidea aitortu.
- Lan-munduaren euskalduntzearekin lotutako planaren bidez erabaki Lanbide Heziketan euskaraz eskaini beharreko zikloak, irakasleen euskarazko prestakuntza eta irakas-materialen eraketa
- Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.
- Derrigorrezko ez den ikastaldian euskarazko haurtzaindegia edo haur eskolak eskaini.
- Irakasle euskaldunak osatu, erdaldunak tokiz aldatuz, zahar-saritzea aurreratuz eta IRALE hobetuz.

1. b. Euskalduntze-alfabetatzea

- Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte eremuetan.
- Emaitei buruzko gogoeta sakona egin eta kalitate-irizpideak finkatu eta adostu.
- Euskalduntze-alfabetatzearen kurrikulu berriak eta euskaltegi guztietara hedatu.

1.c. Familia bidezko jarraipena

- Jarraipenean zuzeneko eragina nahiz zeharkakoa dutenak sentiberatzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie.

2a. Administrazioa

- Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri.

- Estatuko administrazioeko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
- Zerbitzuak kontratatzerakoan, baimenak emateko orduan, edozein jardun esparrutan dirulaguntzak banatzeko deia egiten direnean hizkuntza irizpideak ezarri, batik bat gune euskaldunenetan.
- Lanabes informatikoak euskaraz eskueran izan daitezen urratsak egin: tresneria, hardwarea edota softwarea erosten denean hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.

2b. Gune euskaldunenak

- Udalerrri euskaldunenetako osasun- eta gizarte-zerbitzuetako sendagile, erizain, pediatra eta langileak euskaldundu.
- Merkataritzan eta enpresa-munduan ahozko zein idatzizko hizkuntza-paisaia euskaratu.
- Herriko sareak euskalduntzeari eutsi.
- Udal-langileak euskaldundu eta oinarrizko bitartekoak eta baliabideak landu.

2c Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

- Euskararen injinerutzaren industria bultzatu
- Aplikazio konkretuetatik kanpo egongo den hizkuntz analisirako oinarrizko tresnen azpiegitura sortu.
- Euskara ikasteko multimedia-sistemak garatu.
- Informazio-teknologiaren arloko hizkuntz industriaren clusterra eratzea bultzatu
- "Plug-in" software-aplikazioak garatu, bulegotika-aplikazioetan hiztegi automatikoak, ortografi zuzentzaileak eta sinonimoen hiztegiak ezartzeko.
- Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin.
- Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.
- Bulegotika eta telematikaren arloan euskararen presentziari euskarria emango dioten funtzionalitateak garatu.

- "Multimedia Euskarriko Zentroen" erabilera bultzatu eta horietarako sarbidea INTERNET bidez sustatu. On-Line Multimedia-liburutegien kontzeptua Euskal Herriko Unibertsitateko campusetan zabaltu.

- Merkatuan zabalkunde handia duten produktuen lokalizazioari lehentasuna eman.

2.d. Enpresa-mundua

- Enpresetan euskararen erabilera areagotzekoari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaaren arabera proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

- Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren partehartze zuzena lortu, batez ere, euskararen erabilera areagotzeko proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzen teknikiak trebatzeko eta proiektu horiek gero eta enpresa gehiagotan gauzatzeko baliabideak esleitzeko.

- Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze jardunak egin.

- Antolatzen diren langileak birziklatzeko ikastaro zenbait euskaraz egin.

- Hizkuntza-irizpideak ezarri enpresa-munduan diharduten enpresa-erakunde, sindikatu, merkataritza-ganbara eta elkargo profesionalek antolatzen dituzten ikastaroetan.

2.e. Aisia

- Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.

- Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatu.

- Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

- Iparraldeari dagokionez, garrantzizkoa da umeek eta gaztetxoek euskaraz

irakurtzea, jolastea, irri egitea, euskara molde ludiko batean erabiltzea.

2.f. Kirola

- hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak eta sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

- Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan:

Iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien kirol-formakuntzarako etxeetan euskarazko gaiak gehitu urtez urte.

2.g. Erlijioa

- Euskaldunak nagusi diren lekuetan euskaraz egin
- Bihar-etziko eliz arduradunen prestaketaz arduratzen diren Euskal Herriko Teologi Fakultate eta etxeei gai batzuk, bederen, euskaraz emateko eskatu.
- Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

3 Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

- Irakasleak etengabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta erregistro diferenteen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz.

- Etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturlitasuna lortzeko.

- Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako.

- Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

- Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetariarentzat.

- Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.

- Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.

3.b. Prentsa idatzia

- Euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.
- Enpresa -jokaera egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak.
- Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

3.c. Liburugintza

- Arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz eta merkatua zabalduz.
- Merkatu-zirkuitu desberdinetarako produktuak ekoiztu, salmenta gune bakoitzean egoki izango direnak: gazte-literatura, bide-liburuak, gidak, komikiak eta abar.
- Euskal liburuarekiko politika bateratua egin, lurralde eta sail administratibo desberdinetan.
- Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarteen artean.

3.d. Irratia

- Entzulea erakartzeko interesgune bizi-biziak sortu, orain, garai batean ez bezala, irratiaz gain komunikaziorako eta entretenimendurako aukera ugari baitugu etxean.
- Irratiko esatari-kazetari eta teknikari euskaldunen prestakuntza-plangintzak bideratu hizkuntzaren arloan batik bat.
- Euskaraz bakarrik ari diren irratia guztien arteko lankidetzak bideak urratzen hasi, adibidez, entzule berriak irabazteko kanpaina berezia antolatzeke.
- Irrati euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen arteko harremanak erraztu.

3.e. Telebista

- Aisialdian euskararen erabilera ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da telebista orokorra egitea: familia osoarentzako programak, irekiak, denontzako modukoak, jende guztiairengana heltzeko modukoak eta arrakastatsuak.
- Euskarazko sorkuntza-munduarekiko harremanak zuzendu eta komunikazio bideak eraiki behar ditu ETB1ek: kultur saioak, gazte-musika, tertulia literarioak, euskal musika, kantua, antzerkia eta abar.
- Telebista-eskaintzan datorren aldaketa dela eta, estrategia eta ildo berriak begiz jo behar dira, epe laburrean, erdarazko telebistak oraindik ere are nagusiago izango baitira.
- Euskararen tradizioan oinarriturik, telebistako testuak errazten eta gozoago bihurtzen jarraitu.
- Helburu estrategikotzat umeak, gaztea k eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak hartu behar ditu Euskal Telebistak.
- Nahiz teletestuaren bidez nahiz telebista Internetekin lotuta, hizkuntzari buruzko saioak egin: ikastaroak, lehiaketak, aholkuak, galde-erantzunak, umeentzako saioak eta abar.
- Euskarazko herri-telebisten garapen-markoa lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuok bultzatzen ari diren eragile sozialen eta erakunde publikoen artean.

3.f. Publizitatea

- Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBK eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako "inertzia", "errentagarritasun eza" eta "konnotazio negatiboak" neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gaingidatzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.
- Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.
- Enpresa-estrategia erakargarriak eta eraginkorrak jarri indarrean, enpresa publiko, erdi-publiko eta enpresa pribatu enblematikoak ere beren orrietan iragarle izan daitezten.

3.g. Kulturgintza

- Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.
- Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori irrikagarri egiten ahalegindu eta horren berri eman erdaldunei ere.
- Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.
- Administrazio guztien arteko loturak sendotu.
- Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

6.2.2. EBPNren GARAPENA UDALETAN: EGOKITZAPENA ETA METODOLOGIA

EBPN Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eta hiri handietan garatzeko oinarritzko irizpideak aztertu ziren. Hauei euren hizkuntza normalizatzeko plana garatzeko eskatu zitzairen, baita gerora 5.000 biztanletik gorako herriei ere. Azkenik plana udal guztietan aplikatzeko Hizkuntz Politikarako Sailordetzatik azterketa bat bultzatu eta proposamen ezberdinak egin zituen, beti ere udalaren egoera soziolinguistikoa eta herriaren beraren tamaina kontuan hartuta. Gizarte osoaren islatzat udalak hartu eta plangintza estrategiko orokorraren aplikazioa egitea planteatzen da. Esparruz esparru egoera eta aukerak aztertu eta neurriak hartzeko.

EBPNk dituen neurriak banan-banan aztertu ondoren, horietatik, udalen eskuduntzak eta eragiteko gaitasuna kontuan hartu ziren eta 30 neurri proposatu ziren.

Bukatzeko neurriak garatzeko ekintzak finkatu dira ,arroz arlo. Guztira 120 ekintza proposatu dira. Hauek eragingarritasunaren eta bideragarritasunaren arabera sailkatu dira hurrenkera egokian gauzatzeko.

HPStik baliabide ezberdinak sortu eta sustatu dira Plangintzaren aplikazio egokia egiteko, honen jarraipena egiteko eta informazio trukaketa bermatzeko.

Ikus dezagun EBPNNk eta honen udaletako aplikazioek duten egitura:

Udaletan EBPN garatzeko egitura

EBPN				EBPNren garapena udaleretan				
3 HELBURU ESTRATEGIKO	17 ESPARRU	91 NEURRI		14 ESPARRU	30 NEURRI		120 EKINTZA	
ONDORENGO ETARATZEA	IRAKASKUNTZA	10		IRAKASKUNTZA	3		34	
	EUSKALDUNTZE	4		EUSKALDUNTZE	1		7	
	FAMILIA	2	16	FAMILIA	1	5	12	33
	ADMINISTRATZIOA	6		ADMINISTRATZIOA	2		19	
ERABILERA	Gone EUSKALDUNEIA	4						
	TEKNOLOGIA Berriak	11		TEKNOLOGIA Berriak	2		5	
	LAN MUNDUA	5		LAN MUNDUA	2		11	
	AISIA	4		AISIA	3		13	
	KIROLA	5		KIROLA	3		8	
	ERLUIOA	3	41	ERLUIOA	1	12	4	60
ELIKADURA	CORPUS	6		CORPUS	1		4	
	PRENTSA	3		KOMUNIKABIDEAK	3		7	
	LIBURUGINTZA	4		LIBURUGINTZA	2		3	
	IRRATIA	4						
	TELEBISTA	7						
	PUBLIZITATEA	3		PUBLIZITATEA	2		2	
	KULTURGINTZA	5	34	KULTURGINTZA	4	12	11	27

BEPEren eta EBPNren laburpenetan ikusi dugun bezala, plan hauen aplikazio eremu nagusietako bat udalak izan dira. Bertan eragin da gehien eta bertan jarri baliabide gehienak. Guk geuk zalantzak dauzkagu indar gehiena eremu geografikoetan metatzearen egokitasunaren inguruan.

Batetik, argi dago tokian tokiko berezitasunei aurre egiteko instituziorik hurbilena udala dela, are gehiago geurea bezalako aniztasun soziolinguistikoa duen herrian. Baina bestetik, sarritan ahaleginak dispertsatuta geratzen direlako sentazioa har daiteke. Herrietako plangintzen aplikazio esparru batzuetan udalek ez dute eskumenik edota oso mugatua dute. Adibidez, lan munduan udalek izan dezaketen eragina oso urria da.

Gainera, udalen menpe beraiei egokitu beharko ez litzaizkiekeen eskuduntzak uzten dira. Helduen euskalduntze-alfabetatzea laguntzekoa, adibidez. Neurri handi batean, euskalategi publikoak udalen menpe egoteak, hauen desegituraketa dakar, eta hau, zalantzarik gabe, irakaskuntzaren kalitatearen kalterako da. Hori gutxi balitz bezala, euskalduntzeko edo alfabetatzeko baldintza ezberdintasuna sortzen da (eskubide ezberdintasuna). Gernika edo Basauriko herritar batek euskalategi publikoan ikasteko eskubidea duen bitartean, Bilbokoak pribatura jo behar du halabeharrez. Euskalduntzearen truke ordaindu beharra geuri, behintzat, gogorra iruditzen zaigu, baina are gehiago, Bilbokoa izanik, Getxokoek baino askoz ere gehiago ordaindu behar izatea.

Horrek ez du esan nahi lurralde irizpidez egindako plangintzak txartzat jotzen ditugunik, inondik ere ez. Baina bai uste dugu euskalduntze-alfabetatzearen norabidea edo ikusmira zabaldu egin behar dela.

Arlo sozioekonomikoan, adibidez, udaletan jarritakoa besteko indarra jarri beharko litzateke gutxienik. Adibidez, oso garrantzitsua litzateke arloka ere, herrika egin den bezala, eredu ezberdinetan sailkatzea. Sektore, enpresa, eta atal bakoitzari, bere egoeraren eta pisu estrategikoaren arabera, maila bat egokitu beharko litzaioke. Sailkapenok, orokorrak izanik ere, nolabaiteko oinarria izango lirateke eraldaketa irudikatu eta planifikatzeko.

Baina, gainera, euskaltegietan matrikulatutako ikasleen helburuei erreparatzen badiegu (gehienetan titulua), azkar ikusiko dugu gure ikasleak klasera bultzatzen dituen testuinguru nagusia ez dela herria, arloa edo esparruak baizik. Horretaz gain, argi dago zenbait esparru oso arrotzak zaizkiola euskarari eta eragin handia dutela lurralde osoko biztanleengan, hala nola komunikabideak, arlo sozio-ekonomikoa eta abar. Era berean, kontuan hartu behar dugu, arlokako lanak, egoera soziolinguistiko ezberdina duten gunetako herritarrak harremanetan

jartzea ahalbidetuko digula. Zonalde ez-euskaldunetako biztanleentzat aukera paregabea izango da gerora herriko plangintzetan subjektu aktibo bihurtu ahal izateko. Motibazio instrumentalak motibazio integratzailea ekarriko dio, zalantzarik gabe.

Egoera kontuan hartzen badugu, arlokako euskalduntze plangintzak ugaritzea izan beharko litzateke helburua. Ikasle kopurua handitzeaz gain, arlo eta gune ezberdinetan eragingo genuke, bertako euskaldunei euskaraz aritzeko aukera emateaz gain, besteengan euskara ikasteko beharra eta irrika sortuz.

Bestalde EBPn-n euskalduntze-alfabetatzea gizarteko beste sektoreak bezala tratatzen da, hau da, administrazioa, erlijioa, aisialdia, publizitatea edo kirola bezala. Errotik aldatu beharreko ikuspegia iruditzen zaigu guri hori. Euskalduntze-alfabetatzea beste arlo guztietan dauden gizataldeen gaitasun-komunikatiboa handitzera bideratutako elementua izan behar da.

Plangintza ezberdinetan sumatzen diren gabeziei aurre egiteko tresna ezberdinak egon beharko lirateke. Arazo bakoitzari dagokion konponbidea emateko, tresna bakoitza modu batean edo bestean erabiltzea komeniko litzateke. Adibidez, hizkuntz paisaia aldatzeko, itzulpen zerbitzu bat erabiliko dugu, edo euskarazko ikonografia erostea erabaki. Ordenagailua euskaraz erabiltzeko softwarea sortu edo erosi egingo dugu eta abar

Era berean, euskalduntze-alfabetatzea plangintza ezberdinetako tresna izan behar da; oso garrantzitsua, baina beste atalen osagarri.

Gogora dezagun sektore honi dagokionean EBPnK proposatzen duen lehen neurria:

"Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte eremuetan."

Ikastaroak plangintzetan txertatu behar dira. Plangintza bakoitzean, diagnostikoa egitean gabezi batzuk antzemango dira. Batzuk hizkuntz paisaiarekin lotutakoak izango dira, beste batzuek araudiaren egokitzapena eskatuko dute eta beste batzuek subjektu bakoitzaren hizkuntz gaitasun mailarekin zerikusia izango dute. Langile bakoitzak lortu beharreko gutxieneko maila kontuan hartuta, bete behar dituen funtzioen arabeko programazioa burutu beharko litzateke. Hau da, testuinguru bakoitzean dauden berezitasunak kontuan hartuta, langile bakoitzaren ezaugarri eta beharrei erantzun beharko

genieke, horiei begira programatuz. Aldi berean, bere lana euskaraz betetzen laguntzen saiatuko ginateke, alboan egonez eta bere arazo errealei erantzunez.

Nolabait esateko, euskalduntze prozesua plangintzaren bultzatzailea izango da. beren-beregi ikaslearen benetako eragin guneari begira egonik, presentzia eta eragin handia izango bailuke. Era beran, plangintza bera testuinguru egokia izango litzateke ikaslea euskaraz bizitzeko.

Noski, honek plangintzetan eragingo luke. Batetik, nolabait esatearren, euskaltegia lantokian txertatzeak bultzada handia suposatuko dio prozesuari. Bestetik, plangintza bera, euskalduntzearen beharrianetara moldatu beharko litzateke. Adibidez, euskaraz funtzionatuko duten atal edo "bide osoak" zabaltzea proposa liteke, adibidez, ikasten ari direnek praktikak egiteko aukera izan dezaten. Atal edo lerro hauek, gainera, beste atalak euskalduntzeko eredu eta esperientzien bilgune izango dira.

Gure ustez, ikasleak plangintza ezberdinetan murgilduta egon behar dira. Horrela, bakoitzak gaitasun komunikatiboetan egingo dituen aurrerapausoak garrantzitsuak izango dira euren plangintzan jarritako helburu mailakatuak erdietsiz joateko. Honek ikasleari epe motzerako helburuak ezartzea eragingo dio. Helburu lorgarriak izango direnez, lorpen txikiak baina garrantzitsuak izango dira eta ikasteko motibazioari eusten lagunduko diete. Gainera, ikasleak bere ibilbidearen inguruko hausnarketa egingo du, aurrerago ikusiko dugunez, portfoliaren edo guk asma ditzakegun auto-ebaluaziorako tresnen laguntzaz. Bakoitzak, noski, helburu eta baldintza ezberdinak izango ditu. Batzuek ipuinak kontatzen ikasi beharko dute eta beste batzuek leihatilan jendea artatzen. Askok, euskaldun zahar askok adibidez, agiri jakin batzuk idazten baino ez dute ikasi behar izango eta, beraz, trebatzaile baten beharra baino ez dute izango. Beste batzuek ordutegi aldakorra izango dute eta internet bidez ikasi ahal izango dute.

7. IRAKASTEKO METODOLOGIA

Ikasleen helburu eta baldintza aniztasun honek aldaketa garrantzitsua eskatzen du ikasteko eta irakasteko metodoei dagokienean. Izan ere, metodo eta helburu ezberdinez gain, gaur egun intentsitate eta egoera ezberdinetara egokitu ahal izateko modu berriak dauzkagu, teknologia berriek eta, batez ere, internetek emandako aukerei esker.

Orain arte euskaltegira etorri izan diren ikasleek gela batean ordutegi batean eta irakasle batekin ikasi dute. Honek, gauza jakina da, ikasle kopurua mugatu egin du. Jende askok ezin du egunean bi ordu euskaltegian eman, are gutxiago euskaltegia etxetik urrun egonez gero. Kontuak kontu, orain arteko bi ardatz nagusiak, denbora eta espazioa, zeharo aldatu dira. Gaur egun, leku berean baina une ezberdinetan ikas daiteke (mediatekak), leku ezberdinetan une ezberdinetan (Internet bidezko programak: Boga, Hiznet...) Leku ezberdinetan baina une berean (Web-camen bidez) eta , noski, leku eta une berean (ohiko klaseak). Hirugarren elementua, irakaslea, irakasle izatetik tutore izatera pasatu da. Ikasleak berak ikasiko du eta gure lana bera gidatzea izango da, gu makulu bat izango gara. Ondorioz, orain arte urrun genituen ikasle potentzialengana heltzeko aukera zabaltzen zaigu.

Sareen sarean, gainera, ezagutzatik erabilerara pasatzeko tresna ugari aurkituko dituzte (Txatak, Blogak...). Are gehiago, toki hauetan benetako erabilerarekin egingo dute topo, eta hori izaten da sarritan irakasleok dugun arazoa, ikasleei zuzentasunetik egokitasunera pasatzeko erabilera naturala helaraztea hain zuzen ere.

Baina ikasleen tipologiaz eta baldintzez gain, irakasteko moduetan ere egokitzea gertatu da. Atazetan oinarritutako irakaskuntza, deskribatzaileak, autoikaskuntza, ebaluazioa... Teorizazio eta hausnarketa sakonen ondoren tresna berriak agertu zaizkigu. Hizkuntzaren ikaskuntza naturalagoa proposatzen dute, elkarreragina bilatuz eta egoera errealean erabiltzera bideratua. Kurrikulum berria eta Europako Erreferentzi markoa dira hauetako batzuk.

Gaur egun HABEren HEOK euskaltegietan darabilgun edo erabili nahi genukeen tresna dugu. 2000. urtean, Europako Erreferentzi Markoa kaleratu baino lehen, sortua bada ere, esan liteke, dokumentu zabala den aldetik, malgua dela eta hobetzeko edo moldatzeko aukera handia ematen duela.

Hona hemen dokumentu honen oinarrien laburpen bat, gure tesien oinarri teoriko moduan erabiliak.

7.1 HEOK

1981. urtean, Eusko Jaurlaritzak HABE sortu zuen, euskararen normalizazioan, helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteko. 1983an erakunde autonomo bihurtu zen.

Esan bezala, bere egiteko nagusia Helduen Euskalduntzean eragitea izan zen (eta da), eta bide horretan bere lehen egitekoen artean, langintza horretan zihardutenentzat gidari izango ziren programak ezartzea izango zen. Bide horretan, eta gaur egun indarrean dagoen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua sortu arte, lau programa jarri ditu martxan HABEk, 1981, 1983, 1987 eta 1989 urteetan, hain zuzen ere. Programa hauetan, lekuan lekuko berezitasunei erreparatzeak garrantzia hartzen zuen, baina batez ere, bateratuta ibiltzeko beharrak hartzen zuen indarra. Gaur egun, euskaltegien autonomia beharra azpimarratzen da, berriz ere.

Lehenengo lau programen nondik norakoei erreparatzen badiegu, konturatuko gara, hasieran zeuden materialak eta esperientziak biltzetik EGA arteko ibilbidea 12 urratsetan banatzera heldu dela.

Gaur egun, berriz, arazo eta helburu berriak sortu dira, bai gure herrian, bai kanpotik etorritakoak.

Lehenik eta behin EGAtik gorako maila duten pertsonak behar ditugu gizartean. Langile teknikoek EGA baino altuagoa den maila beharko dute eta horri erantzuna eman behar zaio. Bestetik, ikas prozesua amaitzeko gai ez diren ikasleak hartu behar dira kontuan. Gainera Kurrikuluan bertan Plangintzak aipatzen dira. Hauek azken hamarkadan sortu dira eta erantzun egin beharko zaie. EBPN-n bertan Kurrikulua berritzea beharrezkotzat jotzen da.

HEOK-ek, beraz, oinarri batzuk bazituen ezarrita: EGA arteko mailaketa eta edukien banaketa, ebaluaziorako zenbait irizpide...

Kurrikulu berri honek arlo ezberdinetan eragin nahi du: euskaltegien autonomian, zentro nahiz irakasleen programazioetan, ikasleen partaidetzan, mailaketan, metodologian, ebaluazioan...Honen aplikazioan asmatzean egongo da gakoa.

Lau ezaugarri nagusi ditu HABEren HEOK-ek:

- Egitasmo zabalago baten parte izango da, etengabeko aldaketan eta egokitzapenean egon behar den Helduen Euskara Irakaskuntzaren tresna. Zentzu honetan, gure ustez, plangintzetan txertatutako irakaskuntzaren etengabeko egokitzapena bilatu beharko luke, tokian tokiko egitasmoen beharrezanegi begira eta metodoen ebaluazio jarraituaren ondorioz.
- Bihotzean irakaslea egongo da, baina ardatza ikaslea eta bere beharrak izango dira. Gure kasuan, ikasleak ez du inolako parterik hartzen bere beharren identifikazioan, bere ikas ibilbidearen diseinuan, bere ebaluazioan. Argi dago ikaslearen protagonismoa bilatzea funtsezkoa izango dela, bai plangintza ezberdinetako indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak identifikatzeko, bai bere ikas prozesuaren protagonista bilakatzeko.
- Euskaltegi bakoitzak HEOK moldatu eta ñabarduraz bete beharko du. Autonomia garatu beharra dago. Dena dela, gure ustez, gaur egungo euskaltegiek duten antolaketa modua ez da autonomia garatzeko aukerarik handiena ematen duena, hau da, euskaltegi bakoitzean, oso testuinguru ezberdinak biltzen dira, eta ezin egin daiteke guztientzako egokitzapen bera. HEOK-en egokitzapenak askoz ere zehatzagoak izan beharko lirateke. Plangintza bakoitzean identifikatzen diren beharrezanegi arabera hain zuzen ere.
- Hiru oinarri nagusi ditu: zer, nola eta non. Batetik euskara ikasten duen ikasleak zer ikasten duen zedarritzen laguntzen du. Bigarrenik hizkuntzaren eskurapenean aktibatzen diren prozesuak eta parte hartzen duten elementuak definitzen saiatzen da. Azkenik ikasten den hizkuntza bere testuinguruan kokatzen du, hau da, normalizazio bidean dagoen hizkuntzaren errealitatea aipatzen du.

Esan dezakegu orain arteko egoerari iraulketa sakona emateko gutxieneko irizpide batzuk ematen zaizkigula, orain arteko euskalduntze-alfabetatzearen eragina handitzeko eta bere eragin esparrua zabaltzeko.

Azter dezagun, beraz, nola erabil daitekeen HEOK plangintza ezberdinek dituzten beharrezanegi eraginkortasunez erantzuteko oinarrietan :

Agian, euskalduntze-alfabetatzearen zeregina plangintzen baitan kokatzeko beharra azpimarratzeko, onena oinarri soziokulturaletik hastea litzateke.

7.1.1. OINARRI SOZIOKULTURALA

HEOK-ek diotenaren arabera, bi errealitate biltzen dira: alderdi soziala eta dimentsio kulturala.

7.1.1.1 Alderdi soziologikoa:

Soziolinguistika gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Honek arlo asko hartzen ditu bere baitan: zeregin soziala, eleaniztasuna, diglosia, plangintza, normalizazioa. Kurrikuluak berebiziko garrantzia ematen die normalizazioari eta motibazioari.

Normalizazio sozialari dagokionean, kurrikuluak Euskal Herrian hiru hizkuntza daudela baina berezkoa euskara duela onartzen du. Dena dela, EAE, Nafarroan eta Iparraldean egoera legala ere ezberdina izanik, kurrikuluak aplikazio ezberdinak beharko dituela aipatzen du.

Gure helburua euskaldun osoak sortzea da. Horretarako, alde batetik bidean geratzen diren ikasleak kontuan hartu behar ditugu, ikas-prozesua zergatik utzi duten aztertu eta euskalduntzearekin nolabaiteko lotura mantentzeko erraztuz.

Beste alde batetik, ikasleei ingurune euskalduna bilatzen lagundu behar diegula aipatzen da. Hala ere, argi uzten da euskaltegia ez dela ingurune euskalduna emateko ardura duen bakarra, paper garrantzitsua jokatu behar badu ere. Baina argi dago, Kurrikuluan esaten denez, ingurune ez euskaldunetan euskaltegiak eskaini behar diola ikasleari euskaraz aritzeko aukera. Horretarako ikasleari inguru berriak eskaintzeaz gain, bere ingurua ere euskalduntzen ahalegindu behar gara eta, aldi berean, ikaslearengan euskara erabiltzeko motibazioa piztu. Honetan, berriro ere, euskaldun zaharren inplikazioa oso garrantzitsua da. Zentzu honetan, indartuta ateratzen da gure tesia, hau da, euskaltegian euskara maila egokia ematen lagundu behar zaio ikasleari, baina aldi berean, bere ingurunean eragin behar da. Horretarako planifikazio orokorrago bat behar-beharrezkoa izango da, ikaslea prozesu horretako protagonista bihurtuz eta euskaltegia bera inplikaturik, sustatzaile lana egin dezan.

Normalizazio linguistikoaren ikuspegitik, argi dago ez dela gauza bera hizkuntza normalizatua edo normalizatu gabea ikastea. Hizkuntza normalizatua esparru guztietan dago eta, ondorioz, ikasleek kalean aurkitzen dute ikasten duten hizkuntzan edozein funtzio garatzeko aukera. Gure kasuan, berriz, euskarak baditu arrotzak zaizkion hainbat eremu.

HEOK-ek, dauden zenbait arazoren konstatazioa ere egiten du.

Gure ikasleen arazoak idatzizko eta ahozko erregistroak nahastea da . Ohikoa izaten da idatzizkoaren formulak erabiltzea ahozko jardunetan, bai eta erdararen kalkoak erabiltzea.

Esparru zientifikoan ezberdina da zientziaren emaitzak euskaraz eman ahal izatea edo euskara oinarri hartuta zientzia egitea.

HEOK-ek gabezi garrantzitsua identifikatzen du atal honetan: euskara esaldi mailan aztertuta dago, baina diskurtso mailan aztertzeke.

Esparru ezberdinei dagokienean, euskarak berezkoak dituen arloak daudela baieztatu (kalea, familia...) eta besteetan eragin beharra azpimarratzen du. Gainera, ikaslea protagonista bihurtu behar dela aipatzen du, ikaslea bera normalizatzaile bihurtu.

Alderdi sozialean berebiziko garrantzia hartzen duen beste errealitate bat ere biltzen du HEOK-ek, euskarak duen mehatxu handienetako bat, hain zuzen ere: euskara ez da beharrezkoa gure gizartean.

7.1.1.2.Oinarri kulturala

UNESCO-ren hitzak hartuta, kultura gizarte baten ezaugarri multzoa da. Alderdi material, espiritual, adimenezko afektibo eta abarrek osotzen dute. Hizkuntzaren bitartez gara izaki adimendunak. Hizkuntzak, funtzio komunikatiboaz gain, errepresentatiboa ere badu. Hizkuntza bat ikastea jatorrizko hitzunen ikuspegia ulertzea ere bada, ez bakarrik zeinuz jabetzea.

Euskal kultura euskara ikasi gabe ere ikas daiteke. Baita alderantziz ere.

Kurrikuluak, derrigorrean bildu behar du euskal kultura, baina ez irakasgai moduan. Askotan bere ikuspegia ezin da erdarazko hitzez esplikatatu. Atsotitz eta esamoldeetatik haratago doan kontua da. Hainbat ikuspegi hartu behar dira kontuan:

- Tratamendu integratua eman behar zaio.
- Jarduera didaktikoak elementu kulturalaz hornituta egon behar dira.
- Topikoak eta estereotipoak baztertu behar dira.
- Ikasleen egoera kontuan izan behar da
- Ikasleen jatorrizko kultura ez da baztertu behar. Ikasleek bertatik edaten dute

7.1.2 HIZKUNTZA

Lehen oinarria hizkuntzaren beraren definizioa da. Ikasleak ikasten duena definitzeaz gain, orain arteko irakasteko moduen egokitzapen bat planteatzen du. Orain arteko ereduen akatsak aipatu eta modu egokiak planteatzen ditu.

Hizkuntza komunikaziorako sistema da. Beraz, bi alderdi bereiz ditzakegu: komunikazioa eta sistema.

Sistema esatean zera esan nahi da: elkar lotzean esanahia hartzen duten elementu ezberdinen multzoa da. Sistema hau azpi-sistemei lotuta dago (fonologia, morfosintaxia, semantika...). Ikuspegi estrukturalista batetik begiratuta, hau da hain zuzen ikasleak bereganatzen duena.

Baina sistema hori diskurtso ezberdinetan aurkitzen dugu, horretarako erabiltzen baitugu. Beraz, elementu nagusia ez da hitza, ezta esaldia ere, diskurtsoa baizik. Diskurtso hori testu ezberdinetan gauzatzen da, ahozko nahiz idatzizko testuetan.

Testuak sistemari eta azpi-sistemei lotuta daude. Azpi sistemak beharren arabera landuko ditugu, diskurtso mota bakoitzak eskatzen dituen neurrian eta ikaslearen sistema edukiok integratzeko moduan dagoenean.

Beraz, erabilerako arauak ezagutzea funtsezkoa izango da, baita komunikaziorako xedea zein den jakitea ere.

Elementu hauek guztiak ezberdinak izango dira suhiltzaile, etorkin, guraso, irakasle, idazkari edo tabernarien kasuan. Hau da, bakoitzak bere funtzioaren araberrako helburu komunikatibo ezberdinak izango ditu. Horiek betetzeko diskurtso mota batzuk eratu beharko ditu testu mota jakin batzuk ekoiztuz.

Bigarren elementua komunikazioa da, sistema komunikaziorako tresna baita. Ikuspegi hori planteamendu komunikatiboari dagokio. Planteamendu komunikatibo unibertsal honetan zenbait elementu kontra-jartzen dira: erabilera/ezagutza, formala/instrumentala, emaitza/prozesua... zentzu honetan, zenbait aldaketa bultzatu beharra azpimarratzen da. Hauexek dira, hain zuzen ere, azterketak gaitzitu behar izateak oztopatzen dituen aldaketak.

Ezagutzatik erabilerara

Sarri askotan nahikotzat jo izan da hizkuntza ezagutzea komunikazio egoeretan erabili ahal izateko. Horretarako, ariketa kontrolatuak arauen azalpenekin tartekatu dira. Baina argi dago hau ez dela nahikoa egoera errealetan erabili ahal izateko. Ikasleari egoera errealetan erabili ahal izateko aukerak eskaini behar zaizkio. Bere trebetasunak erabiliz, komunikazio gaitasuna garatzeko parada bilatzera bultzatu behar dugu. Honek ez du esan nahi ariketak eta egitura eta elementu linguistikoen irakaspena baztertu behar ditugunik, baina ezagutza formaletik ezagutza instrumentalerako urratsa eman beharra dago.

Sistema sintetikotik sistema analitikora

Orain artean, unitate didaktikoz osatutako ikas prozesua burutu izan da. Baina argi dago arauen metatze hutsa ez dela nahikoa hizkuntzaren erabilera egokia bermatzeko. Sistema analitikoan bloke naturalak eskaintzen zaizkio. Benetako helburu bat lortzeko jarraitu beharreko ibilbidea jorratuz, hizkuntzaren arlo ezberdinak lantzen dira, bai eta ikaslearen gaitasun eta trebetasun ezberdinak ere. Beti horrela izango ez bada ere, sarritan ikasleen alorrarekin lotutako gaiak eta egoerak landuko ditugu. Zeregin bakoitzerako, hizkuntz jarduera ezberdinak egin beharko ditugu. Hauek testu mota ezberdinetan gauzatuko dira eta bertan aurkituko ditugu bai arau gramatikalak, bai osagai semantikoak. Hala ere arrisku bat badago: blokeak eduki gramatikalei edo semantikoei begira antolatzea, hain zuzen ere.

Produktutik prozesura

Orain arte ekoizpenari eman izan zaio garrantzia. Ariketak zuzendu eta emaitzak neurtzea izan da gure egitekorik ohikoena, bideari garrantzi handirik eman gabe. Kurrikulu berriak bideari ematen dio garrantzia. Horretarako ikaslearen parte hartzea ezinbestekoa da. Ikas-prozesua ikasleari begira egiten da (kognitiboa). Estrategian asmatzean dago koska. Gure ustez berebiziko garrantzia dauka atal honek. Ikasleak arlo edo gune baten hizkuntz plangintzaren parte sentituz, bere bidearen nondik norakoei garrantzia emango die, markatu beharreko helburuei eta jorratu beharreko alderdiei erreparatuz. Bere bidearen adierazlerik garbiena, lortzen duen gaitasun komunikatiboa izango da eta, ondorioz, plangintzaren barruan bete ditzakeen funtzio berriak.

Esalditik testura

Gramatika tradizionalak hitza eta ondorengoek esaldia zuten jomuga. Zenbait elementuk, baina, gainditu egiten dute esaldiaren egitura. Zenbait elementu ezin dira gramatika hutsetik azaldu. Euskalduntze-alfabetatzea ezin da gaitasun linguistikora mugatu, errealitatean erabiltzen den hizkuntza (pragmatika) bultzatu behar da. Kohesioak eta koherentziak berebiziko garrantzia hartzen dute. Horretarako baliabide ezberdinak ditugu: eskema, mintzagaia, ideien antolaketa.

Pragmatikak bi alderdi ditu: pragmalinguistika eta soziopragmatika.

Soziopragmatikak lau faktore ditu: sozio-kontestuala, estilistikoa, kulturala eta hitzezkoa.

Eduki pragmalinguistikoak, berriz, bitan banatuta daude: testu motak edo generoak eta testuingurua (xedea, formaltasun maila, komunikazio egoera, hizkera..).

Pragmatikaren bi alderdi hauek plangintzaren testuinguruan aurkituko ditugu ondoen, ikaslearen testuinguruan sortzen diren diskurtsoak, testu errealak ekoiztuz landuko baititugu.

Zuzentasunetik egokitasunera:

Komunikazioak hiru elementu ditu: esaldia, testua eta testuingurua; erabilera egokiak, berriz, beste hiru: gramatikala, testuala eta pragmatikoa. Zuzentasunaren (gramatikotasunaren) kontzeptu itxitik egokitasunera pasatu beharra dago. Gauzak horrela, ikasleak eta irakasleak hizkuntzaren zuzentasunari erreparatu beharko badiote ere, bere funtzioak betetzeko eta bere esparruko testuak ekoizteko beharko dituen gaitasunak eta trebetasunak lantzeari eman beharko diote garrantzia. Honela hizkuntza errazagoa eta funtzionalagoa irudituko zaie ikasleei. Egun dugun ebaluazio sistemak zuzenki eragiten du arlo honetan.

Gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora.

Hizkuntzaren jabe egiteko, esaldi zuzenak egiteaz gain, komunikazio ekintza egokietan egin beharra dago. Gaitasun linguistikotik komunikazio gaitasunera pasatu beharra dago.

HEOK-ek lau azpi-gaitasun bereizten ditu: linguistikoak, testualak, soziopragmatikoak eta estrategikoak. Hauek ikasle bakoitzak bere funtzioak betetzeko dituen beharren arabera landu beharko genituzke, hau da, bere testuinguruak esango digu zeintzuk diren ikasleak beharko dituen gaitasun linguistiko premiazkoenak, testuinguruan izan ohi den erabilerara moldatzeko landu behar dituen abileziak, zeintzuk testu mota erabili behar dituen...Adibidez, Haur Hezkuntzako irakasleak ipuinak edo haur hizkera landu beharko ditu, baina saltzailea produktuen katalogoak sortzen eta aurkezpenak egiten trebatu beharko da) Kurrikulu honetan horien arabera antolatu dira edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak.

7.1.3 OINARRI PSIKOPEDAGOGIKOA

HEOK-en oinarrietan, bigarrenak, 2. H ikasten duen ikasleak hizkuntza nola bereganatzen duen galderari erantzuten dio. Erantzuna kurrikuluaren oinarrian dago. Ikuspegi konstruktibista batetik heltzen zaio gaiari. Aipatutako enfoketik ikasleak nola ikasten duen eta irakaslearen zereginak azaltzen ditu.

Ikasketa prozesu eraikitzailea da. Ikasteak ez du edukien metatze bat esan nahi. Ikasitako eduki bakoitzak ezagutzaren egitura berria eraikitzen du:

Oreka-desoreka-oreka

Ikasketa esanahidunak ezagutzak ordezkatzeko ekarriko du, desoreka ezarri oreka berri bat ezartzeko. Ikasleari hurbilen dituen errealitateei buruz aritzeak asko lagunduko dio ikasten duena esanguratsuki ikas dezan. Ezagutzen eskurapena eduki berriari esanahia lotzean lortzen da. Honetarako hiru baldintza gertatu behar dira:

1. Ikasgaiak lotura logikoa izan behar du ikaslearen sisteman antolatzeke. Barne egituraren arabera antolatuta egon dadin. Honek hiru baldintza eskatuko ditu:
 - Edukiak multzotan lotzea
 - Multzo bakoitza gai batekin eta komunikazio eginkizun batekin lotzea
 - Multzoak elkar lotzea
2. Eduki berriak zaharrekin lotzeko aukera. Horretarako ikasleen aurreko esperientziak kontuan hartu behar dira
3. Ikasleak aldeko jarrera edukitzea funtsezkoa izango da, baita bere protagonismoa ere. Beraz, planifikazioan bere parte-hartzea nahitaezkoa da. Gure ustez, hau oso garrantzitsua da, plangintza orokorretik hasi eta bere ikas-prozesura arte.

Irakasleari ikas prozesuarekin sinkronizatuta aritzea eskatuko zaio. Ikasleari laguntza emankorra eta egokia eman behar dio. Horretarako hiru ezaugarri bete beharko lirateke:

1. Ariketaren helburua, baldintzak eta bere rola argi eduki behar ditu.

2. Edukiak erakargarriak izan behar dira. Interesak, nahiak eta gabeziak prozesuan piztu behar dira. Horretarako funtsezkoa da ikaslearen aurrezagutzak kontuan hartzea. Irakasleak ikaslea zein egoeratan dagoen jakin beharko du. Ikasgaia esanguratsuki jasotzeko prestatuta dagoen jakin behar du.
3. Ikasgaiak zentzua izan behar du. Koherentea izan. Esanahiduna eta adimen estrukturan integratzeko egokia. Jarduerak zentzua izan dezan, hiru ezaugarri bete behar ditu: ikasleak zer egin behar duen aurretik jakin behar du. Irakasleak bere aurrezagutzak martxan jarri behar ditu eta bere ikas prozesuaren bilakaeran eta emaitzetan parte hartu behar du.

Gaiek, noski, bere interesa hobeto piztuko dute bere alorrean gertatzen diren egoeretan oinarrituta badaude. Honek ez du esan nahi eskolak monotematikoak izan behar direnik; ikasleak nahi, desio, behar eta irrika ezberdinak izango baititu. Hau da, postaria, gutunak banatzeaz gain, ama, kirolzalea, irakurzalea, eta beste hainbat gauza ere izango da. Gure helburua, lehen esan bezala, euskaldun osoak sortzea da.

Helburuak lorgarriak izan behar dira. Berak ere horiek proposatzen eta zehazten laguntzen badu, guretzat laguntza handia izateaz gain, bere inplikazioa lortuko dugu.

Era berean, irakasleak ikaslearen motibazioa sustatu behar du, ikasketa esanguratsua bila dezan eta bere sistemaren berregituraketa egin dezan. Hala eta guztiz ere, ikasleak buruz ikasi nahiko balu, kontrako ahaleginak egitea alferrik litzateke.

Kontuan hartu behar dugu interesa ez duela ikasleak berezkoa, piztu eta mantendu egin behar zaio.

Baina, nola egiten du ikasleak hizkuntza ikasteko bidea?

Bi ezagutza mota daude: instrumentala eta formala. Instrumentala ikasleek inguruko solaskideekin duen harremanetara lotuta dago. Adibidez, ikasleak solaskideen laguntza eskatuko du etengabe. Bere jarduna errepikapenez eta bere diskurtsoaren ulergarritasun maila neurtzeko ahaleginez beteta egongo da ("ulertzen?")

Era berean bere solaskideek berarekin hitz egiteko moldaketa gingo dute: ahoskera erraza, errepikapenak, lexiko zaindua, erritmo pausatua... Zentzu honetan, jatorrizko hiztunen laguntza funtsezkoa da, euren jarrera onak ikaslea izugarri motiba dezake eta.

Formalari dagokionez, ikasketa honen zeregina prozesu kognitiboa bultzatzea eta 2Hren eskema osatzen laguntzea da ikasketa honen zeregina. Eskema etengabe berreraikiz, egiturak uztartuz joaten da.

Tarteko hizkuntza ikasleak 2H bereganatu bitartean egiten duen sistema da, bere ezagutza eta 2H bereganatu bitartean egiten duena. Sistema honek, ikasiz joan ahala, 2Hren antz handiagoa hartzen du.

Sistema horrek honelako ezaugarriak ditu:

- Sinpletasuna: morfosintaxiari, lexikoari eta abarri dagokionez. Komunikazioa da helburua.
- Sistematikoa: berezko sistema linguistikoa da.
- Dinamikoa: ikasleak ikasi ahala aldatzen da.
- Fosilizazioa: arriskua da; geldiuneak gertatzen dira.
- Aldakortasuna: baliabide linguistikoak ataza, helburu, solaskide, egoera eta abarren arabera aldatzen ditu.

Akatsei dagokienez, aztertu beharreko kontua dira, baina obsesionatu gabe. Honako urratsak eman beharko lirateke:

- Akatsak testuinguruan kokatu.
- Sailkatu eta deskribatu.
- Iturriak, mekanismoak eta estrategia psikolinguistikoak arakatu.
- Larritasuna neurtu eta neurriak hartu.

Kontuan hartu behar da akatsak beharrezko urratsa direla. Gainera, ikas prozesuaren adierazle dira. Kontuz ibili behar da fosilizazioaren arazoarekin. Argi dago ikasleak etenak izango dituela bere prozesuan. Hobetzen den sistema izanik, bere neurrian onartu eta baloratzeko esfortzua egin behar dugu, "euskaldun-berri" izateak dituen konnotazio txarrak uxatze aldera.

Irakaslea ikaslearen prozesua garatzen lagunduko dion tresna izango da. Beraz, zenbait gauza izan beharko ditu kontuan:

- Ikasle bakoitzak ikas estilo bat du.
- Ikasleak ezberdinak dira. Eskema kognitiboak, heziketa, kultura e. a. ezberdinak dira.
- Ikasle bakoitzak bere buruaren irudi bat du.

- Bakoitzak bere ama hizkuntzan estrategia bat du. Munduarekiko ikuspegi bat, esperientzia multzo bat... eta horietara joko du.
- Iragan esperientziek bere buruaz duen irudia baldintzatuko diote.
- Bere buruaz uste eta irudi ona duen ikasleak errazago ikasiko du.
- Ikas estiloak adimen estrategia defini dezake.
- Helburu hurbilak ezartzea komeni da.
- Irakasleak ikaslearen sentiberatasuna, jakin-mina, autoestima, eta nortasuna kontuan hartu behar ditu.
- Helburua autonomia garatzen laguntzea izan behar da.
- Estrategiak erabiltzen jakiteak autonomia emango dio.
- Helduek estrategia ezberdinak dituzte eta kontuan hartu behar dira.
- Burura ebaluatzeko trebetasuna duen ikasleak eraginkorragoa izango da.
- Laguntzea ondoan egotea da. Berez egingo lukeena zabaltzen laguntzea.

Helburu hauekin guztiekin, irakaslea ikaslearen plangintzaren barnean egotea funtsezkoa da. Ikasleak irakaslearen laguntza izan behar du bere gaitasuna handitzeko, baina baita erabilera errealean laguntzeko edo benetako interakzioa bila dezan sustatzeko.

Sarri askotan langile batek benetako dokumentu bat beteko luke, baina ez du egingo zuzen egingo ez ote duen beldurrez. Irakaslearen laguntzak ziurtasun hori emango lioke eta autoestima igotzeaz gain, bere motibazioa igoko litzateke.

Finean, EPK delakoa euskaltegi bakoitzak egin beharrean, kurrikuluaren aplikazioak plangintza ezberdinen eta ikasle bakoitzaren beharretara bideratzean dago gakoa.

HEOK, noski, dokumentu orokorra da. Euskal Herri osorako baliagarria. Baina testuinguruari garrantzi handia ematen dio eta, beraz, tokian tokiko aplikazioak egin behar dira. Hau da, Euskaltegi bakoitzak bere kurrikuluaren aplikazioa egin behar du (EPK). Baina benetako beharrei erreparatuko bagenie, benetan beharrezkoa den kurrikuluaren aplikazioa arlokakoa edo funtziokakoa izan beharko litzateke. Zalantzarik gabe, herriak oso gune garrantzitsuak dira euskalduntze prozesuan, baina gizarte egitura eta ikasleen motibazioei

erreparatzea besterik ez dago konturatzeko dibertsifikazio kurrikularra behar-beharrezkoa dela eraginkorrak izateko.

Dena dela, Europatik ere, ekarpen berriak datozkigu hizkuntzaren irakaskuntzan gabiltzanoi zenbait tresna eskainiz. Azter dezagun bada kultura aniztuna eta eleaniztuna den Europan, hizkuntzaren irakaskuntzan dabilen makina bat profesionalen lanaz burututako Europako Erreferentzi Maila Bateratua.

7.2. EUROPAKO ERREFERENTZI MARKOA

2001ean kaleratu zen Europako Erreferentzi Marko Bateratua, HABEren Kurrikuluma kaleratu eta bigarren urtera. Europar Batasunak, kontinentean gertatzen den hizkuntz aniztasunaren aurrean, hizkuntzen irakaskuntzan (zehazkiago 2. hizkuntzaren irakaskuntzan) diharduten profesionalentzako tresna hau sortzea beharrezkoa ikusi zuen; egitarauak, kurrikuluak, orientazioak azterketak, testu liburuak eta abar egiteko gida, hain zuzen ere. 2.H ikasten duenak zer ikasten duen zehaztea du helburu.

Europar Batasunak, Europako Erreferentzi Marko Bateratua bultzatzeko egiten duen printzipioen deklarazioan, hizkuntz aniztasuna ondare kulturaltzat hartzen du. Komunikaziorako mehatxutzat hartu beharrean, zaindu beharreko altxortzat jotzen ditu hizkuntzak, eta markoaren bitartez, elkarren ezagutza bultzatzea, batasuna bultzatzea eta bazterketa eta xenofobia uxatzea lortu nahi duela adierazten du. Geurea hizkuntz gutxiagotua den aldetik, gainera dezakegu geure egoeran dauden herri txikietako hizkuntzak berreskuratzea premiazkoa dela kultur aniztasunaren mesedetan.

Argi dago, gure hizkuntzaren egoera kontuan hartu gabe ezin dela tresna hau aplikatu, normalizatu gabeko egoeran dagoen hizkuntzaz ari baikara. Zalantzarik gabe, Frantzia ingelesa ikasten duenaren egoera eta Euskal Herrian euskara ikasten dutenena ez da berdina. Baina, hala ere, baditu geurera oso aplikagarriak diren alderdi asko, eta batez ere, hizkuntza ikasten duenaren beharrak eta baldintzak antzematen lagun diezaguke. Azpimarragarria da Erreferentzi hitza, hau da, egoera ezberdinetara (hizkuntzaren egoera, bitartekoak, ikaslearen baldintzak eta abar) aplikatu beharreko tresna da. Etengabeko ebaluaketa eta neurketaren ondorioz, geurera aplikatutako sistema era genezake, Europako Erreferentzi Markoari (aurrerantzean EEMB) berari ekarpen garrantzitsuak eginez. Pentsa dezakegu, plangintzen arloan Kontseilutik Bai Euskarari Plangintza Estrategikoa sortu, hainbeste jende aktibatu, hainbeste eragile eta hain garrantzitsuak konpromiso bidean jarri eta, batez ere, hainbeste hausnarketa eragin eta tinta gastatu bazen, seguruenik, euskaldunok asko izango dugula emateko, Europakoa bezalako markoetan ez ezik, normalizazio bidean dauden beste herri batzuekiko harremanetan ere.

EEMBn , alde batetik ikasten den hizkuntzaren testuinguru soziokulturala kontuan hartzea premiazkotzat jotzen da, bestetik, modu orokorrean, ikasleak

aurrera egiteko beharrezkoak dituen gaitasunak modu mailakatuan deskribatzen dira.

Aurrerago ikusiko dugunez, gaitasunen deskribatzaile orokor hauek oso lagungarriak izango dira ikasle bakoitzaren perfilari aplikatzeko. Bere beharrak eta baldintzak kontuan hartuz eratuko baitira.

Testuinguruari dagokionez, arloak, lekuak, erakundeak, pertsonak, objektuak, gertaerak, jarduerak eta testuak bereizten ditu. Honako zerrenda proposatzen du:

Arloak	Lekuak	Erakundeak	Pertsonak	Objektuak	Gertaerak	Jarduerak	Testuak
Pertsonala	Norberarena, familiarena, adiskideen etxea. Etxea, gela, lorategia; hotel bateko gela. Mendia, hondartza eta abar.	Familia- eta gizarte-harremanak.	Aitona-amonak, gurasoak, seme-alabak, anaia-arrebak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak, senar-emazteak, ezkon-senideak, adiskide minak, adiskideak, ezagunak...	Dekorazioa, altzariak, arropa, etxeko hornidura, elektrikako tresnak, jostailuak, tresnak, norberaren garbitasunerako gauzak, artelanak, liburuak, etxeko abereak eta animalia basatiak, zuhaitzak, landareak, igerilekua, belarra, etxeko ondasunak, poltsak, aisialdia, kirol-horniketa...	Familiako festak, bilerak, gorabeherak, istripuak, izadiko fenomenoak, lagunarteko jaiak, ibilaldiak (oinez, bizikletaz edo ibilgailuz); oporrak, txangoak, kirol-ospakizunak...	Eguneroko jarduerak, adibidez: arropa jantzi eta erantzi, otordua prestatu, jan, ontziak garbitu, brikolajea, lorezaintza, irakurtzea, irrati-telebista, ikuskizunak, zaletasunak, jolasak eta kirolak...	Teletestua, berme-ziurtagiriak, mediku-errezetak, eskolako eskuliburuak, eleberrak, aldizkariak, egunkariak, iragarki-paperrak, liburuxkak, posta, komunikabideak eta ahozko grabazioak.
Publikoa	Leku publikoak: kalea, plaza, parkea...; garraio publikoak, Justizia, Osasun publikoa, elkartek, ospitaleak, mediku-kontsultak, anbulatorioak, klinikak, estadioak, kirol-zelaia, antzokiak, zinema-aretoak, aisialdiguneak, jatetxeak, tabernak, hotelak, elizak...	Agintari publikoak, erakunde publikoak, Justizia, Osasun publikoa, elkartek, irabazpide asmorik gabeko elkartek, alderdi politikoak, talde erlijioso/konfesionalak...	Hiritarrak, politikako kargudunak, funtzionarioak, dendariak, poliziak, militarrek, segurtasunaz arduratzen direnak, autogidariak, ikuskatzaileak, bidaiariak, jokariak, jarraitzaileak, ikusleak, antzezleak, zerbiltzariak, tabernariak, harreragileak, kapilauak, elizjendea...	Dirua, diru-zorroa, formularioak, azokako salgaiak, armak, bizkar-zorroak, maletak, bidaia-poltsak, programak, jatekoak, edariak, mokaduak, pasaportea, baimenak.	Eguneroko gorabeherak, istripuak, bilera publikoak, erabilera, mediku zerbiltzuen erabilera; bidaia (errepidean, trenaz, itsasoz, hegazkinaz), aisialdia, erlijio-zerbitzuak...	Erosketak, zerbiltzu publikoen erabilera, mediku zerbiltzuen erabilera; bidaia (errepidean, trenaz, itsasoz, hegazkinaz), aisialdia, erlijio-zerbitzuak...	Jendearentzako oharrak eta kartelak, ontzietako etiketak, eskuorriak, grafitiak, billeteak, ordutegiak, iragarkiak, araudiak, programak, hitzarmenak, menuak, elizako testuak, sermoiak, ereserkiak.
Lana	Bulegoak; lantegiak; portuak, geltokiak, aireportuak; landetxeak; biltegiak, dendak, zerbiltzu-industriak; hotelak;...	Enpresak; administrazio publikoak; multinazionalak, korporazioak; enpresa publikoak, sindikatuak...	Enpresaburuak, enpleguatuak, zuzendariak, ikastetxeak, mendeko langileak, lankideak, kontsumitzaileak, harrerako langileak, idazkariak, garbitzaileak...	Bulego-tresnak, industria-tresnak, lanabes industrialak eta eskulangintzakoak.	Bilerak; elkarrizketak; harrerak; biltzarrik; kongresuak, merkataritza-azokak eta feriak, kontsultak, sasoiko salmentak, lan-istripuak, gizarte-liskarrak.	Negozioen kudeaketa, kudeaketa industrialak, ekoizpen-prozedurak eta prozedura administratiboak, errepidezko garraioak; salmentak, merkaturatzea; aplikazio informatikoak, bulegoen hornidura.	Merkataritzako gutunak, oharrak eta txostenak; segurtasun-aginduak; erabilera-arauak, araudiak; publizitate-materialak; etiketak eta ontziratzeak, lanpostuen deskribapena, bide-seinaleak, bisita-txartelak.
Hezkuntza	Eskolak, ikasgelak, aretoak, jolastokiak, kirol-zelaia, institutuak, unibertsitateak, hitzaldi-aretoak, sailak, ikasle-elkartek, sindikatuak, ikasle-ostatuak, unibertsitate-jangelak...	Eskola, institutua, unibertsitatea; elkarte zientifikoak, elkarte profesionalak, helduen hezkuntzarako erakundeak.	Irakasleak, talde pedagogikoa, eskola-zaintzaileak, katedratikoak, gurasoak, ikasleak, unibertsitate-irakasleak, unibertsitate-ikastaroen arduradunak, liburutzaileak, laborategiko langileak, kafetegiko langileak, administrazioak, garbitzaileak...	Eskolako langaiak; eskolako uniformeak; kirol-arropa; elikadura; ikus-entzunezko materiala; ordenagailuak; arbelak; eskolako bizkar-zorroak eta poltsak.	Ikastaro-hasiera eta amaiera; bisitaldiak eta trukeak; gurasoen eguna, kirol-jardunaldiak; txapelketak, diziplina-arazoak.	Batzarrak; eskolak; jolasak; elkartek; hitzaldiak; idazlanak, laborategiko lan praktikak, liburutegiko lanak; mintegiak eta tutoretzak, etxean egiteko lanak, mahai-inguruak eta eztabaidak.	Testu originalak (aurrekoak bezala), testu-liburuak, irakurketa-liburuak, erreferentzia-liburuak, arbeleko testuak, erretroproiektore bidezko testuak, ordenagailuzko testuak, bideo-testuak, ariketa-liburuak, aldizkarietako artikulak, laburpenak, hiztegiak.

Elementu hauek guztiak baliatuko ditugu ikas-prozesua antolatu eta esanguraz jantzitako jardura didaktikoak antolatzeko. Geure kasuan, plan ezberdinetan aztertutako egoerek dituzten elementuak erabiliko ditugu. Adibidez, jar ditzagun Bai Euskarari Plangintzan edo EBPNn bereizten diren arloak. Adibidez, guk mundu asoziatiboa, erlijioa eta abar gehituko genituzke EEMBK proposatzen duen taula honetara eta, agian, dauden batzuk hobeto bereiztu.

Demagun arlo publikoaren barruan erakundea osasun publikoa dela eta lekua zonalde euskaldun batean dagoen ospitalea dela. Pertsonak, sendagile, erizain, laguntzaile, zeladore, garbitzaile, gaixo, bisitari, administrari, zuzendaritzako partaideak eta abar izango dira. Objektuak, formularioak, botikak, osasun-tresneria, arropa... Gertaerak gaixoari harrera egitea, informeak egitea, gaixoak lasaitzea...Jarduerak, informazioa ematea, datuak eskatzea, formularioak betetzea... Testuak, informe medikoak, ziurtagiriak, oharrak...

Izan ere, komunikazioak eta sailkatutako konpetentziek eratzen dute gizabanakoaren izaera . Izango dituen harremanek definitzen dute gizaki (ikasle) bakoitzaren perfila.

Ekintzetan oinarritzen da, ikaslea gizarte eragiletzat hartzen baita. Ingurune eta jarduera jakinetan zeregin (ataza) batzuk bete behar baititu. Baina bere eragile izate horretan elementu askok hartzen dute parte, denak ere elkarri lotuta.

Hizketa ekintzak hizkuntzaren jardueretan gauzatzen dira. Hizkuntzaren erabiltzaileak, gizarte eragilea, **gaitasun orokor** eta **komunikazio gaitasunak** biltzen ditu bere baitan. Egin beharreko **atazak** egiteko bere hizkuntz jarduerak **testuinguru** batean gertatzen dira gai edo **arlo** batzuen inguruko **testuak** (ahozkoak zein idatzizkoak) ekoiztuz. Horretarako **estrategia** batzuk erabili behar dira.

Azter ditzagun elementu hauek guztiak:

Gaitasunak

Norberaren ezagutzen, trebetasunen eta ezaugarrien batura. Oso baliagarria izango zaio irakasleari ikaslearen gaitasunak ezagutzea, hauek ondo ustiatuz, ikaslea motibatu eta emaitza onak lortzen lagunduko baitio. Horretarako oso baliagarria izan daiteke irakasleak ikaslea bere testuinguruan ezagutzea eta bertan laguntzea.

Gaitasun orokorrak

Hizkuntzarekin zerikusia dutenak eta ez dutenak.

Komunikazio gaitasuna

Hizkuntz baliabideak erabiliz jarduteko aukera. Hizkuntz gaitasunek, gaitasun soziolinguistikoek eta gaitasun pragmatikoek osatzen dute komunikazio gaitasuna. Bere beharren arabera jarduteko beharko dituen hizkuntz baliabideak identifikatu eta eskuratzen laguntzea izango litzateke euskalduntze-alfabetatzearen lana.

Testuingurua

Egoerari dagokion gertaera eta eragileen batura. Arloa. Lau arlo dira nagusi: publikoa, pertsonala, hezkuntza eta lan -arloa. Gure kasuan testuinguruari lotzea arlo edo gune ezberdinen plangintzen barruan lor daiteke ondoen.

Hizkuntz jarduerak

Harrera, ekoizpena, elkarreragina, bitartekotza. Testuinguru bakoitzean horrelako hainbat gertatzen dira. Ikasle bakoitzak ere, bere funtzioen arabera, hizkuntz jarduera batzuk besteak baino gehiago landu beharko ditu

Testua

Ahozko nahiz idatzizko edozein sekuentzia. Jakina, funtzio bakoitzak hizkuntz jarduera batzuk dituela esan dugu, eta jarduera horiek testuetan gauzatzen dira. Genero testualez ari gara. Hauek ekoiztean, hizkuntzaren azpi-sistemak erabiliko ditugu (morfosintaxia, lexikoa, alde fonikoa, ortografia...)

Arloa

Sektore sail zabala. Arlo publikoa, arlo pribatua, hezkuntza arloa...

Estrategia

Ataza burutzeko aukeratzen den jarduera ildo.

Ataza

Emaitza jakin bat lortzeko beharrezko ekintza. Irakaskuntza planifikatzeko elementu garrantzitsua da. Izan ere ataza ezberdinak planifikatuz gero, estrategia ezberdinak garatu, gaitasun ezberdinak erabili eta zabaldu, testu genero ezberdinak landu eta baliabide linguistiko ezberdinak barneratuko ditu ikasleak.

Hizkuntzaren erabilera guztiak alderdi hauekin loturik egongo dira. EEMBn banan-banan deskribatzen dira atal guztiak.

Gerta daiteke helburua edo ebaluazioa osagai edo azpi-osagai batean oinarriturik egotea. Aztertzaile, programatzaile, material egile eta abarrek kontuan hartu beharko dute hau dagokion programa aplikatzeko. Aurrerago ikusiko dugunez, horren arabera programa ezberdinak erabiltzea bultzatzen da.

Baina Europako Erreferentzi Marko Bateratuak ematen diguna horixe bera da, ikasleen prozesua ebaluatzeko eta antolatze erreferentzi maila bat. Guztiontzat orokorra, baina egoerari egokiturik erabiltzeko.

Mailaketari dagokionez, honako urratsak proposatzen dira:

Erabiltzaile Gaitua	C2	Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jarioetasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.
Erabiltzaile Gaitua	C1	Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jarioetasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabili dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.
Erabiltzaile Independentea	B2	Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoek ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzunekin mintza daiteke, jarioetasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat aurkezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.
Erabiltzaile independentea	B1	Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori era biltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen

		berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitze edo bere asmoak azaltzeko.
Oinarrizko Erabiltzailea	A2	Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, bai eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere.
Oinarrizko Erabiltzailea	A1	Gai da eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertu eta erabili eta baita berehalako beharrak asetzera bideratutako esaldi soilak osatzeko ere. Badaki bere buruaren eta besteren aurkezpena egiten, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazio pertsonala ematen eta eskatzen. Oinarrizko harremanak izan ditzake, bai eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

Mailaketa honi jarraituz, EEMBK kalifikazio partzialen deskribapena bultzatuko du, trebetasun batzuek besteek baino garrantzi handiagoa izango dutenerako. "Zerbitzua euskaraz" ziurtagirian, adibidez, zenbait langilek ahozko elkarreragina, irakurmena eta idazmena baino askoz gehiago landu beharko du.

Horrela A1, A2, A2+, B1, B2, B2+, C1, C2 mailak bereiz ditzakegu, edo maila zehaztuagoetan beharrezkoa ikusiz gero. Hauen berezitasunak, kasuan kasuko deskribatzaileen bidez emango dira.

Baina funtsean, beharrian bereziei begira horrelako zatiketa egin badaiteke ere, A1 (hasierakoa), A2 (tartekoa), B1 (atalasea), B2 (aurreratua), C1 (gaitasun operatibo eraginkorra eta C2 (menderatze maila) dira proposatzen diren mailak. Hauek oso garrantzitsuak dira, batez ere azterketen mailaketarako eta agiriak edo tituluak balioztatzeke.

Maila hauetan oinarriturik, ikaslearen ikas-prozesuarekin erlazionatutako zenbait ikuspegi neurtzeko deskribatzaileak ematen dira. Deskribatzaile hauek hizkuntz

trebetasunei, komunikazio jardueri, hauek burutzeko estrategiei eta komunikazio gaitasunei egiten diete erreferentzia.

Adibidez, trebetasunei dagokienez, ahozko/idatzizko trebetasun sortaile/hartzaile/elkarreraginezkoa bereizten ditu. Hauen deskribatzaileen ondoren, bakoitzaren bitartez burutu ohi diren hizkuntz jardueren eskala mailakatuak ematen ditu eta hauetan lor daitezkeen helburu ezberdinak deskribatu. Azkenik jarduera hauek burutzeko erabili beharreko estrategiak bereizten ditu.

Hona hemen adibide batzuk:

Lehenik eta behin trebetasunei dagozkien deskribatzaile orokorrak aztertuko ditugu:

	AHOZKO ADIERAZPENA, ORO HAR
C2	Gai da diskurtso argiak eta ongi egituratuak jarotasunez sortzeko, egitura logiko eraginkorra dutenak, entzuleari osagai esanguratsuak azpimarratzen eta oroitzen laguntzen diotenak.
C1	Gai da deskribapen eta azalpen argiak eta xeheak gai konplexuei buruz egiteko; beste gai batzuk txertatzen, ideia zehatzak garatzen eta amaieran ondorio egokiak ateratzen ditu.
B2	Gai da deskribapen eta azalpen argiak egiteko, era sistematikoan garatuak, eta behar bezala nabarmentzen ditu alderdi esanguratsuak eta lagungarri izan daitezkeen garrantzizko xehetasunak.
	Gai da deskribapen eta azalpen argiak eta xeheak egiteko bere espezialitatearekin zerikusia duten hainbat gairi buruz, eta bere ideiak zabaltzeko eta aldezteko alderdi osagarriak eta adibide esanguratsuak txertatzen ditu.
B1	Gai da nolabaiteko jarotasunez bere intereseko gaien deskribapen errazak osatzeko, eta jarraitasun lineal moduan aurkezten ditu elementuak.
A2	Gai da pertsonen, bizi- edo lan-baldintzen, eguneroko jardueren, gustatzen zaizkion edo ez zaizkion gauzen deskribapen edo azalpen errazak egiteko, esaldi eta esapide errazen sail mugatua erabiliz.
A1	Gai da esaldi sinpleak eta bakunak erabiliz pertsonen eta lekuen buruzko gauzak adierazteko.

IDATZIZKO ADIERAZPEN OROKORRA	
C2	Gai da testu konplexuak argi eta jariotasunez idazteko, estilo egokia erabiliz eta eraginkortasunez, eta irakurleari ideia nagusiak aurkitzen laguntzen dion egitura logiko bati jarraituz.
C1	Gai da gai konplexuei buruzko testu argiak eta ongi egituratuak idazteko, ideia nagusiak nabarmenduz, nolabaiteko zabaltasunez eta bere ikuspegiari eusteko ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez, eta amaieran ondorio egokiak atereaz.
B2	Gai da bere espezialitatearekin lotura duten hainbat gairi buruzko testu argiak eta xeheak idazteko, hainbat iturritako informazioa eta argudioak laburtuz eta ebaluatuz.
B1	Gai da, bere interes-arloan, eguneroko gaii buruzko testu errazak eta koherenteak idazteko, elementu laburrekin jarraitasun lineala osatuz.
A2	Gai da esaldi laburrak idazteko, lokailu errazekin, adibidez "eta", "baina"; "-lako".
A1	Gai da esaldi errazak eta bakartuak idazteko.

ENTZUTEZKO ULERMEN OROKORRA	
C2	Gai da ahozko edozein hizketa ulertzeko, baita ama-hizkuntza dutenen lastertasunean esana bada ere, aurrez aurreko elkarriketetan nahiz hedabideetatik datozenetan.
C1	Gai da bere espezialitateaz haragoko gai abstraktu eta konplexuei buruzko diskurtso luzei jarraitzeko, nahiz eta litekeena den xehetasunen bat egiaztatu behar izatea, batez ere hiztunaren azentuarekin ohituta ez badago. Gai da esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzeko eta erregistro-aldaketaz ohartzeko. Gai da diskurtso luze bati jarraitzeko, baita oso argi egituratua ez denean edo ideien arteko lotura ustezkoa soilik denean eta era esplizituan adierazita ez dagoenean ere.
B2	Gai da edozein hizkera estandar ulertzeko, bai aurrez aurreko elkarriketetan bai hedabideetakoetan, bizitza pertsonalari, sozialari, akademikoari edo profesionalari buruzko gai arrunt edo ez arruntei buruz. Zarata gehiegi egoteak, diskurtsoak egitura egokia ez izateak eta hizkuntzaren ohiko esamoldeak erabiltzeak eragina izan dezake ikaslearen ulermen-gaitasunean. Gai da formaren eta edukiaren ikuspegitik konplexua den diskurtso baten ideia nagusiak ulertzeko, hizkuntza estandarrean esana bada, izan gai zehatzei buruzkoa nahiz gai abstraktuei buruzkoa, baita bere espezialitatearen baitako eztabaida teknikoei buruz bada ere. Gai da diskurtso luzeak eta argudio-ildo konplexuei jarraitzen dietenak ulertzeko, baldin eta gaia nahiko ezaguna bada eta markatzaile esplizituak ematen badira azalpenaren egituraz ohartzeko laguntza gisa.
B1	Gai da eguneroko gaii edo laneko gaii buruzko informazio zehatza ulertzeko eta mezu orokorrak nahiz xehetasun espezifikoak ulertzeko, baldin eta diskurtsoak egitura argia badu eta azentu normalarekin ahoskatua bada. Gai da lanari, eskolari, aisiari... buruzko eguneroko gaien gaineko diskurtso argien eta hizkuntza estandarrekoen ideia nagusiak ulertzeko, baita kontakizun laburretakoak ere.
A2	Gai da behar zehatzei aurre egiteko adina ulertzeko, baldin eta diskurtsoa argi egituratua eta poliki ahoskatua bada. Gai da berehalako lehentasuna duten arloei buruzko esaldi eta adierazpenak ulertzeko (adibidez, norberari eta familiari buruzko oinarritzko informazioa, erosketak, bizitokia, lanbidea), baldin eta diskurtsoa argi eta mantso ahoskatua bada.
A1	Gai da mantso eta kontuz ahoskatutako diskurtso bat ulertzeko, baldin eta hiztunak, esanahiaz jabetzeko astia emateko, etenaldi luzeak egiten baditu.

IRAKURMEN OROKORRA	
C2	Gai da idatzizko hizkuntz era guztiak ulertzeko eta era kritikoan interpretatzeko, baita testu abstraktuak eta egitura konplexukoak, eta lagunarteko esamolde asko dituztenak ere (literarioak nahiz bestelakoak). Gai da testu luze eta konplexu ugari ulertzeko eta estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi inplizituaz nahiz esplizituaz jabetzeko.
C1	Gai da bere espezialitateko eta bestelako testu luze eta konplexuak erabateko xehetasunez ulertzeko, baldin eta atal zailenak berriro irakurtzeko aukera badu.
B2	Gai da estiloa eta lastertasuna testu-motaren eta helburuen arabera aldatuz eta erreferentzia-iturriak era selektiboan erabiliz irakurtzeko. Irakurketako hiztegi zabala du, baina zailtasunak izan ditzake ez ohiko esapideekin.
B1	Gai da bere espezialitatearekin zerikusia duten gaien buruzko testu errazak irakurtzeko, ulermen-maila onarekin.
A2	Gai da eguneroko edo laneko hizkuntzan idatzitako gai arruntei buruzko testu laburrak eta errazak ulertzeko.
	Gai da oso hiztegi arrunta eta nazioarteko hiztegi komuneko hainbat termino dituzten testu laburrak eta errazak ulertzeko.
A1	Gai da oso testu laburrak eta errazak ulertzeko, esaldiz esaldi irakurriz, izen, hitz eta oinarritzko esaldi arruntak ulertuz eta berriz irakurriz, hala behar duenean.

Elkarreraginari dagokionez, ahozkoa eta idatzizko elkarreragin orokorrak bereizten dira eta deskribatzaile taula bereziak ematen dira.

Dena dela, trebetasun bakoitzaren barruan, jarduera linguistiko ezberdinak bereizten dira. Ikus dezagun zeintzuk aipatzen diren eta trebetasun bakoitzetik adibide bana

Ahozko adierazpena: bakarrizketa jarraitua (esperientzien deskribapena edo argudioak ematea), jendaurreko adierazpenak eta entzule askoren aurrean hitz egitea.

	BAKARRIZKETA JARRAITUA: Esperientzien deskribapena
C2	Gai da deskribapen argiak egiteko, jartasunez eta egoki, landuak eta, askotan, bikainak.
C1	Gai da deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz. Gai da deskribapenak eta kontakizun konplexuak osatzeko, eta beste gai batzuk txertatzeko, ideia zehatzak garatzeko eta amaieran ondorio egokiak atzeratzeko.
B2	Gai da deskribapen argi eta xeheak egiteko bere espezialitatearekin loturiko gaiak buruz.
B1	Gai da deskribapen errazak egiteko bere espezialitatearen baitako gai arruntez. Gai da nolabaiteko jartasunez osatzeko bere intereseko gaien deskribapen errazak, eta jarraitasun lineal moduan elementuak aurkezteko. Gai da esperientzien kontakizun xehea egiteko, sentipenak eta erreakzioak deskribatzeko. Gai da ustekabeko gertaeren xehetasunak emateko; istripu batenak, esaterako. Gai da liburu edo filmen argudioen kontakizuna egiteko, eta bere erreakzioak deskribatzeko. Gai da ametsak, itxaropenak eta nahiak deskribatzeko. Gai da benetako edo irudizko gertaerak deskribatzeko. Gai da kontakizunak kontatzeko.
A2	Gai da kontakizunak kontatzeko edo deskribapenak egiteko, elementuak elkarrekin erraz lotuz. Ingurune eguneroko gauzen deskribapena egiten du; pertsona, lekua, lan- edo ikasketa-esperientzia, esaterako. Gai da deskribapen laburrak eta oinarritzkoak egiteko gertaerei eta jardueri buruz. Gai da deskribapenak egiteko planez eta hitzorduez, ohiturez, jardura arruntez edo iraganekoez eta bere esperientziez. Gai da hizkuntza sinplea eta deskribatzailea erabiltzeko objektuei eta jabetzei buruzko adierazpen laburrak eta konparazioak egiteko. Gai da zerbaiti buruz gustuko duena eta ez duena azaltzeko. Gai da familia, bizimodua, ikasketak eta gaur egungo lana edo izan zuen azkena deskribatzeko. Gai da pertsonen, lekuen eta jabetzen deskribapen errazak egiteko.
A1	Gai da bere burua deskribatzeko, eta bere lanbideaz eta bizitokiaz hitz egiteko.

Idatzizko adierazpena: sormenezko idazketa, txostenak eta idazlanak.

	BAKARRIZKETA JARRAITUA: Esperientzien deskribapena
C2	Gai da deskribapen argiak egiteko, jartasunez eta egoki, landuak eta, askotan, bikainak.
C1	Gai da deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz. Gai da deskribapenak eta kontakizun konplexuak osatzeko, eta beste gai batzuk txertatzeko, ideia zehatzak garatzeko eta amaieran ondorio egokiak atzeratzeko.
B2	Gai da deskribapen argi eta xeheak egiteko bere espezialitatearekin loturiko gaiak buruz.
B1	Gai da deskribapen errazak egiteko bere espezialitatearen baitako gai arruntez. Gai da nolabaiteko jartasunez osatzeko bere intereseko gaien deskribapen errazak, eta jarraitasun lineal moduan elementuak aurkezteko. Gai da esperientzien kontakizun xehea egiteko, sentipenak eta erreakzioak deskribatzeko. Gai da ustekabeko gertaeren xehetasunak emateko; istripu batenak, esaterako. Gai da liburu edo filmen argudioen kontakizuna egiteko, eta bere erreakzioak deskribatzeko. Gai da ametsak, itxaropenak eta nahiak deskribatzeko. Gai da benetako edo irudizko gertaerak deskribatzeko. Gai da kontakizunak kontatzeko.
A2	Gai da kontakizunak kontatzeko edo deskribapenak egiteko, elementuak elkarrekin erraz lotuz. Ingurune eguneroko gauzen deskribapena egiten du; pertsona, lekua, lan- edo ikasketak-esperientzia, esaterako. Gai da deskribapen laburrak eta oinarritzkoak egiteko gertaerei eta jardueri buruz. Gai da deskribapenak egiteko planez eta hitzorduez, ohiturez, jardura arruntez edo iraganekoez eta bere esperientziez. Gai da hizkuntza sinplea eta deskribatzailea erabiltzeko objektuei eta jabetzei buruzko adierazpen laburrak eta konparazioak egiteko. Gai da zerbaiti buruz gustuko duena eta ez duena azaltzeko. Gai da familia, bizimodua, ikasketak eta gaur egungo lana edo izan zuen azkena deskribatzeko. Gai da pertsonen, lekuen eta jabetzen deskribapen errazak egiteko.
A1	Gai da bere burua deskribatzeko, eta bere lanbideaz eta bizitokiaz hitz egiteko.

Entzutezko ulermena (ahozko hartzailea): ama-hizkuntzan diharduten hiztunen arteko elkarrizketa ulertzea, zuzeneko hitzaldiak eta aurkezpenak ulertzea, azalpenak eta argibideak ulertzea, hedabideetako emanaldiak eta grabatutako materiala ulertzea.

	BAKARRIZKETA JARRAITUA: Esperientzien deskribapena
C2	Gai da deskribapen argiak egiteko, jartasunez eta egoki, landuak eta, askotan, bikainak.
C1	Gai da deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz. Gai da deskribapenak eta kontakizun konplexuak osatzeko, eta beste gai batzuk txertatzeko, ideia zehatzak garatzeko eta amaieran ondorio egokiak atzeratzeko.
B2	Gai da deskribapen argi eta xeheak egiteko bere espezialitatearekin loturiko gaiari buruz.
B1	Gai da deskribapen errazak egiteko bere espezialitatearen baitako gai arruntez. Gai da nolabaiteko jartasunez osatzeko bere intereseko gaien deskribapen errazak, eta jarraitasun lineal moduan elementuak aurkezteko. Gai da esperientzien kontakizun xehea egiteko, sentipenak eta erreakzioak deskribatzeko. Gai da ustekabeko gertaeren xehetasunak emateko; istripu batenak, esaterako. Gai da liburu edo filmen argudioen kontakizuna egiteko, eta bere erreakzioak deskribatzeko. Gai da ametsak, itxaropenak eta nahiak deskribatzeko. Gai da benetako edo irudizko gertaerak deskribatzeko. Gai da kontakizunak kontatzeko.
A2	Gai da kontakizunak kontatzeko edo deskribapenak egiteko, elementuak elkarrekin erraz lotuz. Ingurune eguneroko gauzen deskribapena egiten du; pertsona, lekua, lan- edo ikasketa-esperientzia, esaterako. Gai da deskribapen laburrak eta oinarritzkoak egiteko gertaerei eta jardueri buruz. Gai da deskribapenak egiteko planez eta hitzorduez, ohiturez, jardura arruntez edo iraganekoez eta bere esperientziez. Gai da hizkuntza sinplea eta deskribatzailea erabiltzeko objektuei eta jabetzei buruzko adierazpen laburrak eta konparazioak egiteko. Gai da zerbaiti buruz gustuko duena eta ez duena azaltzeko. Gai da familia, bizimodua, ikasketak eta gaur egungo lana edo izan zuen azkena deskribatzeko. Gai da pertsonen, lekuen eta jabetzen deskribapen errazak egiteko.
A1	Gai da bere burua deskribatzeko, eta bere lanbideaz eta bizitokiaz hitz egiteko.

Irakurmen (idatzizko hartzaile) orokorra: argibideak irakurtzea, orientatzeko irakurtzea, informazioa eta argudioak bilatzeko irakurtzea.

INFORMAZIOA ETA ARGUDIOAK BILATZEKO IRAKURTzea	
C2	C1 bezala.
C1	Gai da gizarte-bizitzan, lan-arloan edo arlo akademikoan aurki ditzakeen testu zabal eta konplexuen sail handia zehatz ulertzeko, eta jarrerak eta iritzi inplizituak nahiz esplizituak adierazten dituzten xehetasunez ohartzeko.
B2	Gai da bere interes-esparruko informazio-iturri oso espezializatuetatik informazioa, ideiak eta iritziak ateratzeko.
	Gai da bere espezialitatetik kanpoko artikulua espezializatuak ulertzeko, baldin eta tarteka hiztegia erabil badezake terminologia zuzen interpretatu duela egiaztatzeko.
B1	Gai da egileek beren jarrera edo ikuspegiak agertzen dituzten gaur egungo auziei buruzko artikulua eta txostenak ulertzeko.
	Gai da argudio-testuen ondorio nagusiak identifikatzeko.
	Gai da aurkezten den auziaren trataeraren argudio-ildoak jabetzeko, nahiz eta xehetasun guztiak ulertu ez.
A2	Gai da gai arruntei buruzko egunkari-artikulu errazetako ideia nagusiez jabetzeko.
	Gai da idatzizko material errazetan informazio espezifikoa identifikatzeko, adibidez gutunetan, katalogoetan eta gertaera jakinak deskribatzen dituzten egunkari-artikuluetan.
A1	Gai da idatzizko material informatibo errazen eta deskribapen labur eta soilen zentzuaz jabetzeko, batez ere ikusizko laguntza badu.

Ekoizpen-trebetasunen barruan, orain arte oso kontuan izan ez dugun beste arlo bat dago, **ekoizpen estrategiak**, hain zuzen ere. Hauen barruan planifikazioa, konpentsazioa eta kontrola eta zuzenketa aztertzen dira.

KONPENTSAZIOA

C2	Gai da gogoratzen ez duen hitz baten ordezkariaren ordezkari beste termino bat erabiltzeko, solaskidea ia ez konturatzeko moduan.
C1	B 2 + bezala.
B2	Gai da, hiztegia eta egituretan dituen hutsuneak bete ahal izateko, itzulginguruak eta parafraasiak erabiltzeko.
B1	Gai da gauza jakin baten ezaugarriak definitzeko, gauza horrek zehazki zer izen duen gogoratzen ez denean. Gai da, esan nahi duenaren antzeko esanahia duen beste hitz bat erabiliz, esanahia transmititzeko (adibidez, pertsonentzako kamioia = autobusa). Gai da nahi duen kontzeptuaren antzeko esanahia duen hitz erraz bat erabiltzeko eta solaskideari zuzenketa egin diezalon eskatzeko. Gai da ama-hizkuntzako hitz baten egokitzapena egiteko eta ulertu dioten galdetzeko.
A2	Gai da adierazi nahi duena keinuz azaltzeko, bere errepertorioan hitz egokirik aurkitzen ez badu. Gai da zer adierazi nahi duen ikusarazteko edo identifikatzeko, hura seinalatuz (adib. "Hori nahi dut, mesedez").
A1	Ez dago deskribatzailerik.

Estrategia hartzaileei dagokienez, egituraketa (entzundakoa bere sisteman kokatzeko), gauzatzea (hitz gakoak identifikatu...) eta zuzenketa estrategiak aipatzen dira

Hauei guztiei, jakina, guk geuk ikasleekin batera identifikatzen ditugun jardunak gehitu beharko genizkieke, tokian tokiko beharretara egokituz.

Gainera zenbait gaitasuni buruzko deskribatzaileak ere eskura dauzkagu. Besteak kontuan hartu beharrekotzat jotzen ditu. Hona hemen aipatzen dituen gaitasun eta trebetasunak:

Gaitasun orokorrak, Ezagutza deklaratioa (*savoir*), Munduaren ezagutza, Ezagutza soziokulturala, Kulturarteko kontzientzia, Trebetasunak eta abileziak (*savoir-faire*), Trebetasun eta abilezia praktikoak, Kulturarteko trebetasunak eta abileziak, gaitasun "existentziala" (*savoir-être*), Ikasteko ahalmena (*savoir-apprendre*), Hizkuntzaren eta komunikazioaren gaineko gogoeta, Sistema fonetikoari eta sistema horri dagozkion trebetasunen gaineko gogoeta, Ikasteko trebetasunak ..., Trebetasun heuristikoak

Komunikazio gaitasunak, gaitasun linguistikoak, gaitasun lexikoa, gaitasun gramatikala, gaitasun semantikoa, gaitasun fonologikoa, gaitasun ortografikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gizarte-harremanen adierazle linguistikoak, adeitasun-

arauak, herri-jakintzaren adierazpenak, erregistro-desberdintasuna, dialektoa eta azentua, gaitasun pragmatikoak, diskurtso-gaitasuna, gaitasun funtzionala. Hona, zenbait deskribatzaile zerrenda:

HIZTEGI-ABERASTASUNA

- C2** Aberastasun handiko erreperitorio lexikoa du, esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak barne, eta gai da esanahiaren fiabardurez jabetzeko.
- C1** Zailtasunak itzulinguruak eginez gainditzeko aukera ematen dion erreperitorio lexiko zabal bat du, eta ez zaio antzematen esamolde bila dabilenik edo saiheste-estrategiak erabiltzen dituenik. Esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak ezagutzamaila ona du.
- B2** Bere espezialitateari buruzko gaien eta gai orokorragoen hiztegi zabala du. Gai da, etengabeko errepikapena eragoztearren, formulazioa aldatzeko, baina gabezia lexikoek zailtza eta itzulinguruak erabiltzea ekar diezaiokete oraindik.
- B1** Eguneroko bizitzako gai gehienei buruz jarduteko adinako hiztegia du, itzulinguruekin bada ere, adibidez familiari, zaletasunei eta interesel, lanari, bidaiei eta gertaerei buruzkoa.
- A2** Egoera eta gai ezagunei buruzko jardura arruntetan eta eguneroko trukeetan moldatzeko adinako hiztegia du.
- A1** Egoera jakin batzuei buruz jarduteko hitz eta esaldi bakunen oinarritzko erreperitorioa du.

HIZTEGIAREN KONTROLA

- C2** Hiztegia zuzen eta egoki erabiltzen du beti.
- C1** Akats txikiak noizean behin, baina ez dira garrantzi handiko hiztegi-akatsak.
- B2** Zehaztasun lexiko handia du oro har, nahiz eta hitzak aukeratzean batzuetan nahastu egiten den edo akatsak egiten dituen, komunikazioa eragotzi gabe, halere.
- B1** Oinarritzko hiztegia ongi ezagutzen du, baina oraindik garrantzi handiko akatsak egiten ditu pentsamendu konplexuagoak adierazi behar dituzenean edo egoera eta gai ez hain arruntez jardun behar duenean.
- A2** Premia zehatz eta egunerokoei buruzko erreperitorio mugatua du.
- A1** Ez dago deskribatzailerik.

EGOKITASUN SOZIOLINGUISTIKOA

- C2** Esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak ongi erabiltzen ditu eta badaki esanahiaren nabardurei antzematen.
Ongi jabetzen da ama-hizkuntza dutenek erabiltzen duten hizkuntzaren inplikazio soziolinguistikoak eta soziokulturel, eta badaki nola erreakzionatu inplikazio horien aurrean.
Eraginkortasunez egin dezake xede-hizkuntzako hitzunen eta bere jatorrizko komunitatekoen arteko bitartekotza, desberdintasun soziokulturalak eta soziolinguistikoak kontuan hartuta.
-
- C1** Gai da esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzeko eta erregistro-aldaketari antzemateko; hala ere, baliteke tarteka xehetasunak egiaztatu behar izatea, batez ere azentua ezezaguna badu.
Gai da argota eta esamolde idiomatiko asko erabiltzen dituzten filmak ulertzeko.
Gai da hizkuntza gizarte-harremanetan malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko, baita emozioak adierazteko, norbaiti edo zerbaiti buruz jarduteko eta umorea erabiltzeko ere.
-
- B2** Gai da ziur, argi eta adertasunez jarduteko inplikaturako egoerari eta pertsonari edo pertsonari egokiturako erregistro formalean nahiz informalean.

Gai da ama-hizkuntza dutenekin harremanak izateko, nahi gabe haiei barre eragin gabe edo eragozpenik sortu gabe, eta ama-hizkuntza duen beste norbaitekin izango luketen portaera aldatzera behartu gabe.
Gai da egoera askotan egoki jarduteko eta formulazio-akats handiak saihesteko.
-
- B1** Gai da hizkuntz funtzio asko gauzatzeko, funtzio horien erakusgarri arruntak erregistro neutroan erabiliz.
Jabetzen da adetasun-arau nagusiez, eta horien arabera jarduten du.
Jabetzen da dagokion komunitatean eta bere komunitatean nagusi diren ohituren, erabileren, jarrerren, balioen eta sinesmenen arteko desberdintasunez, eta badaki desberdintasun horiek identifikatzen.
-
- A2** Gai da hizkuntzaren oinarritzko funtzioak gauzatzeko, adibidez informazioa trukatzeko eta eskatzeko, eta iritziak eta jarrerak bakuntasunez adierazteko.
Gai da gizarte-harremanetan era sinplean baina eraginkor jarduteko, esapide erraz eta arruntenak erabiliz eta funtsezko formulei jarraituz.

Gai da gizarte-truke oso laburretan moldatzeko, agurtzeko eta jendearekin hitz egiteko formula arruntak erabiliz. Badaki gonbitak eta iradokizunak egiten eta horiei erantzuten, barkamena eskatzen eta ematen, etab.
-
- A1** Gai da oinarritzko gizarte-harremanak eratze, adetasun-formula sinpleenak eta arruntenak erabiliz, agurretarako, aurkezpenetarako, etab., eta era honetako esapideak erabiltzeko: "mesedez", "eskerrik asko", "barkatu", etab.

Deskribatzaileen bitartez, programaziorako, ebaluaziorako, auto-ebaluaziorako eta egiaztagirien bateratzerako tresna lortzen dugu. Deskribatzaileak eta erreferentzia maila bateratuak dira, zalantzarik gabe, erabiltzaileek gehien baliatuko dutena. Deskribatzaile hauek zabalak dira, eta tokian tokiko berezitasunei egokitu behar zaizkie. Jakina, gure kasuan plangintza bakoitzean, xehetasunez osatu beharko lirateke.

Markoak, beraz, deskribatzaile orokorrak eskaintzen dizkigu, testuingururik gabeak baina edozein testuingurutan aplikatzeko modukoak. Hauek bi zentzutan izango dira lagungarriak. Batetik ikasleak bere testuinguruan izango duen zeregina burutzeko beharrezkoak izango dituen ezagutzak zehazteko. Bestetik ebaluatu beharrekoa zedarritzeko.

Deskribatzaileak eratzeko eta neurtzeko zenbait argibide ematen dira A eranskinean:

- Deskribatzaileek formulazio positiboa izan behar dute.
- Zehaztasuna, argitasuna, laburtasuna eta independentzia gorde behar dute.
- Metodo induktiboak deduktiboak eta kuantitatiboak daude eskalak neurtzeko. Onena hiruren konbinazioa litzateke.

EEMBk zerbaitetan lagun badiezaguke, egitarauen plangintza osatzean da. Batez ere hiru alderdi hauetan izan daiteke lagungarria:

- Aurreko ezagutzen inguruko planteamendua. Ziklo ezberdinen arteko helburu eta edukiak markatzeko.
- Egiaztagirien planifikaziorako: azterketen edukien deskribapena egin eta ebaluazio irizpideak zedarritzeko.
- Ikaskuntza independentea planifikatzeko: ikasleei ezagutzen inguruko kontzientzia piztu, helburu lorgarriak markatu, materialak hautatzen ikasi, autoebaluazioan lagundu...

Lau programa eta egiaztagiri mota bereizten dira:

- Orokorra: komunikazio gaitasunaren alderdi guztiak hobetzea dakarrena.
- Modularra: esparru eta helburu jakinei jarraitzen die.
- Neurtua: norabide eta ezagutzaren arlo jakinetara bideratuak, trebetasun batzuetan besteetan baino maila altuagoa lortuz
- Partziala: trebetasun jakinak lantzen dituenak.

Euskaldundu beharreko pertsonak bete behar izango duten funtzioaren eta dituen baldintzen arabera, bata ala bestea hautatuko dugu. Programen dibertsifikazio honek, helburu lorgarriak erdiestea ahalbidetuko digu eta, beraz, plangintzan antzemandako hutsuneak betetzea ere bai.

EEMB (gure kasuan gure kurrikulua eta programazioak) integratzailea, gardena eta koherentea izan behar da.

- Integratzailea: ezagutza eta trebetasun batzuk zehazten saiatu behar da, baita erabileraren ahalik eta esparru zabalena biltzen ere. Erabiltzaileei helburuak zehazten lagundu behar die. Hizkuntz gaitasunaren alderdi guztiak bereizi eta mailaketa egiten lagundu, garapena neurtu ahal izateko. Komunikazio gaitasunaren garapenak hizkuntzarekin loturik ez dauden zenbait ikuspegi biltzen ditu: Kontzientzia soziokulturala, sormenezko esperientzia, harreman afektiboak, ikasten ikastea...
- Gardena: erabiltzaileak erraz ulertzeko modukoa.
- Koherentea: barne kontraesanik gabekoa.

Hezkuntza sistemaren osagarriek harreman harmonikoa izan behar dute: beharrizanen identifikazioa → helburuen zehaztapena → edukien definizioa → materialen hautaketa → programen ezarpena → metodoak → ebaluazioa.

Plangintzaren egitura paraleloa ematen du. Ikas prozesuaren kasuan, beharrizanen identifikazioa egiteko, plangintzan partaide bakoitzari ezarritako gutxieneko gaitasun komunikatiboa erabiliko dugu. Maila hori estandarizatuagoa edo zehatzagoa izan daiteke. Helburuen zehaztapena aurkitutako beharrizanak kontuan hartuta egingo dugu, baina kontuan hartu beharko dira hainbat faktore: denbora, baliabideak, ikaslearen gaitasunak, inguruko laguntza... Edukien definizioari dagokionez, lortu beharreko emaitzak eskuratzeko ikasleak beharko duena zedarritzea izango da. Materialen hautaketa bizitza errealetik ateratako materialez baliatzen saiatu behar gara, ikaslearen testuinguruko elementuek, interesa piztuko baitote eta bere estrategiak hobeto garatuko ditu. Lan-arloan, adibidez, ikasleak egunerokotasunean egin behar dituen egitekoak egiten laguntzeko erabiliko dituen antzeko testuak erabili eta landu beharko ditugu. Programa deskribatzaileak amenez landuko dugu. Ikaslearen parte hartzea oso garrantzitsua izango da atal honetan, helburu eskuragarriak jarri eta ikas prozesuan aktiboki parte hartzeko. Era berean, ebaluazioan ere deskribatzaileak erabiliko ditugu. Emaitzen neurketa atal guztiei zabalik egon behar da, irakaslearen lanetik hasi eta lexikoa bereganatzeko darabiltzan estrategietaraino...

Hala ere, integratzailea, gardena eta koherentea izateak ez du esan nahi uniformea izan behar duenik. Printzipioz honelakoa izan behar da:

- Helburu anitzekoa: baliabideak planifikatzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten helburu guztiei aplikatu ahal izateko.
- Malgua: egoera ezberdinetan erabiltzeko.

- Irekia: hobetzeko zabalik.
- Dinamikoa: etengabeko ebaluazioan.
- Erabilerraza: erraz ulertzekoa.
- Ez dogmatikoa.

Bestalde, profesionalen arteko komunikazio eza gainditzea premiazkotzat jotzen du, elkarrekin gogoeta egitera bultzatuz. EEMBk hizkuntza ezberdinen arteko profesionalen artean eman behar den komunikazioaz hitz egiten du, baina berdin-berdin aplika diezaiekegu plangintza ezberdinetan ari direnen artekoei. Beraz, markoaren aplikazio berezituak egin beharko dira, baina irizpideak eta esperientziak elkarrekin eztabaidatu eta konpartitzea funtsezkoa izango da.

Testuingurua kontuan hartuta, helburuak, edukiak eta gaitasunak adostea izango litzateke teknikari hauen egitekoetako bat. Modu horretan ikasleen gaitasunak deskribatu eta bateratzeko aukera izango genuke, ahal den neurrian, deskribatzaile egokiak adostuz. Horrek tituluak edo mailak partekatzeko parada emango liguke eta, ondorioz, gaitasun maila ezberdinak frogatzeko ere bai. EEMBn azterketak eta tituluak parekatzeko bidea jorratzen da, bertan proposatutako mailei lotutako deskribatzaileak eta azterketak egiteko bidea emanez. Horrela, ikasle bakoitzaren ikas prozesua, bere beharren arabera antolatu eta ebaluatuko da, beti ere maila estandarrekin konparatzeko aukera izanda.

Dena dela EEMBk ebaluazio-tresna ezberdinak eskaintzen dizkigu: auto-ebaluazioa, irakaslearen ebaluazioa eta kanpo-ebaluazioa. Ebaluazioa, gainera, arlo guztietan egin beharreko ariketa da. Ikas/irakas prozesuan parte hartzen duen edozein arlo ebaluatu behar da (metodoak, ikaslearen asebetetasuna, estrategiak...) Noski, baita hizkuntz gaitasuna ere. Honek aurrera egiteko aukera emango digu, egindako lanaren emaitzak aztertu, neurriak hartu eta egokitzapenak egitea ahalbidetuz.

Argi dago nolabaiteko agiriak eman behar direla. Ahal den neurrian ikasleen gaitasunak modu enpirikoan frogatu behar direla.

EEMBk, hala ere, berebiziko garrantzia ematen dio ikaslearen auto-ebaluazioari. Zentzu horretan, auto-ebaluaziorako deskribatzaile batzuk proposatzen ditu. Hauen bitartez ikaslea bere egoeraz jabetuko da eta, aldi berean, bere ikas prozesuaren inguruko kontzientzia hartuko du. Honek aurrerapausoak baloratzea ahalbidetuko dio.

Irakaslearen ebaluazioaz eta kanpo-ebaluazioaz gain, auto-ebaluatzeko tresnak eskaintzen dizkigu Markoak. Azter dezagun esanguratsu eta entzutetsua den Portfolioa

7.3 PORTFOLIOA

Autoebaluazioaren bidez ikasleari bere ikas-prozesuaren lema hartzea ahalbidetzen zaio. Ikastea modu positiboan ikustea ahalbidetuko dio eta esfortzu handiagoa egitera bultzatuko du. Ikasitakoak ematen dizkion aukerei erreparatuko die, izan ere, gaitasun komunikatiboa eskuratu ahala gauza berriak egiteko ahalmena duela ikusiko du.

Irakaslearen ebaluazioetan eta kanpo-ebaluazioetan ere izango du horrek oihartzunik.

Portfolioa norberak duen tresna da. Hala ere irakasle, aztertzaile, guraso eta abarrek ere erabili ahal izango dute. Ikasleak, ikasten ari den hizkuntzei ez ezik, ezagutzen dituen beste hizkuntzei buruzko gaitasunak, esperientziak, estrategiak, agiriak eta abar islatu ahal izango ditu, iragan esperientzietatik ere ikasi ahal izateko. Honek bere ikasteko moduei buruzko hausnarketa egitera bultzatuko du. Bere ebaluazio erreala egin ahal izango du eta ibilbidea egokitzeak aukera ere bai.

Portfolioan EEMBK darabiltzan deskribatzaile mailakatuak erabiltzen dira, baina oraingoan ikaslearen ikuspegitik: "gai naiz..."

Tresna honekin, Europako Kontseiluak Europarrok hizkuntzak ikastera bultzatu nahi gaitu batetik, elkarren ezagutza bultzatu eta xenofobia saihesteko. Horretarako autonomia garatzen lagundu nahi dio, hizkuntza bat ikastean erabiltzen dituen estrategia eta bideak beste baten ikas prozesuan balia ditzan.

Hizkuntzen Portfolio Europarrak 3 atal bereizi ditu:

1. Hizkuntzen **Pasaportea**.

Estatu ezberdinetan homologatuta dago, eta herri guztietan eskala bateratuak erabiltzen dira. Dokumentu honekin ikasleak hizkuntza ezberdinetan dituen gaitasunak erakutsiko ditu, tituluak, agiriak eta egonaldietako oroigarriak bilduz.

2. Hizkuntza-biografia.

Hizkuntzak ikasten egindako ibilbidearen eta bildutako esperientziei buruz hausnartzera bultzatu nahi duen dokumentua da. Emandako urratsak aztertu, eman beharrekoak planifikatu eta egindako aurrerapenen inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi du ikaslea.

3. Dosierra

Ikasleek ikastean baliagarritzat eman dituzten elementuak biltzeko tresna da. Esanguratsua gertatu zaion edozein idazki, zine-sarrera, agiri, entzungai eta abar bildu ahal ditu.

Guk Plangintzetan aritzen diren guztientzat, baina batez ere gure ikasleentzat oso baliagarria izan daitekeen tresnatzat jotzen dugu, hori bai, bai irakasleak bai ikasleak, honen erabileran trebatu beharko lirateke, lehenik eta behin.

8. LABURBILDUZ

Ikas prozesua, bere plangintzaren ezaugarriez hornitu beharko litzateke. Horrexek emango digu ikaslearen testuingurua. Era berean, euskalduntzea plangintzaren bestelako helburuak lortzen inplikaturik egongo da. Plangintzaren motoreetako bat izan behar da.

Berariaz aipatzen da EEMB-n atalase mailatik gorako urratsetan ikaslearen beharretan gertatzen diren aldaketak kontuan hartu behar direla. Beharren deskribapenak EEMB kontuan hartuta egin daitezke, baina beti ere ikasleak izango duen errealitatean oinarrituta. Deskribatzaileak zehatzak eta argiak izan beharko dira, beste batzuekin alderatu ahal izateko, baina esparru berriak hartu beharko dituzte, kulturari eta testuinguruari loturikoak, hain zuzen ere.

Horregatik, gure ustez euskalduntze prozesuaren azken zatia, gutxienik, lantokian bertan burutu beharko litzateke, ahal den lekuetan behintzat.

Praktikan, hasierako urratsetan ikas prozesua orain artekoaren antzekoa izan beharko litzateke, gutxieneko gaitasuna lortzeko, baina bigarren mailatik aurrera ikas prozesua bideratuagoa izan beharko litzateke, testuingururako hurbilketa. Bukatzeko, azken zatia (hirugarren eta laugarrena) ia-ia lanpostuan, edo dagokion tokian (lanean?) bete beharko litzateke, zati handi batean behintzat. Bide honek, ikasleari bere burua prestatzen joateko aukera emango lioke. Bere jardura imajinatzeak (bisualizazioak?) asko lagunduko dio, ereduak ikusiko ditu, erabilera erreala jasoko du... Motibazio izugarria izango du. Ezagutzatik erabilerara iragateko aukera hobezina.

Honek egokitzen izugarria eskatuko luke, bai ikas prozesuari dagokionez, bai euskaltegien antolaketari dagokionez. Dibertsifikazio kurrikularra bultzatu beharko litzateke.

Hori gutxi balitz bezala, euskaltegi-tako klase arrunten gain, banakako laguntza teknikoa, komunikabide berrien erabilera, helburu edo trebetasun jakinetara bideratutako ikastaroak eta abar ere eskaini beharko genituzke. Hau da, plangintza bakoitzari irakasteko dauden modu ezberdin guztiak eskaini eta bere ahuleziak neutralizatzen egokitutako ikas prozesuak antolatu beharko lirateke. Ingeniaritza didaktikoa???

Irakaslea eta ikasleak plangintzaren diagnostikoan eta helburuen identifikazioaren zehaztapenean parte hartzen duten neurrian, horiek lortzen begira programatu beharko da, etengabeko ebaluazioaren bitartez programak moldatu eta berbideratzeko zabalik utziz.

Jakina! Euskalduntze-alfabetatzearen ardura ez litzateke soilik irakasle, entrenatzaile, kazetari, edo guraso euskaldunak sortzea, baizik eta euskaldun osoak sortzea. Hau da, Osakidetzako plangintzan dabiltzan zeladoreak eta pediatriak euren bizitzako beste arlo batzuetan ere beharko dute laguntza euskaraz bizi ahal izateko, eta hori ere bultzatu beharko litzateke. Plangintza bakoitzean, bizitzaren beste esparruetara bideratutako programak sustatzea beharrezkoa izango litzateke.

Irakasteko prozesuan corpusari buruz sor litezkeen zalantzak argitu eta hutsuneak betetzeko, edo material ezberdinen itzulpenak eskatzeko, beste sailekiko harreman oparoa bermatu beharko litzateke.

Arlo sozio-ekonomikoko edo administrazioko plangintzetan, adibidez, aisialdia edo bestelako arlo batzuk lantzeko programa ezberdinak garatu beharko lirateke, horretarako beste euskaldun batzuekin eta beste egoera batean, modu naturalean aritzeko aukera eskainiz: egonaldiak, ikastaro bereziak (teknikoak), trukeak...

Esan bezala, Euskalduntze-alfabetatzeak horretarako tresna bat izan beharko luke. Baina Euskalduntze-alfabetatzea plangintza guztiekin uztartu eta egokitzeke, egitura aldaketa sakona beharko litzateke.

Egia esan, gure ustez aldaketa sakonak arlo askotan gertatu behar dira . Hasi klaseko programaziotik eta HPSren egituraketara arte.

Hizkuntz politika Kultur sailaren menpe egotea, antzinako ikuspuntuaz hartutako neurria da. Euskara, orain gutxira arte, kultur arloarekin lotu izan da, bai gizartearen imaginarioan, bai praktikan, hizkuntz politikaren jardueran. Gaur egungo ikuspuntua aldatu egin behar da. Euskarak lotura zuzena izan beharko luke industria, politika, komunikabide eta bestelako arloekin ere. Kirol eta Gazteria Sailen garrantzia gutxietsi gabe, uste dugu hizkuntzaren biziberritzea eta, beraz, gizartearen hizkuntz ohiturak aldatzea, egiturazko neurriak eskatzen dituela. Hori horrela izanik, Euskarak Industria, Garraio, Barne, Osasun edota Hezkuntza Sailak besteko lekua eduki beharko luke, izaera transbertsala izanik guztiekin koordinazioan aritzeko. Sail ezberdinek, plan estrategikoa garatu beharko lukete, aurrekontuaren portzentaia jakin bat horretarako bideratuz, eta Euskara Sailarekin erabiliko diren baliabideak zehaztu beharko lituzke.

Aurrekontu bakoitzean euskara normalizatzeko partida bermatu beharko litzateke. Honek, benetako eraldaketa egiteko baliabideak ugaritzea suposatzeaz gain, hizkuntz normalizazioaren afera gizarteko sektore guztien ardura dela adieraziko luke.

Euskara sailak EBPnren garapena arloz arlo bultzatzeko baliabideak eta neurriak jarri beharko lituzke. Baliabideak diogunean zera esan nahi dugu: irakasle eta teknikari sare garrantzitsua, hauen prestakuntzarako bideak, corpus espezifikokoak, informatika eta internet, itzulpena...

Era berean, herri mugimenduarekin elkarlana bultzatu beharko luke, bertatik sortu diren eta sor daitezkeen ekimenak bultzatuz, hausnarketa bateratuz, ildoak adostuz, eta, batez ere, bien arteko elkarlana eta osagarritasuna bilatuz. Argi dago, arautzea beharrezkoa bada ere, plangintza parte-hartzaileak askoz eragingarriagoak direla, eta horretarako, Euskal Herrian ikusita dago herri mugimenduek lortzen duten hedadura eta oihartzuna izugarria dela. Gainera, ezin uka daiteke gaur egun konpromisoaren ildotik hartutako bidea oso emankorra izan daitekeela neurri egokiak eta baliabideak eskura badaude, arlo pribaturako batik bat.

Era beran, esan bezala, arautzea ere beharrezkoa izango da. Adibidez, ezinezkoa dirudi, hizkuntza normalizatu nahi badugu, Hezkuntza Sistemak ez bermatzea euskararen ezagutza. Euskaraz aritzeko gaitasuna izatea edozein hiztunen eskubidea bada, doakotasuna ezarri beharko litzateke.

Euskalduntze-alfabetatzean ere aldaketa sakonak gertatu behar dira. Aditu guztiek diote Europako Erreferentzi Markoari jarraituz lan egiteak egundoko txip aldaketa eskatuko lukeela. Irakasleek ikaragarritzko prestakuntza plana beharko genuke, eta ikasleengan ere aldaketa eskatuko luke.

Aztertzea litzateke euskaltegiako irakasleek plangintzei buruz, Europako Erreferentzi Markoari buruz eta abarri buruz duten informazioa. AEKn izan ezik (eta hau ere aldatzen ari dela susmatzen dugu), beste euskaltegi asko eta askotan, ez dago irizpide didaktiko zehatzik ezarrita, eta irakasleak bere kabuz antolatzen du ikaslearen ibilbide didaktikoa. HABEk atazen inguruko teoriak bereganatu ditu, ikuspegi komunikatiboa, konstruktibismoa eta abar, baina ez dute asmatzen hori benetan zabaltzea eta erabiltzen. Material batzuk sortu ditu arlo ezberdinetara zuzenduta, baina, gehienetan gertatzen den bezala, gutxi batzuen artean egindako lana da, eta irakasleei arrotza egiten zaie. Ez dute funtzionatzeko modua ezagutzen, zalantzak daukate, ez zaie gustatzen... Kontuak kontu, nahi duenak erabiltzen du eta, noski, nahi duen moduan erabiltzen du.

Gure ustez, hobe litzateke, sistema berria ondo erakutsi eta materialen eraketan partaidetza bultzatzea. Honela, material estandarraz gain, norberaren programazioa egiteko trebatuta egongo litzateke irakaslea. Irakasleei programatzen irakatsi eta ikastaroak planifikatzeko baliabideak eta denbora eskaini behar zaizkie. Irakaskuntzarekin lotutako alderdi ezberdin guztien

ebaluazioari garrantzi handia eman eta horretan trebatu. Gaur egun, irakasle askok 6 ordu klase ematen dituzte egunean eta, sarritan, hiru talde baino gehiagoren ardura eramaten dute. Horrek ezinezkoa egiten du irakasleak klasetik kanpo egin beharko lukeen lana egitea.

Dena dela, zalantzarik gabe, aldaketa hori eragiteko, egungo agirien sistema aldatu beharko litzateke. Maila ezberdinak ezartzea eta horiek egiaztatzeke agiriak beharrezkoak badira ere, neurgailuak egokitzea funtsezkoa izango da.

Baina gainera, plangintzen aroa oso motel doala ezin dugu ukatu. Oso eremu jakinetan izan ezik, ur tanta txikiak dira itsaso nahasian. Gure ustez, hauek hedatu beharra premiazkoa izateaz gain, gure ikasleentzako gune ezin aproposagoa izan daiteke (iiMarco incomparable!!).

9.BIBLIOGRAFIA

- ABASOLO, N. eta LASHERAS, M.J. (2005). «Tutoretzaren garrantzia ikaskuntza birtualean». Hizpide, 58
- ADAM, J.M. (1996). "Testu-motak".Hizpide, 37
- AIZPITARTE, A. eta GUILLEN, N. (2005). «Weblog-ak: euskararen ikas-irakaskuntzarako tresna berriak». Hizpide, 59
- AMONARRIZ, K. (1996) Helduen euskalduntzea: Eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak, in BAT, 19. et 20. zk., Andoain.
- ARRATIBEL, N. (1999) Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola, EHU,
- ARRATIBEL, N., AZURMENDI, M.J., GARCIA, I. (2001) Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena, UEU.
- ATKINSON eta CLAXTON, (2002) El profesor intuitivo, Octaedro.
- AZURMENDI, J. (1993ko uztaila) Hizkuntza eta talde-nortasuna. Donostiako Udako XII. Ikastaroak.
- BURÓN, J. (1997) Motivación y aprendizaje, Mensajero.
- DÖRNYEI, ZOLTÁN, Motibazio-estrategiak hizkuntz ikasgelan / Zoltán Dörnyei ; itzultzailea, Ana Isabel Morales (2003)
- EKBko Administrazio Saila. EAEko administrazioa euskalduntzeko lehen plangintzaldiaren balantzea eta aurrera begirako proposamenak, BAT Euskal Herria, 61-67 orr.
- ELORTZA, Xabier; MUNGIA, Alex; JAUREGI, Mariaje; BARRENETXEA, Tere; URDANGARIN, Josean; ABARRATEGI, Maite. Euskararen erabilera areagotzeko plangintzak enpresa-mailan, BAT Euskal Herria.
- ESNAL, R eta ELOSEGI, L. (2004). «Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbidea Hizpide,
- ESNAOLA, I. Enpresetako normalkuntza plangintzak gaur egun. Mahai ingurua, BAT Euskal Herria.

Europako Erreferentzi Markoa: Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya. Núm. 2588-27.2.1998

EUROPAKO KONTSEILUA (2005). Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa. HABE eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

EUROPEAN LANGUAGE PORTFOLIO. www.coe.int/portfolio.

Euskararen Unibertsoko Plangintzarako Lan-Saila. Euskararen Normalkuntzarako ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokor baten Proposamena, BAT Euskal Herria.

EUSKO JAURLARITZA. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza:

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, 1999

Euskararen Jarraipena, 1995

Euskararen Jarraipena II, 1997

Euskararen Jarraipena III, 2001

FIGUERAS, N. (2002) El proyecto Dialang o cómo integrar evaluación y autoaprendizaje. Inter, EOI. Revista de la Asociación de Profesores de la EOI de Barcelona-Drassanes.

HABE. (1999). Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua. Donostia: HABE. Donostia.

INSTITUTO CERVANTES; Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación.

INTXAUSTI, J. (1998) Euskararen aldeko motibazioak, Donostiako Udako XIII. Ikastaroak, UPV-EHU,

LEGARRETA, P.M, "Albaro" (1977) Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz eta geroaz, in JAKIN, 4. zk., Tolosa

LASAGABASTER, Iñaki; URRUTIA, Iñigo. Irakaskuntza ez unibertsitariko hizkuntz plangintza Euskal Autonomi Elkarteak, BAT Euskal Herria.

MARKO, J. Inazio. Hizkuntzaren normalizaziorako mikroplangintza proiektua, BAT Euskal Herria.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki. Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean, BAT Euskal Herria.

RUIZ BIKANDI, U. Decisiones necesarias para la elaboración del proyecto lingüístico de centro

MARTINEZ DE LUNA, I. eta JAUSORO, N. Euskararekiko motibazio sinbolikoak

- MARTINEZ DE LUNA, I. Hizkuntza plangintza Unibertsitate-ikastaroa, BAT Euskal Herria,
- MURUA, 1. (2005). «Txata, ziberespazioan lagunak egitea baino gehiago». Hizpide, 58
- NUNAN, D. (1995) Hizkuntzak irakasteko metodologia. Itzulpen Saila, 37. (12. kapitulua)
176, 03-09-10)
- ORTIZ ATIENZA, J. "Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak. Hiznet 05-06
- PUIG, J.M.; TRILLA, J. Diseñar prácticas escolares. Cuadernos de Pedagogía 325, junio 2003
- PUJOL BERCHE, M.; SIERRA MARTÍNEZ, F. Las lenguas en la Europa Comunitaria II.
Diálogos hispánicos núm. 18
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. (1991) Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas. Donostia
- SANCHEZ, G. (2002) Etsipena eta ikasteko ezintasuna, UEUko Helduen Euskalduntzearen Jardunaldiak
- SKEHAN, P. (1997). «Atazetan oinarritutako ikaskuntza gauzatzeko marko bat». Hizpide, 39
- TXABARRI, L.M. (1997). «Kurrikulua, mamu berri hori». Hizpide, 38
- UNIBASO, 1. (2004). «Autoikaskuntza-zerbitzua euskara ikas irakasteko (1'». Hizpide, 55
- UNIBASO, 1. (2004). «Autoikaskuntza-zerbitzua euskara ikas-irakasteko (eta II)'. Hizpide, 56
- WILLIS, J. (1996). «Praktikatzen duguna predikatuz, irakasten duguna erakutsiz. Atazetan oinarritutako ikaskuntza. APPren alternatiba bat.» Hizpide, 37
- WILLIS, J. (1999). Atazetan oinarritutako ikaskuntzarako lan markoa. Itzulpen Saila, 41. HABE: Donostia. (15-45 orrialdeak).
- ZALBIDE, M. (2003) Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?, Azpeitiko Euskara Patronatua.
- ZOCK, M. (1992) Arianaren haria. Itzulpen Saila, 31. HABE:

A ERANSKINA: EUSKARA IKASTEA ZAILA OMEN DA.
ESPERANZARAKO IDAZLANAK.

ITXAROPENERAKO IDAZLANAK

Lan hau duela bi aste entregatu behar izan bagenu, ezinezkoa izango zen azken gogoeta hauek egitea. Jarraian azalduko dugu zergatik.

Orain dela hamabost egun udako azken ikastaro trinkoa hasi zen Zornotzako barnetegian. Normalean, ikastaroaren lehenengo egunean, ikasleei, euskararekin izan duten harremanari buruz galdetzen diegu, elkar ezagutzen hasteko, sentsibilidade ezberdinak identifikatzeko eta baita klaseak helburuei begira programatzen laguntzeko ere.

HABE aldizkariaren sail bat erabiltzen dugu helburu horiek guztiak lortze aldera, *Hamaika trikimailu* izenburu duena. Bertan, euskaldun berri ezberdinei egindako elkarrizketak argitaratzen dira. Guk geure ikasleei galdera sorta berbera ematen diegu euren esperientziak, motibazio gorabeherak, erabiltzen dituzten estrategiak- eta konparti ditzaten. Jarraian, ***Euskara ikastea zaila omen da*** izenburu duen idazlana egitea eskatzen diegu, baina ahoz landutako galdetegia gidoi hartuta.

Lanean txertatu ditugun idazlanak azken hamabostaldi honetan jaso ditugu eta sorpresa handia hartu dugu ikasle batzuk ere gu kezkatzen gaituzten gaiek kezkatzen dituztela ikusirik.

Bestalde, gure ikerketa lana hankamotz geratu da: azterketa kualitatiboa falta du. Beraz, hutsune hori betetzeko eta egoerari hipotesietan adierazten dena baino begirada baikorragoa emateko (halakoxea baitugu guk, nahiz eta beste zerbait pentsa daitekeen hipotesiei begira), lanean txertatzea erabaki dugu. Ez da ez oso modu zientifikoa, azterketa kualitatiboak egundoko lana eskatuko luke, baina badakigu honek eskatzen dituen baldintzetariko bat gutxienez betetzen duela: ikasleak ez dira inondik inora ere bideratuak izan, guztiz espontaneoak eta egiazkoak izan dira euren gogoetak. Izan ere, aitortu behar dugu idazlanok irakurri arte, honelakorik egitea ez genuela erabakita.

Jarraian, aukeratutako bost idazlanak eta ikasleen gogoetei buruzko komentario txikiak aurkeztuko ditugu.

Ikus dezagun, beraz, zerk bultzatu gaituen azken kapitulu hau gure lanean txertatzera.

1.Euskara ikastea zaila omen da

*Orain dela 4 urte euskara ikasteari ekin nion eta zerotik hasi nintzen, ez nekielako ezer. Gogoratzen dut klaseko lehenengo astea izugarria izan zela ikasle guztiek euskaraz bazekitelako; ni, ordea, isilik geratu nintzen eta nire etxera itzultzean negar egiten hasi nintzen. **Baina nire lanerako beharrezkoa zenez gero, jarraitzea erabaki nuen eta orain 8.urratsean nago. Benetan pozik nago eta orain nire nahia da 2.perfila ateratzea denbora gutxi barru.***

Hori lortzeko ahalegin handia egiten ari naiz. Egunero bi orduz lana bukatu ondoren klasera joaten naiz eta gainera nahiko formala naizenez gero, etxean etxerako-lanak egiten ditut.

Gasteizen zail samarra da euskaltegitik kanpo euskara lantzea eta hori dela eta barnetegi batean parte hartzea erabaki nuen. Azken urte hauetan euskara jakiteko irakasbide desberdinak erabili ditut. Hasieran hiztegia ez nekienez gero, apunteekin zerrenda batzuk egiten nituen eta gero bai klean bai etxean nengoenean saiatzen nintzen gogoratzen izena. Gero nire seme-alabekin esaldi arruntak erabiltzen nituen eta orain kapaz naiz telebista eta irratia entzuteko.

Hasieran hasi nintzen euskaraz ikasten lanagatik, baina orain beste arrazoi batengatik jarraitzen dut ikasten: gustatzen zait, eta aldi berean ikasten dudana nire familiarekin praktikatzen dut.

Nahiz eta aurreratzen dudan, hizkuntza menperatzeko asko falta zaidala pentsatzen dut.

Ikasle honen gogoetak asko pozten gaitu. Euskararekiko lehenengo kontaktu akademikoak koste psikologiko handia izan zuen. Hala ere, lanean behar zuenez, aurre egin zion hasierako etsipenari eta orain pozik dago jarraitu izanaz; izan ere, euskararekin zaletu egin da eta, gainera, seme-alabekin erabiltzen du; erabiltzea zailen baina, aldi berean, interesgarrien gertatzen den esparruan. Zaila, seme-alabek eragiten dituzten sentimendu sakonek norberaren ama-hizkuntza eskatzen dutelako eta etxeko esparruan hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzea, batzuetan, helburu "kixoteskoa" gerta daitekeelako. Interesgarria, horrela euskarak, apurka-apurka, familia-gunea, sentimendu biziaren gunea, bereganatu egingo duelako. Eta gune hau garrantzitsuenetariko bat dela diote zenbait adituk, (Fishman, Txepetx).

Ikasle honek bide honen hasiera jorratuta dauka. Ikas-prozesuan, estropezu asko egin barik, hau da, lortu behar duen titulua hasierako saiakeretan lortzen badu, bidean aurrera jarraituko du seguruenik. Azterketetan, ordea, dena delakoagatik (maila lortu baino lehen egiten badu, oso urduri jartzen bada ahozko azterketan...) behin eta berriro huts egiten badu, oso erraza izango da desmotibatzea eta bide erdian bertan behera uztea. Ez ahal da horrela izango! Azkenik, esan ez dela behartuta sentitzen edo, behitzat, ikusten duela euskararen beharra; izan ere, ez du esaten lanerako behar duela, baizik eta bere lanean beharrezkoa dela. Jarrera honek ere lagundu egingo dio ikasten eta erabiltzen jarraitzen.

2. Euskara ikastea zaila omen da

*1961ean Eibarren jaio nintzen. Ahizpa bat nagusiago neukan eta gure etxean euskaraz egiten genuen. Eskolara hasi ginenean ohiturak aldatzen hasi ziren. Ikasketak erderaz egiten genituen, euskaraz ez zeudelako. **Lagunekin harremanak erderaz sortzen ziren, eta azkenean gure bizitza erderaz egiten zen. Etxera heltzen ginenean gure joera erderaz egitea zen eta gure gurasoek erderaz erantzuten ziguten.** Baina, nahiz eta guk erderaz egin, beraien artean beti euskaraz egiten zuten, horregatik belarria eginda daukat euskaraz.*

Orain dela lau urte hasi nintzen euskara ikasten, lehendabizi euskaltegi batera joan nintzen, baina lana eta egunero bi ordu euskaltegira joatea oso gogorra egiten zitzaidan.

Hizkuntza eskolara bakarrik joatea gutxi da euskara ikasteko, eta iaz hemengo barnetegian egon nintzen irailaren lehenengo hamabostaldian. Orduan konturatu nintzen euskara ikasteko mudu onena dela.

Nere ustez, urte oso bat barnetegi batean egongo banintz, euskara ikasiko nuke. Baina une honetan ezinezkoa da niretzako urte oso bat etxetik kanpo egotea.

Nire lanean bigarren perfila eskatzen didate, baina oraindik ez daukat datarik jarrita. Lasai eta apurka-apurka joan naiteke.

Arazo handiena daukat azterketan idazlanarekin, baina ez da euskaraz egin behar dudalako, nik erderaz ere ez daukat erraztasunik idazlanak egiteko.

Badago metodo bat hau ikasteko?

Idazlan honetan argi ikusten da nola galdu ziren euskararen hainbat funtzioaren esparruak. Eskolak erdalduntzea ekarri zuen; bertan egindako lagunekiko harremanak erdaraz sortu eta garatu ziren; eta, familian ere, ohitura aldaketa egon zen guraso eta alaben artean. Gaur egun ikasle honek eibarreraz egiten du; hamabi urteko semea dauka eta berarekin euskaraz egiten du; amarekin ere bai, are gehiago, klasean ikusitako aditzak eta (subjuntiboa, kasu) erabiltzen dituen galdetzen dio eta harritu egiten da amak baietz esaten dionean, hain egiten zaizkio arraroak "diezadazun", "zaitzaketa" eta horrelakoak...

Klasean ikusi dugunez, euskaraz aritzeko ez dauka inolako arazorik, ondo egiten du belarriz ikasitako bizkaieraz. Baina nahasten hasita dago, batez ere aditz formekin eta azalpen gramatikalekin. Honek pentsarazten dio euskaraz ez dakiela eta txarto egiten duela. Klasekideei, ordea, izugarri gustatzen zaizkie ikasle honen ahoskera eta azentua.

3. Euskara ikastea zaila omen da

Nahiz eta Gasteizen jaio nintzen, orain dela urte asko mendialdeko herri batean bizi nintzen, eta txikitan ez nuen ikasi euskara. Geroago, kanpora joan nintzen eta 25 urterekin bueltatu nintzen Gasteizera. Orduan euskara ikasten hasi nintzen, euskaltegi batean.

Ondo ikasteko, bai taldeka bai bakarka aritzea beharrezkoa dela uste dut. Umiltasun handia, borondateaz gainera, ezinbestekoa da. Taldeka ikastea nahiago izan arren, iruditzen zait bakarka ikastea derrigorrezkoa dela.

Irakasle batengan gehien estimatzen dudana entzuten jakitea da; hori dela eta, bere ikasleei laguntzen jakingo du. Baina, ikaskide taldea ere garrantzitsua da, eta berak, behintzat, bere beharrak bete behar ditu, batez ere, errespetua.

Niri mota guztietako ariketak gustatzen zaizkit; hala ere, gehien kostatzen zaidana da mintzamina. Ikastea asko gustatzen zaidanez gero, normalean ez daukat gramatikarekin arazorik. Baina, azken finean, hitz egiten jakin ezean, zertarako nahi dut gramatika? Oso inportanteak iruditzen zaizkit kanpoko ekintzat, bizitza ikasgeletatik kanpo dago eta; horregatik, hizkuntza erabili behar dugu kalean.

*Ikasleengandik denetarik ikas daiteke. Nahiz entzutean, nahiz zuzentzean, beti zer edo zer ikasten da. Berriro, umiltasuna garrantzitsua da. Hasieran beti pentsaten dut ez dudala euskara hitz egitea lortuko, beraz, entzuten hasten naiz konfiantza nahikoa izan arte; orduan, hitz egiten ausartzen naiz, ondo egiteko asmoarekin. Bukaeran, nire ikaskideei eskertzen diet beren laguntza. **Etxekoek, berriz, nahiago dute nirekin erderaz hitz egitea. Galdetuko diet zergatik.***

Telebistari esker, entzumena hobe daiteke. Baita irratiaeren laguntzaz ere. Hala eta guztiz ere, ez daukat ohitura teknologia berriekin euskara ikasteko. Betidanik, liburua eta boligrafoa izan dira oinarritzkoak; baina, hau landu behar dut, teknologia berriek asko eman dezakete eta.

Une honetan ikasitako guztia nire seme-alabekin erabil dezaket; gero, lanean, nire mahai gainean txartela bat daukat; txartel honek esaten du:

"Euskaraz, nahi baduzu; baina astiro ikasten ari naiz eta"

Ikasleak berak esaten duenez, gustuko du ikastea, beraz, euskara ikasten ere disfrutatu egiten du; gramatika ere erraz ulertzen du, aurreko ikasleak ez bezala, eta gustatu egiten zaio; hori dela eta, zuzentasun gramatikalari garrantzi handia ematen dio; baina agian, gehiegi, orpoz orpo jarraitzen baitu, eta horrek, jatoritasuna eta freskotasuna kentzen dio mintza egiten duenean. Agian horregatik ez dute etxekoek berarekin euskaraz egin; lehenengo idazlaren komentarioan esan dugunez, familiak erregistro hurbila eskatzen du eta gure ikasleak oraindik erregistro formala baino ez du bereganatu, beraz, seme-alabek faltan izango dute amak gaztelaniaz egiten dueneko goxotasuna batzuetan eta amaren behar besteko indarririk ez duten arreta emateen eraginkortasun eza besteetan. Baina ea ziur gaude agertzen duen jarrerak lagunduta lortu egingo duela.

4.Euskara ikastea zaila omen da

*Orain dela urte asko euskara ikasten dut, baina **hasieran ez nuen pentsatzen garrantzitsua zela**. Institutuko garaian, Hizkuntza Eskolara joaten nintzen, baina ez nuen ikasten eta berehala utzi nuen.*

Unibertsitatea amaitu ondoren, berriro euskara ikastea erabaki nuen eta handik aurrera jarraian ikasi dut.

*Hasteko bigarren kurtsoan apuntatu nintzen eta nahiz eta maila altuagoa izan, ez nuen nahi oinarritzko akatsik eduki eta horregatik, bigarren, hirugarren eta laugarren kurtsoak oso errazak izan ziren. Hala ere, **bosgarren urratsean konturatu nintzen mintzatzea asko kostatzen zitzaidala, baina irakasleek pentsatzen zuten ondo nenbilela. Hori dela eta, beste urrats batzuk ikasi nituen, hamargaren urrats arte heldu nintzen, baina ez nengoen gustura, dena ulertzen nuen, baina ezin nuen hitz egin.***

Nire ustez, mintzatzea oso garrantzitsua da eta pentsatzen dut gramatika jakin arren, hitz egiten ez badakizu ez daukazula ezer.

*Arrazoi hauengatik, barnetegira etortzea erabaki dut. Niri **gustatuko litzaidake jarotasuna edukitzea.** Horretaz aparte, pentsatzen dut klaseko taldeak lagundu ahal didala, taldearen arabera klasea hobea edo txarragoa izango da. Adibidez, taldea zintzoa eta langilea bada, zirutasunez guztiek gehiago ikasiko dugu.*

Bestalde, euskara gustatzen bazaizu poliki-poliki ikasiko duzu, baina gaur egun jende askok euskara derrigorrez ikasten du, nik, zorionez oraingoz ez dut beharrik, baina beharbada etorkizunean nire lanean eskatuko didate, eta gainera seme-alabak edukiko banitu haiekin euskaraz hitz egitea gustatuko litzaidake. Hala ere, ametsa da, barnetegitik edo euskaltegitik kanpo euskara erabiltzen ez dudalako.

Ikasle honek bere ikas-prozesuari buruz egiten duen gogoeta oso esanguratsua da. Maila polita lortu zuenean hitz egin nahi zuen, baina ezin. Egia da hizkuntzak ikastea ez dela beste edozein gai ikastea bezala, hau da, pieza txikiz ikasitakoa praktikan jartzea neketsua da etengabe sortzen aritu behar delako. Horixe gertatzen zaie gure ikasle gehienei. Ez dute hizkuntza ikusten bere osotasunean. Honetan, zalantza barik, irakasleok ere badugu eraginik, izan ere, batzuetan klasea emateko "disekzionatu" egin behar dugu hizkuntza (partitiboa, atzizkiak, deklinabidea...). Batzuetan, ordea, testuak eraman eta osotasunean ulertzeko esaten diegun arren, ikasleek dena eta hitzez hitz ulertu nahi izaten dute, kasu hauetan, eurek "disekzionatzen" dituzte, horren beharrik izan barik ere.

Azken paragrafoan egiten duen gogoeta oso adierazgarria da: bere ustez, euskara gustatzea eta ikastea lortzea batera doaz. Bestalde, nahiz eta bere

egoera izan ez, jende askok derrigorrean ikasten duela dio, horixe da berak duen perzepzioa. Eta derrigortasun hau ikasteko oztopotzat hartzen du.

5. Euskara ikastea zaila omen da

Niri hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Unibertsitatean egon nintzenean ez nekien eta hori dela eta ekonomia ikasi nuen. Baina bigarren kurtsoan geundenean ingeles azterketa gainditu behar genuen eta nire Kabuz ikastea erabaki nuen.

Handik hona urte asko pasa dira eta hizkuntza desberdinak ikasiz, oso praktikoak direla konturatu naiz. Ez bakarrik lan aukera gehiago edukitzeko, baizik eta bizitzaz eta harreman pertsonalei buruz jakintsuagoa izateko.

*Orain dela lau urte alemanarekin hasi nahi nuen, baina funtzionarioa izanez, euskarak lehentasuna zeukala esan nion neura buruari. Ondorioz zerotik hasi nintzen Bai and by-rekin eta hiru urtean zehar pozik ibili nintzen. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, ea zenbat nekien jakin behar nuen eta bere sistemarekin ezinezkoa zela konturatu nintzen. Hori dela eta, **iaz Hizkuntza Eskolan hasi nintzen eta ekainean hirugarren maila gainditu nuen.** Baina nire esperientziak hizkuntzak ikasteko metodo perfektorik ez dela irakatsi dit. Horren ondorioz, baliabide desberdinak erabili behar dira, trebetasun guztiak lantzeko. Hona hemen zergatik nagoen barnetegian, mintza lantzeko, jarioetasuna eta erraztasuna hobetzeko eta gramatika berrikasteko. Honen bidez, **ondo pasatzea espero dut; bakarka lan egiten eta ikaskideekin eta irakaslearekin hitz egiten.** Zoritxarrez oraindik irakurtzea asko kostatzen zait. Beharrezkoa dela dakidanez, hori egiten ere saiatuko naiz.*

*Niretzat, **irakasleak** animatzaile bezala izan behar du. Egiten duguna beti zuzendu behar du eta gero **psikologiarekin, bakoitzari behar duena esan eta eman behar dio.** Eta noski, dena pozarekin eta ilusioarekin.*

*Euskara ikastea nire adinarekin ez da gauza erraza. Baina ziur nago prozesu bat dela eta denbora eta pazientzia handia eskatzen duela. **Zentzu horretan, ni pozik nago eta horrela jarraitzen saiatuko naiz. Nahiz eta momento ezkorragoak izan, pazientzia, lan eta denborarekin ia-ia dena lor daitekeela konbentzitu dut neure burua.***

Eta batez ere, nire eguneroko bizitzan, euskara erabili dezakedan bakoitzean erabiliko dut.

Esan liteke ikasle honek gure lana irakurri duela. Baina badakigu horrela ez dela izan, beraz, oso pozgarria da jakitea ikasleek ere, zenbaitek behintzat, hainbat gauza garrantzitsuri erreparatzen dietela.

Lehenengo paragrafoan esaten duena bat dator guztiz UNESCOren hizkuntza gutxiagotuen aldeko aldarrikapenean ematen den arrazoiarekin: hizkuntza ezberdinek aberastu egiten gaituzte arlo pertsonalean, arlo honetan jakintsuago egiten gaituztela dio gure ikasleak.

Bere lanpostua dela eta, euskarak lehentasuna daukala erabaki zuen. Motibazio instrumentala, baina ondo bideratuta zeren eta azterketarik, derrigortasunik ez baitu aipatzen.

Dena dela, ikasleak jakin egin behar du prozesua aurrera doan eta noraino; horretarako zer maila daukan frogatuko duen azterketa egin zuen gure ikasleak, eta gaingitu ere bai. Baina hori ez da ikas-prozesuaren helburu nagusia berarentzat; izan ere, ikasiz, disfrutatzea proposatzen dio bere buruari. Hau oso inportantea da Dörnyeik aipatzen duen motibazioaren bigarren faserako: hasierako motibazioa elikatzeke eta zaintzeko, eta horrela, ikasten jarraitzeko.

Kurrikuluaren dibertsifikazioa ere nolabait aipatzen du ikasle honek, irakasleak ikasle bakoitzari behar duena eman behar diola esaten duenean, eta hau guztiau nola egin behar duen azaltzean, berriro ere motibazioari heltzen dio. Dörneyk emandako aholkuekin bat dator gure ikaslea: "eta noski, ilusioarekin eta pozarekin". Argi dago, beraz, ikasleen motibazio mailan irakasleak jardunak ere onerako edo txarrerako eragin dezakeela.

Azkenik erabiltzeko asmo garbia agertzen du; argi dago, horrela jarraituz gero, bere lanpostua perfilatzen dutenerako prest egongo dela; izan ere, ahaleginduz gero, oztopo guztiak gaindi daitezkeela sinetsarazi dio bere buruari. Hona hemen automotibazio lan ederra.

Espero dugu goian pesimista itxura hartu badugu, ikasle hauen bitartez apur bat zelan edo halan arintzea. Horrela izango ez balitz ere, uste dugu merezi izan duela ahalegina egitea, geuk ere disfrutatu baitugu azkenengo effortzu hau egiten eta, gainera, honelako ikasleak sortzen saiatzen bagara, egoera konpontzeko bidean jartzea posible izango baita.

B-ERANSKINA: EGA 84-EGA 04

1.1. ENTZUNDAKO TESTUEI BURUZKO AUKERA ANITZEKO GALDERAK

AHOZKOAREN ULERMENA – 1

Azterketariek lehenik, hiru minutu izango dituzte 1-5 galderak aurrez irakurtzeko, informazio gisa. Gero, testu bat irakurriko zaie abiadura normalez bi aldiz, eta bertatik jaso beharko dituzte erantzunak testua entzun ahala. Bigarren testuarekin beste hainbeste egingo da.

1. TESTUA

GALDERA. Euskara zaila al da?

ERANTZUNA. Ez, ez da zaila. Baina badago arazo bat: euskara finkatu gabe dagoela. Ikastaro bat egiten duzu eta gero konturatzen zara ez duzula kaleko euskara ulertzen. Zergatik? Euskaldun bakoitzak bere euskara duelako. Lau euskalki baino gehiago daude. Euskaldun bakoitzak bere euskalkia du. Ezberditasun hau oso txarra da euskaldun berriarentzat.

Frantsesez edo alemanez ez da hori gertatzen. Gaurregun euskara batua hor dago, eta hori soluzio ona da euskaldunberriarentzat.

GALDERA. Eta zer egin euskalkiekin?

ERANTZUNA. Hori arazo konkretua da. Gu abertzaleak bagara eta nazio bat garela esaten badugu, hizkuntza nazional bakarra behar dugu. Kultur hizkuntza bakarra. Gero, etxean, nork bere euskalkia erabiltzen badu, oso ongi. Ni ere nere bilobekin Gipuzkeraz mintzatzen naiz, ez batuan.

Karlos Santamariarekin elkarriketa.
In: HABE, 7. zenb., 1982, 6-7 orr.

2.1. AZALPEN LIBREA

GAI JAKIN BATI BURUZKO AZALPEN LIBREA

Ondoko lau gaien artean bat aukeratu eta prestatu. Gero bost minutu izango duzu txigorabehera zure ideiak aztertzaileei aditzera emateko. Azalpenak ez du ongi robuilduriko esaldiez osatua izan beharrik, baina koherentea bai.

Beste paper batean jaso ditzakezu zenbait puntu gero ahoz desaroilatzeko, baina ezin ngo da testu jarraitu bat irakurri.

Hona hemen, adibide gisa, ipini diren zenbait gai multzo:

1. Tabernak makinaz josita daude.
 2. Elurretan ehizean aritzen direnak badira.
 3. Euskal Rock Radikala.
 4. Euskadi Nafarroa da.
-
1. Txakur bat edukitzea modan omen dago.
 2. Aita Santua, bidailari gogorra.
 3. Autobus zaharregiak ikusten dira bideetan.
 4. 1984ean 3.707 milioi zigarro pakete saldu ziren Espainian.
-
1. Bidaia merkeak ugaritzen ari dira udarako.
 2. Gidatzeko karneta ateratzerakoan suspenditu egin zaituzte.
 3. Zure aita Eusko Jaurlaritzako Lehendakari egingo balute.
 4. Mendia zikintzen dugu oraindik ere.
-
1. Ikastolek dohaintasuna nahi omen.
 2. Erretzaileek edukaziorik ez.
 3. Askok eta askok maisutza ikasten dute.
 4. Oiz mendiko hegazkin istripu handia.

2.2. TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

EMANDAKO TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

Irakur ezazu ondoko testua arretaz –apunte laburrak jasoz nahi baduzu–. Gero, haria aztertzaileei azalduko diezu, testua berkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua nondik-norako nagusiak ematea bait da. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko eta testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere. Ahozko laburpen autonomoak gehiago puntuatuko dira.

Hona hemen ipinitako testu batzuk, adibide gisa:

AHOZKO LABURPENA – 1

ARRAULTZEAK ETA BABAK

Saltsa guztiak ez ziren beti Pernandok sortuak izaten. Sartu ere egiten zuten inoiz saltsa horietan, ondoren ikusiko duzuen bezala.

Amezketako mutil gazte bat erdi goserik ibiltzen zen eta nahi hainbat arraultze prejitu jateko asmoa hartu zuen behin. Ostatura joan eta zortzi arraultze jan zituen. Ordaintzeko garaia heldu zenean dirurik ez eta zorretan utzi zituen.

Handik laster, Amerikara joan zen. Hamar urte barru, aberastuta itzuli zen Amezketara. Ostatuko zorra ez zeukan oraindik ahaztuta eta hara joan zen ordaintzeko asmoz. Horrela hitzegin zion etxekoandreari:

– Amerikara joan aurretik zortzi arraultze prejitu jan nituen hemen eta zorretan utzi nituen. Diruz ere orduan baino hobeto nabil eta ordaindu egin nahi nituzke.

Etxekoandrea ez zen atzera begira geratzen zen horietakoa eta esan zion:

– Ea ba nola egiten ditugun kontuak! Zortzi arraultze haietatik, zuk jan ez bazenitu, zortzi txita txiki jaioko ziren. Gero, zortzi txita haiek oilo egingo ziren. Zortzi oilo haiek zortzirehun arraultze egingo zizkidaten gutxienez urtean. Eta pentsa ezazu hamar urte hauetan zenbat oilo eta arraultze izango nituen. Oso behetik jota, hamabost mila peztatan utziko dugu zure zorra.

– Hamabost mila pezta? Ba al dakizu zer esaten duzun?

Denbora luzez aritu ziren biak eztabaidan. Bakoitzak bereari eusten zion eta ez zegoen konponbiderik. Azkenean, bakoitzak defendatzaile bat aukeratzea erabaki zuten. Eta bi alderdien arrazoiak entzun ondoren, erabakia hirugarren pertsona baten esku utziko zuten. Hirugarren hori erretore jauna izatearekin biak ados zeuden. Eguna eta ordua izendatu zituzten elkartzeko eta bakoitza bere defendatzailearen bila abiatu zen.

Ostatuko etxekoandreak legegizon ospetsu bat hartu zuen bere defentsarako. Mutilak berriz Pernandorengana jo zuen. Eta zer galdurik ez zeukanez, baietz, joango zela esan zion Pernandok.

Heldu zen arraultzeen auzia erabakitzeko eguna. Legegizona eta erretorea ordurako joan ziren ostatura, baina Fernando ez zen ageri. Mutila urduri zegoen.

Halako batetan han agertu zen gure Fernando korrika eta izerdi patsetan. Erretoreak, hala ikustean, galdetu zion:

– Zu beti berandu. Zer gertatu zaizu, erlojua gelditu ala?

– Ez jauna ez. Nire emazteak baba batzu egosi zituen atzo eta haiexek baratzean ereiten aritu naiz. Lehenago bukatuko nuela uste nuen baina...

– Baina gizona... jakin behar zenuke ba zuk egositako babak ez dutela hazitarako balio.

– A, ez? Orain dela hamar urte jandako arraultzeek ere ez dute txitak ateratzeko balio.

Horrela bukatu zen eztabaida hura.

J. ORMAZABAL «Pernando Amezketarra» Donostia, 1981

AHOZKO LABURPENA – 2

ATZERATUEK ERE AURRERATZEN DUTE

Atzeratu sakonen tratamendua izugarri aldatu da azken hogeit urteotan. Lehen, horietako asko zoroetxeetan edo etxe bazterrean gordeta egoten ziren. Gaurregun, berriz, hauetako batzu txalet antzeko etxeetan bizi dira taldeka, ahalik eta bizimodurik normalena egin nahiz.

Hondarribian urrian hasi zen martxan horrelako egoitza bat, San Pablo Zubieta izenekoa. Hamabost urtetik gorako atzeratu sakon eta «severo» entzako barnetegia da eta tartean mota guztietako jendea dago: zoroetxeetatik etorriak, elbarriak, gerora etxe partikularretan biziko direnak eta abar.

San Pablo Zubietak atzeratuen auzo baten itxura du. Pisu bakarreko sei etxetan bizi dira hirurogeita hamalau lagunak eta etxeetatik gertu beste zenbait egoitza dute lanerako, ikasteko, kirola egiteko eta abarretako.

Atzeratuak, neskak eta mutilak elkarrekin, hamabiko taldetan bizi dira. Etxean hiru logela, egongela, jangela eta komunak dituzte. Baina bi zaindari egoten dira beti beraiekin. Zaindari hauek gurasoen lana betetzen dute nolabait. Izan ere, taldea familia haundi bat da atzeratuentzat.

Astean, bertan gosalduta ondoren, goizeko hamarretan egun guztirako ateratzen dira etxetik. Arratsaldeko bost eta erdiak arte, lan, ikasi eta beste zenbait gauza egiten dituzte eta bazkaldu ere etxetik kanpo bazkaltzen dute denek elkarrekin.

Asteburuetan, berriz, jai izaten dute. Gurasoek nahi badute, beren etxetara eramaten dituzte. Baina batzuk hantxe egiten dituzte asteburu gehienak. Izan ere, zenbait etxetan seme-alaba atzeretuak kanpoan luzaro bizitu ondoren, logelarik ere ez dute bertan.

Hondarribiko egoitza honetara, O.M.S.ren irizpideen arabera 35eko koefizientetik beherako gazteak biltzen dituzte. Baina alde haundiak daude berarien artean.

Gipuzkoako atzeratuen 1983.eko datuen arabera, 28% bakarrik dira hizketarako gai. Keinuen bidez hitzegiten dutenen kopurua ere antzekoa da. Agindu errazak ulertzen dituztenak 55% inguru dira; beste 45%ek ez dute batere ulertzen. Hori dela eta, harreman gutxi izaten dute elkarren artean eta baita zaindarekin ere. 33%ek bakar-bakarrik bizitzeko joera dute. Komunikaezin honek asko zailtzen du gazte horien eboluzioa.

Baina komunikazio arazoez gainera, elbarriak, epilepsia dutenak, beren kontra edo ingurukoek kontra joera agresiboa dutenak ere ugari dira.

Hala ere, Hondarribiko egoitzan bada izugarri aurreratzen duen taldetxo bat. Oraingoan hamabi dira eta elkarrekin bizi dira beren etxetxoan. Hango arduradunen ustez, laster Irungo edo inguruko herri bateko etxe partikular batean bizitzen jarriko dira.

Baina horretarako entrenatu egin behar dute. Hau da, kanpoko jendearen bizitzara ohitu behar dute. Etxeko lanak beraiek egiten dituzte: oheak egin, garbiketaz arduratu, gosaria prestatu eta abar. Astean bi aldiz mendira edo inguruko herrietara irteten dira.

Kanpoan autobusean ibiltzen, kalean ibiltzen eta beste gauza asko ikasten dute. Jatetxeetan beste edozeinek bezala bazkaltzen dute. Baina irtenaldi hauen helburua ez da beraiek bakarrik ikastea. Izan ere, bertako psikologoaren ustez, kaleko jendeak ere beraiekin harreman normalak izaten ohitu behar du.

Honelako proiektu berrizale batek sekulako langile mordoa behar du. Izan ere, zaindari ugari behar da egun osoan atzeratuen gainean egoteko. Denetara, berrogeita bederatzi zaindari daude horretarako. Horietako batzuk atzeratuen etxeetan lan egiten dute eta besteek tailerrean edo ikasgeletan.

Horrez gainera, beste sei langile ere badira: psikologoa, fisioterapeuta, medikua eta abar. Baina zerrenda hau ez da hor bukatzen. Izan ere, beraiekin harreman zuzenik ez duen jende askok lan egiten du bertan: jana, garbiketa, mantenimendua eta abar egiten. Horrelako lanak «Gureak» izeneko atzeratuen tailerreko langileek egiten dituzte.

Pertsonako kostua, beraz, izugarri handia da. Gurasoek zati txiki bat besterik ez dute ordaindu behar. Beste guztia Gipuzkoako Diputazioak hartzen du bere gain.

In HABE, 58. zenb., 27-28 or.

3.1. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

IRAKURMENA – 1

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen: zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Aukera ezazu erantzunik egokiena.

Sorterrian nahiz atzerrian, batasun bila abiatzen denak ez du sekula atarramendu onik aterako: bereizkuntza mingots eta mingarria sortuko du, berehalako batean. Ezagunegia da harako bi Aita Saindu zireneko hartan gertatu zena. Hirugarrena hautatu zutela, lehenbiziko biak desizendatu ondoren, eta hona non aurkitzen diren hiru Aita Saindurekin, lehengo biak aski ez bazituzten.

Horren gisako zerbait gertatu da, zinetan eta benetan ari naiz, hizkuntza standard bat sortu eta sartu nahi izan den lekurik gehienetan, guztietan eta edonon ez bada. Kataluniaz ari zaizkigunek ere (hobeki esan, katalanaz) berri zuzenagorik eta zehatzagorik eman behar ligukete. Eta ez dezagun ahantz gauza bat dela hizkuntza «batua» proposatzea, beste delako «batu» hori hedatzea eta bestea, berriz eta azkenik, ofizialtasuna, legeztapenaren bitartez, herri edo eskualde batean erdiestea.

Galduan irtengo dira euskalkiak, eta batak besteak baino kalte gehiago hartzen duela gainera, ezinbestean. Bai, hori ere horrela da, alde batetik bederen. Ez dut uste, ordea, inor euskalkien etsai denik, are guttiago euskalkiak akabatzearen dabilenik. Behar duten lekuaz bada hemen mintzatuko denik eta zer esango duen jakin gabe ere, ontzat hartuko nituzke orain bertan bere iritziak. Euskalkiak, bestalde, Villasantek ederki arestian erakutsi duenaren arabera, ez dira inoren «amaren hizkuntza». Batuak dira, nolanahi ere, goraka dabiltzanean bederen eta ez beheraka, standard bihurtuak zenbait erabilera eta usariotarako.

K. MITXELENA, Euskera, XXIV, (1978-2) 470-471 orr.

1. **«Sorterrian nahiz atzerrian» esaterakoan**
 - a) dela aberrian dela erbestean esan nahi du.
 - b) jaioterrian nahiz auzategian esan nahi du.
 - c) auzoan edo alboko herrian esan nahi du.
 - d) bai jaioterrian bai eskualdean esan nahi du.
2. **«Ez du atarramendu onik aterako» zera da testu honetan:**
 - a) ez du iritzi onik aurkituko.
 - b) ez du arrakasta handirik izango.
 - c) ez du ezer lortuko.
 - d) ez du gauza garbirik aterako.
3.
 - a) Lehenbiziko bi Aita Sainduak aski ez zirelako hautatu omen zuten hirugarrena.
 - b) Lehenbiziko bi Aita Sainduak izenik ez zutelako hautatu omen zuten hirugarrena.
 - c) Hiru Aita Sainduarekin topatu zirela, hirugarrena aukeratu zutelako.
 - d) Hiru Aita Sainduen beharrezakia ukan zutela, lehengo biak aski ez zituztelako.
4. **Batasuna dela ta, lekuri gehienetan**
 - a) Ezinbesteko bereizketa larria dakar elebidunentzat.
 - b) Zatiketak gertatzen omen dira, batasun eredu garbirik ez dagoelako.
 - c) Gertaera mingarria ezezik zatiketarako bide suertatzen omen.
 - d) Mingarria eta mingotsa izan ezean aberatsa gerta dakiokela herri bakoitzari.
5. **Hizkuntza «batua» proposatzea, «batu» hori hedatzea eta berorren ofizialtasuna**
 - a) Lehen bait lehen bete beharreko hiru pausu omen dira.
 - b) Legeztapenaren bitartez egiten dela usuenik.
 - c) hiru urrats desberdin omen dira.
 - d) Erdiestea erraza omen da, baina poliki egin beharrekoa.
6. **Mitxelenaren ustez**
 - a) Euskara batua dela ta, euskalkiek zerbait galduko dute beti derrigorrez.
 - b) Euskalkiek ez dute ezer galduko, euskara «standard»a bideratzen doan neurrian haiek ere sendotu egingo baitira.
 - c) Batez ere «ama hizkuntza» bizkaiera dutenek jasan beharko dute diferentziaketarik handiena.
 - d) Euskaldun batzuek besteek baino min handiago hartuko dute euskara batuarekin, ezinbestean.
7.
 - a) Euskalkien etsai asko omen dago eta hauek suntsitzearen dabilela asko.
 - b) Ez da inor euskalkien etsai, ezta ere haiek suntsitu nahian dabilenik.

- c) Inor ez da arduratzen euskalkiak zuzpertzzen, are guttiago hauek indartzen.
- d) Euskalkiek ez dute etsairik, are guttiago akabatzeko arriskurik.

8. Zein ez dator bat Villasanteren iritziarekin:

- a) Euskalki bakoitza ez da gizabanakoaren «ama hizkuntza».
- b) Euskalkiak, usuenik behintzat, ez dira batuak bilakatu.
- c) Euskalkiak, goraka dabiltzanean, batuak dira, nolanahi ere.
- d) Euskalkiak, erabilera eta usuario zenbaitetan, batuak dira.

9. Mitxelena, pasarte honetan

- a) Gogorki mintzo da euskara batu edo «standard»aren aurka dihardutenez.
- b) Euskara batua, nolanahi ere, euskalkien gainetik ezarri nahi dutenen kontra ari da ezinbestean.
- c) Euskalkiak guttietsi eta euskara «batu» hori hedatu eta legeztatu nahi dutenen aurka ari da besteak beste.
- d) Lehen momentuan, euskara batua eta euskalkien artean sor daitezkeen gatazkez mintzo da.

10.

- a) Lagunartean eta haserreturik esandako hitzak dirudite honakook.
- b) Eleberri moderno batetako pasarteak dirudi.
- c) Euskara baturati buruzko liburu batetako hitzak dirudite honakook.
- d) Batzar batetan egin hitzaldian esandako hitzak dirudite honakook.

4.2. ESKUTITZAK

ESKUTITZA

Emandako datuekin eskutitza osa ezazu. Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu. Eskutitz itxura emaiozu idatziari (fetxa, agurra, amaiera, etab.).

1. Orain hiru urte etxe-bizitza erosteko 1.500.000.- pezetatako mailegua eman zizun Aurrezki Kutxak. Harrezkero atzeratu gabe ordaindu duzu zorraren hiruhilabeteko kuota. Datorren hilean tokatzen zaizu hurrengo kuota ordaintzea baina familian arazo ekonomiko larriren bat sortu da eta dirurik gabe, ezin ordainduz gertatzen zara.

Idatz ezazu eskutitz bat Aurrezki Kutxara ezin ordainduaren arrazoiak argi adieraziz eta ordainketaren atzerapen bat eskatuz.

2. Zure auzoan, etxe, auto eta abarretan, lapurreta ugari izan da azken boladan. Udaltzainek badakite lapurreton berri. Areago oraindik, ezagutzen dituzte lapurrak. Baina zure ustez ez dute asko egiten. Gutxitan hurbiltzen dira auzora. Tarteka-marteka, pasadatxo arin bat besterik ez dute egiten autoz. Zergatik ote?

Idatz iezaiozu herriko alkateari arazoa adieraziz, udaltzainen jokabidea salatuz eta arrazoinduz, eta irtenbideak proposatuz.

3. Atzoko egunkarian Eibarko «Barrendiola» enpresarako salmenta sailean lanpostu bat betetzeko deia edo iragarkia ikusi zenuen. Idatz ezazu lantegi horretara lanpostua eskatuz. Zeure buruaren aurkezpena egin behar duzu; burutu dituzun ikasketen eta ezagupideen berri eman, lanean izan duzun esperientzia azaldu; aurkezten dituzun dokumentuak espezifikatu; etab.

4. Berriki sortua duzuen Gazte Elkarte baten izenean, Aurrezki Kutxa batetako Zuzendari jaunari idazten diozu:
- Euskal jaialdi bat antolatu nahi duzuela adieraziz
 - helburua dirua lortzea da (adierazi zertarako)
 - iragarkiak ordain diezazkizueten eskatuz
5. EGA azterketa dela ta, Gipuzkoako arduradunari eskutitz bat idazten diozu, azken azterketan «Gutxiegi» eman baitizute:
- ez zaude ados nota horrekin
 - azterketa ikusi nahi zenuke
 - beste hainbat iritzi ere luzatzen dituzu
6. Demagun zure herriko Kultur Elkarte batetako idazkaria zarela. Kultur Elkarte honek Txirrindulari karrera bat antolatzen du aurtengoan ere. Kirol saio honen finantzaketa iturria herriko komertzio eta tabernetatik dator, neurri haundi batetan, ordainez komertzioen izenak iragarkietan agertzen direlarik.
- Idatz ezazu dendariei bidaliko zaien eskutitz hori, antolakizunaz zehaztasun ugarienak emanez eta diru-laguntza eskatuz.
7. Azken oporraldietan ajentzia batek antolaturiko bidaia bat egin duzu. Bidaia osoan zehar ajentziak eskaintzen zituen zerbitzuak ez dira bete edo gaizki bete dira. Horrela, hotel motak, alde batetik besterako bidaiak, informazioa eta beste hainbat zerbitzu eskasak izan dira batzuetan eta besteetan zerbitzu falta nabarmena izan da.
- Idatz iezaiozu Ajentziako Arduradunari hutsune guzti horiek adieraziz eta zure kexaren arrazoiak aipatuz.
8. Etxerako hozkailu bat erosi nahi duzu. «Kixmi» etxelektragailu dendaren ugazabari idazten diozu informazioa eskatuz. E-202 gama-ko hozkailua duzu atseginena eta beronen datu eta ezaugarri teknikoak jakin nahi zenituzke. Prezioak eta ordainketarako moduak ezagutzea ere interesatzen zaizu. Osa ezazu eskutitza beste zenbait jakingarri erantsiz.
9. Etxeko sukaldea berriztatu zenuten. Atzo jaso zenuen igeltseroaren faktura. Ez zaude ados fakturarekin, izan ere, lanean eman zituzten baino egun gehiago ageri dira eta lanean ihardun zuten baino igeltsero gehiago aipatzen. Idatz iezaiozu faktura itzuliaz eta berriaz aztertzeke eskatuz.

10. Zeure herrian bertsolari jaialdiak antolatzen dituen Elkartearen lehendakari zarenez eta herriko festak gainean direla-ta, Amurizari eskutitz bat idatzi behar diozu, besteak beste, honako gai hauetaz ere mintzatzen zatzaizkiolarik:

- jaialdirako gomita.
- beste hainbat bertsolarirekin ere berak egin dezala tratua.
- diru kontuak.
- gai-jartzailea.
- etab...

11. Argia aldizkarira idazten duzu harpidetza egiteko asmoz. Besteak beste, honako puntuok ere tratatu behar dituzu:

- noizdanik ezagutzen duzun Argia astekaria.
- zergatik egiten zaren harpidedun.
- batez ere zein atal duzun atseginen.
- harpidetza kostuaz ere hitzeginez.
- zein eratara ordainduko zenukeen.
- etab...

12. Orain dela gutxi etxebizitzaz aldatu zara. Zure etxeko zuzenbidea aldatu dela eta, idatz iezaiozu «Jakin» aldizkariaren zuzendariari aldaketa horren berri emanaz, eta aurrerantzean aldizkaria zuzenbide berrira bidaltzeko eskatuz. Eska iezaiozu baita ere iritsi ez zaizkizun bi ale bidaltzeko.

13. Seme (edo alaba) bat izan berri duzuela-ta, herriko Parroko jaunari idazten diozu, besteak beste, honako gaiok ere tratatzen dituzula:

- semea (edo alaba) bataiatu nahi duzuela.
- zergatik bataiatu nahi duzuen.
- zein egunetan nahiko zenuketen bataioa.
- elizkizuna euskaraz izatea nahi zenuketela.
- etab...

14. «Zuretzat ez dago lanik ikastetxe honetan, zu oso atzerakoia zara». Honela erantzun dio ikastetxe zuzendariak, iragarki batean irakurri ondoren, lan bila joan zaion irakasle bati.

Idatz ezazu egunkari batera gertakizun hori salatuz, antzekoak azalduz; izan ere, ez da agian kasu bakarra izango.

4.3. ESALDIAK BERRIDATZI

ESALDIAK BERRIDATZI – 1

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez espresatu behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan → *etorri* ...takoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz.

Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

Etxetik irten bezain
laster euria hasi zuen

1. Hala ere ia ezinezkoa zen, bertsozalerik gazteenetan ere, haren entzuterik ez zuenik aurkitzea.

..... nekez
.....

-
2. Bertsozale guztiek jakingo dute Billabonakoa.

Ez
.....

3. Nekez bil daitezke pertsona batengana hark zituen hainbat dohain gure bertsolari mundu erdi-marjinatu horretan kategoriz ibiltzeko.
..... erraza
.....
.....
-
4. Gure herriaren hizkuntza, guziz ez bada ere, bere jatortasunean ezagutzeko lan baliotsuak direla uste dut.
.....
..... ..koan
-
5. Inork egin nahi izanez gero uste dut ez dagoela dena egina bertsolari horren emaitzak biltzen.
..... ba... ..
.....
-
6. Aspaldiko gertaera ilunen antzera ahoz aho badabiltza ere, baserritarak badaki esames batzu eta beste bereizten.
.....
..... arren
-
7. Askotan lapurreta aitzakitzat hartzen badute ere, helburu nagusia ez da hori.
.....
..... ..rik
-
8. Ipui hauek festa giro arin eta samurrez ez dute goresten lapurreta bera. Buru argiko gizon batzuren trebetasun eta dohain aparta goresten dute.
.....
..... ..na
..... baino
-
9. Bapatean lasterka hasi zen mutila eta tximista bezala joan zen ate aldera.
..... ..ari
.....
-
10. «Zeuk ikusi duzu, sukaldeko losazpian sartu dut», erantzun zion neska gazteak bere ama zela pentsatuz.
..... nola
..... uste
-

11. Guk baino behar handiagoa du lapurrak. Jainkoak lagun dezala.

.....
..... ..ari.

12. Mihi arinek diotenez auzoko Patxi bihotz txarreko gizona da. Patxi ez da hain bihotz txarreko gizona.

..... bezain

13. Nahiz ez zekien zertarako nahi zuen emakume-jantzia, gizonak laguna sukaldara sar arazi eta eman zion emaztearen soineko bat.

..... ere

14. Ondo iruditu zitzaion hori etxeko nagusiari eta ohera sartu zen momentuan bertan makilaz jo zuen buruan morroiak.

..... batera

15. Ferminen burukoaren azala bete zuen urrez, kutxatilarekin inork ez ikusteagatik kalean.

..... kalean

16. Hainbeste ordu eta izerdi eman ondoren merezi du lanari ekitea.

..... ekin

17. Beranduegi zen etxera itzuli nahi zuela esateko, izan ere gizon beldurtizat hartuko zuen bestea.

..... bait

18. Sendagilearengana itzuli zen momentuan utzi zizkion jantziak eta zaldia.

..... tzeaz

19. Zu bezala gau pasa hemen gelditu zen lotsagabe batek ohea zikindu zidan eta hezur eta mamiak sutan gorritu nizkion.

..... ..ez

-
20. Zigortu ere gupidarik gabe zigortu zuen lapurra; beretzat, hala ere, ez zen aski.

..... ..arren

4.4. HITZAK ASMATU

HITZAK ASMATU – 1

Osa itzazu perpausok atzizkidun hitz bat (hitz eratorri bat) erabiliz. Hona hemen eredu bat:

0. *Gizakiaren buruak ahalmen handia du. Nor ote da aparatu berri honen asmategaila.*

Kontuz: hitzek behar bezala deklinaturik joan behar dute. Erdalkeria nabarmenik ez da onartuko.

1. Agustina de Aragón oso emakume.....omen zen, eta kemen horri zor omen dio bere izena gure egunetara iritsi izana.
2. Zoritzarrez, giza eskubideen.....munduko lurralde askotan gertatzen da.
3. Oso gizon.....zen, baina zenbait mehatxuren ondorioz, borrokarako gogoak joan zaizkio.
4. Gehiegi erretzea.....da edonorentzat.
5. Zure irrinoak duen.....ez du beste inorenak.
6. Zenbaiten iritziz, gutxienez....., lagun urkoari bizia kendu diotenez, heriotz zigorrak existitu beharko luke.
7. Garai batetan tipikoa zen osaba.....bat Ameriketara izatea. Hark utziko zuen dirua familia osoaren ahotan ibili ohi zen.
8. Denbora.....dela esaten da, ohartzen garenako ihes egiten bait digu.
9.dagokie legeak egitea.
10.eder bat babarrun jan ondoren bapo gelditu ohi gara.
11.guztion artean salbatuko dugu aberria.
12. Langabeziari buruzko estatistiken.....ez dira bat ere baikorrak.
13. Nobela honen.....bost orrialdetan egiteko agindu digute.
14. Gizon horrek.....handia omen du lantegian: 25 urte besterik ez du eta dagoeneko zuzendariak puntu garrantzitsu guztiak berari kontsultatzen dizkio.
15. Pelikularen.....galdu nuen, eta gero ez nuen ezer ulertzerik lortu.
16. Gaurregun.....oso tresna praktikoa da. Aste osoko erosketak egin ditzakezu, eta bertan jakiek usteldu gabe hilabetetan iraun dezakete.
17. Duen gaisotasuna.....dela esan diote eta hilabete gutxi iraungo duela.
18.gizona gaztetan baino zuhurrago bihurtzen omen da.
19.guztiekin lehen orrialdean eman zuten Andropov Sobietar Batasuneko lehendakariaren heriotzaren berri.
20.batetan milaka erle bizi ohi dira.

HITZAK ASMATU – 2

1. Abioiaren.....trenarena baino handiagoa denez, azkarrago joaten da Donostiatik Madrila abioiez trenez baino.
2. Tristeia da....., seme-alabek nahi ez zaituztelako, zaharrentzako etxe berezi batetan igaro beharra.
3. Serraten....., Rock kontzertuetara baino gustorago joaten naiz; karroza samarra naizelako seguru asko.
4.beharra bortizki sentitu da azken urteotan euskal erakundeetan: Lege-Biltzarrean, udaletan... Izan ere, euskaraz ez dakien jendeari itzuli egin behar zaio beste norbaitek euskaraz esaten duena.
5. Zoroak.....besterik ezin egin!
6.horretan oso haragi samurra izaten dute, nahiz garesti samarra izan.
7. Zure erabakia.....osoz har dezazun nahi dugu; beraz, ez dizugu inolako presiorik egingo.
8. Argizaria eman berria duen lurra oso.....izan ohi da.
9.eramateko joera edozein lekutako emakumeek omen dute.
10. Maria Madalena.....handia izan arren, Jesusek bekatu guztiak barkatu omen zizkion.
11.askok eta askok materialik merkeenak erabiltzen dituzte etxeak eraikitzeko. Gero, noski, noizean behin, etxe batzuk erori eta jendea hiltzen da.
12. Gure gurasoen garaian, baserrietan,.....ohizkoa izaten zen. Guztietan ez, baina baserri askotan izaten zuten morroia.
13. Euskadiko.....borrokan jarraituko da, langileen kaleratzeak eragotzi nahian.
14. Gaur egun.....sariketa ugari dugu: Irun saria, Txomin Agirre saria... Idatzi nahi duenak badu bere lanen balioa frogatzeko aukera.
15. Euskal Herria oso lurralde.....da. Hain zuzen ere, euri horrexeri zor omen diogu gure lurraldeen berdetasuna.
16. Bizidunok bost zentzu ditugu, horietatik bi.....eta ikusmena lirateke.
17. Antzinako kutxa bat.....ipintzea bururatu zaio. Eta horrela sartzen den guztiak mires dezake bere erosketa.
18. Diferentzia ederra dago ume.....tokatu edo gau osoa txintik atera gabe lo egiten duenal
19. Astoria antzokian ez da Karmelo Baldan adina.....sartzen.
20. Azterketa hau egiten denerako, 1984eko Euskal Lege-Bilzarrerakopartidu bakoitzak zenbat lagun atera dituen gauza jakina izango da.

4.5. HITZAK AUKERATU

HITZAK AUKERATU – 1

Ondoko testua arretaz irakurri. Ikusiko duzunez, zenbait hitz ezabatu dira. Azpian hutsune bakoitza betetzeko hitz batzuk aukeran dituzu. Erantzun egokiena zein den asmatu behar duzu eta amaierako zenbakien ondoan dagokion letra ipini. Galdera bakoitzeko erantzun bat bakarrik apuntatu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko: zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Margot(1)..... ez zekien bere estiloa non kokatu, nola definitu, koadroak pintatzen hasi zenean. Bellas Artes eskolako(2)..... ez zitzaion larregi miukitzen. Hango estilo(3)..... bertan irakasten zena ez zuen(4)..... horrexegatik ziren bere lanak hain ezberdinak, edo bere iritziz hala behar zuten izan. Baina pintore ona izatea nahiko(5)..... suertatzen denez, lehenbizi(6)..... berezi bat aurkitzea beharrezko izan ohi da, esaten zion Karlosek, orduko adiskiderik(7)..... Baina nolatan adierazi barruko larritasun guztiak, nola kanporatu kezka latzak, arrenkura eta egonezin denak, mihise batetan lau edo bost kolore nahastatuz? Garai hartan ordu(8).....(9)..... zituzten hizketan, eskolako kafetegian, Karlosek lasaitzen zuen, begietara(10)..... begiratuz, hogeitaz urteko gazteak beste hogeitaz bat behar zuela gutxienez, maisulanak egiten hasteko eta.

J.M. ITURRALDE,

Dudular, Donostia 1983 - 93. orr.

- | | |
|--|--|
| (1) a) zaharrak
b) pintatzaileak
c) eskultoreak
d) harginak
e) ereduak | (6) a) senargai
b) koadro
c) estilo
d) izakera
e) nahi |
| (2) a) zuzendaria
b) bazkaria
c) eguraldia
d) giroa
e) lagunartea | (7) a) mukitsuenak
b) minenak
c) zatarrenak
d) zaharrenak
e) finenak |
| (3) a) ofiziala
b) traketsa
c) zikina
d) baikorra
e) zuzena | (8) a) hilak
b) aspertuak
c) luzeak
d) biziak
e) arinak |
| (4) a) ikusten
b) gaitzesten
c) pasatzen
d) onartzen
e) sinesten | (9) a) hitzegiten
b) ematen
c) eramaten
d) egiten
e) egoten |
| (5) a) nardagarria
b) arina
c) polita
d) zaila
e) ausarta | (10) a) oker
b) poliki
c) zakarki
d) zeharka
e) tinko |

4.6. SINONIMOAK EMAN

SINONIMOAK EMAN – 1

Ondoko testu honetan zenbait hitz markatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak asmatu behar dituzu, beti ere testuingurua errespetatuz eta bukaera gramatikalak gorderik.

Eredua: eta eman zion lagunari → *adiskideari*

Harkaitz izugarri baten azpian, itsasorainoko aldatz behera handian, huntzak igotzen duen eliza baten inguruan dago etxe zahar multzoa, porturainoko karrika estuekin. Itsaslapurren gordeleku hartaraino ez dago ez trenbiderik ez autoentzako kaminorik, mandoz eta oinez ibili ohi dira hango kontrabandistak, eta ni ere oinez abiatu behar izan naiz, ene nagusien aginduz.

Kalatxoriak lehorrean barrura sartzea ekaitzaren seinalea da, bada aspaldian ukan ditut gainean, itsasertzera ailegatu orduko.

Eta Kantauri itsasoa soegin dudanerako trumoia gainean dut, itzaltsu eta zelati dator mendi gain eta uhain gainak ilunduaz.

Ilunabarrean, korrika abiatu naiz karrika hutsetan behera, harlausa zikinetan irristatuaz. Portu aurrean ostatu tipi eta bakar bat dagoela eta han marinel zahar bat aurkituko nuela esan zidaten nagusiek, eta harentzat da nere enkargua.

Herri barrenera iristean, kaiaren aurrean, kristalezko leihoak dituen ostatura sartu naiz, ostatu zahar eta ilun batetara. Zurezko mahai dastatu batetan bakarrik eseria, bilatu dut gizona, bizar zuri eta azal zimurtua. Ez da hona arrotzik usu sartzen, seguruasko, ezen berehala ezagutu nau, eta bere mahaian eseritzera gonbidatu.

– Ekaitza dakarrela diote –esan dit begietara soeginez–. Goiko muinotik ikusi duzu, ez?

– Bai, korrika etorri behar izan naiz– erantzun diot.

– Ekaitz beltza –dio.

Tabernariak kriseilua izeki du, eta zaharraren begi ilunak, orain urdin nabarrak iruditu zaizkit. Ekaitz handia dakar, seguruasko.

Itsasora irtendako marinelen emazteak leihoetara azaltzen dira, alboan dugun kristalak ikusten uzten duenez, ardura aurpegietan azaltzen dira.

Itsasoa, berriz, goibel eta aztoraturik somatzen da, eta ez da bere azal zimurtu eta ilunean marinelik ageri.

Beira lodiko basotan ekarri du tabernariak ginebra marinela zaharrentzat eta ardau beltza niretzat. Ene lagunak eskuan hartu edalontzia eta eragiten du bortizki.

– Itsasoa bengadore batek eraginiko basoa da –dio.

Mahaira erori dira ginebra zipriztina batzu. Horditurik ote dagoen pentsatu dut, baina beste zerbait dago bere begi urdinen dizdiran.

Gauerako aloiamendurik duen galdetu diot tabernariari eta baietz erantzun du, gaur behintzat ez dut maindire lehorrik izanen ote dudan zalantzarik.

J. SARRIONAINDIA
«Marinel Zaharra» *Narrazioak*, Donostia 1983

Ega04

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Zeri buruz hitz egiteko deitu dituzte bi gazte hauek?
 - a) "Arrakasta"ri buruz hitz egiteko.
 - b) Gazteei buruz hitz egiteko.
 - c) Ikasketei buruz hitz egiteko.
2. Nor da Iban Garate?
 - a) Lehen aktorea zen eta orain ikaslea da.
 - b) Aurkezlea, aktorea eta ikaslea.
 - c) Lehen aktorea eta aurkezlea; orain, ikaslea.
3. Sustrai Colinak etorkizunaz zer dio?
 - a) Bertsolari izaten jarraitzeko asmoa du.
 - b) Abokatu izango dela uste du.
 - c) Ez du, oraingoz, ideia argirik.
4. Ibanentzat, zer da arrakasta?
 - a) Bere kasuan, neurtzeko zaila den zerbait.
 - b) Jendeak duen ustea besterik ez da.
 - c) Nekez lortu eta erraz desagertzen den zerbait.
5. Sustrai Colinarentzat, zer da arrakasta?
 - a) Arrakasta, bertsolaritzan, egunen kontua da.
 - b) Existitzen ez den zerbait.
 - c) Norberari atsegin zaionean pozik aritzea.
6. Jende askoren ustez, telebistak ematen duen gauzarik hoberena zera da:
 - a) Fama, arrakasta, ezaguna izateko ematen duen aukera.
 - b) Fama eta diru erraza lortzeko aukera.
 - c) Lankideak, adiskideak, lagunak egiteko ematen duen aukera.

BIGARREN ATALA

7. Komunikabideek kritikatzeko duten aukerari buruz, zer diote?
 - a) Euren lana hori dela.
 - b) Euren iritzia ez duela beste gazte batzuenak baino gehiago balio.
 - c) Kritikak egiteko zaletasun handia dutela.
8. Gazte hauek komunikabideetan sarri agertzen dira eta iritzia ematen dituzte. Atsegin dute?
 - a) Ez, ez dute batere gustuko.
 - b) Alde batetik, bai; bestetik, ordea, ardura ere handiagoa da.
 - c) Nahiago lukete iritzirik ez eman.

9. Anonimo izateaz, zer dio Iban Garatek?

- a) Ez dagoela eskaparatean egoteko prest.
- b) Nahiago duela ezaguna izatea.
- c) Lan atsegina duenez, eskaparatean agertzea beste erremediorik ez duela.

10. Gazteak inork baino errazago ditu gauzak?

- a) Besteek baino lan gehiago eginez gero, lor daiteke zerbait.
- b) Gazte ikasia bazara bai.
- c) Ez da ezer opartzen, baina errazagoa da.

11. Gazte izateak zenbait aukera ematen ditu?

- a) Lehen pausoetan bai; gerora, ordea, ez.
- b) Itxura ona duzun bitartean, bai.
- c) Aukera hoberenak gazteentzat izan ohi dira gure gizartean.

HIRUGARREN ATALA

12. Gazteek pentsatzen ez dakitela esaten da. Zer uste dute?

- a) Ez dela egia; badakitela pentsatzen.
- b) Horrela dela; unibertsitatearen utzikeriaren ondorio dela.
- c) Egia dela; klase magistralek ez dutela batere laguntzen.

13. Irakasleei buruz, zer diote?

- a) Saiatu, saiitzen direla baina gazteak oso ezberdinak direla.
- b) Irakasle mota asko dagoela.
- c) Gehienek apunteak irakurtzen dituztela eta kito.

14. Diruari, lehen eta orain, balio bera ematen zaio?

- a) Gaur egun oso erraz lor daiteke.
- b) Dirua, lehen eta orain, gazteen gogoko da.
- c) Lehen ezberdina zen, oso nekez lortzen baitzen.

15. Oraingo gazteak lehenagokoak baino buruarinagoak dira?

- a) Ez, inoiz baino zentzudunagoak dira.
- b) Gazteak, lehen eta orain, antzekoak.
- c) Bai, buruarinagoak dira gaur egungoak.

16. Erantzukizunak hartzeko gai dira gaur egungo gazteak?

- a) Bai, gazteek badakite gauzak arduraz egiten.
- b) Erantzukizuna kulturaren eta bertsolaritzan hartzen dute.
- c) Ez, nahiko axolagabeak dira.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

17. Norbaitek espero ez duguna esaten duenean, zein erantzun da egokiena?

- a) Bai, jauna!
- b) Hara bestea!
- c) Sekula ez!
- d) Bejondeizula!

18. *Ez nuke nahi zeu ere triste nire gaixotasunagatik.*
Zein dago gaizki?

- a) jartzerik
- b) jar zaitezen
- c) jartzea
- d) jar zaitezenik

19. Nola esaten zaio hotzarekiko oso sentibera den pertsonari?

- a) Hotzikara.
- b) Hozkirria.
- c) Hozbera.
- d) Laiotza.

20. *Zuek Kepari zorrak barka ematen dizuet diru hau.*

- a) diezaiozuen
- b) diezaiezuen
- c) diezazkiozuen
- d) diezazkiezuen

1. **Hauetako zein ez da ipuin baten hasiera?**

- a) Behin batean...
- b) Bazen behin...
- c) Antzina ez dela...
- d) Kontuak kontu...

2. **Lagunak hitz eta pitz ari ziren. Bestela esanda:**

- a) Hitz egin nahi baina ezin.
- b) Berba eta berba.
- c) Ahoa bete hortzekin.
- d) Hitza eskatuz.

3. **Liburua irakurri eta etxetik irten nintzen. Beste era batera:**

- a) Liburua irakurritakoan etxetik irten nintzen.
- b) Liburua irakurtzerakoan etxetik irten nintzen.
- c) Liburua irakurritz gero etxetik irten nintzen.
- d) Liburua irakurri ahala etxetik irten nintzen.

4. **Zein bikote dago gaizki?**

- a) Arrautzak irabiatu.
- b) Esnea xehatu.
- c) Kafea eho.
- d) Laranja zuritu.

25. *Erakunde horrek laguntza eskaintzen du premiazkoa den tokietan, osasun laguntza...*

- a) hala nola.
- b) izan ere.
- c) bereziki.
- d) azkenik.

26. dago gure gazte sasoia!

- a) Lekutan
- b) Gaztetan
- c) Umetan
- d) Antzina

27. *Informatika irabazi ezineko erronka da, batez ere adin batetik gorako langileentzat. Beste era batera esanda:*

- a) Informatikaren borroka ezin dute galdu halako goi maila duten langileek.
- b) Langile zaharrek nekez joko diete erronka informatikak dakartzan irabaziei.
- c) Adineko langileentzat ezinezkoa da irabazirik ateratzea informatikaren erabileratik.
- d) Adinean sartuta dauden langileentzat batez ere, informatika erabiltzen ikastea oso zaila edo ia ezinezkoa da.

28. *Aurreko batean, laban egin eta erori nintzen.*

- a) ahuspez
- b) atzekoz aurrera
- c) bizkar ematen
- d) muturrez gora

29. *Ez dizut onartuko oparia, non eta ez didazun zin egiten ez duzula lapurtu. Bestela esanda: Ez dizut onartuko oparia...*

- a) ez duzula lapurtu zin egin ezean.
- b) ez duzula lapurtu zin egin arren.
- c) ez duzula lapurtu zin eginda ere.
- d) non lapurtu duzun esaten ez badidazu.

30. *Egun batzuk baino ez dira falta oporretarako, eta langileok...*

- a) sutan gaude.
- b) esne mamitan gaude.
- c) irrikan gaude.
- d) ketan gaude.

31. Zein dago ondo?

- a) Iztuetaren Ez Dirlako Aketsak liburua plazaratuko du Alberdania Argitaletxeak Abenduaren 4rako.
- b) Iztuetaren "Ez dirlako aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak abenduaren 4rako.
- c) Iztuetaren "Ez Dirlako Aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak Abenduaren 4erako.
- d) Iztuetaren "Ez dirlako aketsak" liburua plazaratuko du Alberdania argitaletxeak abenduaren 4erako.

32. Multzoetako batean ezaugarri desberdineko hitz bat dago. Zeinetan?

- a) Txerrikume, moxal, bildots, txahal.
- b) Arte, lizar, haritz, pago.
- c) Elkarriketa, solasaldia, berriketa, oigeta.
- d) Bildu, metatu, pilatu, batu.

33. *Utikan* esan dizu irakasleak. Zer adierazi nahi izan dizu?

- a) Lanean hasteko.
- b) Zutik jartzeko.
- c) Berarengana joateko.
- d) Alde egiteko.

34. Zein da zuzena?

- a) Hemendik alde egitera behartu didate.
- b) Gero geratzen gara eta esaten dizut.
- c) Etortzen zarete gurekin igandeko kontzertura?
- d) Ikaragarri lagundu diguzue!

35. Euskara batuan zein dago zuzen idatzita?

- a) Aberastuez gero.
- b) Aberastuz gero.
- c) Honez gero.
- d) Bostak ezgero.

36. *Autobus geltokian zegoela, auto batek harrapatu du gure auzoko lagun bat. Aukeratu erantzun egokiena.*

- a) Zoritxar hori!
- b) Halako zoritxarra!
- c) Zoritxarra halakoa!
- d) Hori zoritxarra!

37. *Honek guztiak, talde naziekiko morboarekin batera, ikusmina sortzen du inozo askorengan. Hau da:*

- a) Honek eta talde nazien aldeko jarrerak ikusmina eragiten die inozo askori.
- b) Honegatik eta talde naziek pizten duten morboagatik ikusmina sentitzen dute inozo askok.
- c) Honi buruzko ikusmina dute inozo askok, talde nazietako morboaren ondorioz.
- d) Honi eta talde naziek eragiten duten beldurrari bota behar zaio inozo askoren ikusminaren errua.

38. *Ikasleak izango dira ekitaldiak antolatzeaz arduratuko...*

- a) duenak.
- b) dutenak.
- c) direnak.
- d) direla.

39. Arroparen bat garbitzean txikiago edo laburrago geratzean esaten da:

- a) Urak hartu du.
- b) Urtu egin da.
- c) Eman egin du.
- d) Melatu egin da.

40. Zein ez da zuzena?

- a) Hizkuntz gaitasuna, ekonomi teoria.
- b) Hizkuntz-gaitasuna, ekonomi-teoria.
- c) Hizkuntza gaitasuna, ekonomia teoria.
- d) Hizkuntza-gaitasuna, ekonomia-teoria.

41. *Euskaldun fededun* dio esaerak. Zer esan nahi du azpimarratutako hitzak?

- a) Sinestuna.
- b) Apaiza.
- c) Gotzaina.
- d) Meزامutila.

42. Aukeratu jarraipen egokia. *Arrantzaleek izurdea Izaro inguruan ikusi zuten.*

- a) Marrazoa baita ere han ikusi zuten.
- b) Marrazoa ere bai han ikusi zuten.
- c) Marrazoa ere han ikusi zuten.
- d) Ere bai han ikusi zuten marrazoa.

43. *Tripa zorriak* edukiz gero, zer duzu?

- a) Gosea.
- b) Egardia.
- c) Beherakoa.
- d) Bihotzerrea.

44. *Ikusten zaila denari esaten zaio. Hau da:*

- a) ikusgaitza
- b) ikustezina
- c) ikusgarria
- d) ikuskizuna

45. *Zein dago gaizki?*

- a) Hobe duzue aurrera joaten utz nazazuen.
- b) Saiatuko naiz zure guraria bete dadin.
- c) Eskerrak bera konturatu ez delari!
- d) Beldur naiz zerbait txarra gertatu ez ote zaion.

46. *Hori da ume mizkina, hori! Baliokidea aukeratu.*

- a) Denetarik nahi du.
- b) Ez da batere jatuna.
- c) Beti negarrez ari da.
- d) Berritsua da.

47. *Aukeratu zuzena. Zer ordu da?*

- a) Seiak eta erdiak.
- b) Sei eta erdiak.
- c) Seiak eta erdi.
- d) Seirak eta erdi.

48. *Ezagun batek gurasoen osasunaz galdetu dizu. Zer erantzungo diozu?*

- a) Firin-farin.
- b) Ustekabean!
- c) Hainbestean!
- d) Hala-nola!

49. *Urepelen omenaldia egiten ari hil zen Xalbador bertsolaria.*

- a) zizkiotelarik
- b) zitzaizkiotelarik
- c) ziotelarik
- d) zitzaizkiolarik

50. *Aurtengo aurrekontua iazkoa baino handixeagoa izan da. Hurrengoetatik zein da esanahi berekoa?*

- a) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean handia da.
- b) Aurtengo aurrekontua iazkoaren parekoa izan da.
- c) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean zertxobait handiagoa izan da.
- d) Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean oso handia izan da.

51. *Zer esango zenioke afaltzera datorrenari?*

- a) Kontuz platerarekin, beroa dagoela!
- b) Kontuz platerarekin, beroa dagoelako!
- c) Kontuz platerarekin, beroa dago eta!
- d) Kontuz platerarekin, bero dagoela!

52. *Euskara batuan, zein dago zuzen?*

- a) Trenak lurpetik doazte inguru honetan.
- b) Arazo guzti hoiek aipatu nizkion nagusiari.
- c) Uste dut piskat haserre daudela gurekin.
- d) Bostehun euroko motorra erosiko diote Aneri.

53. *Bihotzeko arazoak omen zituen. Egun batean ezulaldi handi bat izan zuen eta...*

- a) ziplo geratu zen bertan.
- b) danba hasi zen bat-batean laguntza eske.
- c) tipi-tapa lurrean etzan eta medikua eskatu zuen.
- d) brast eskatu zuen apaiza.

54. *Asteburuetan ez omen da mendira beste inora joaten. Hau da:*

- a) Diotenez, asteburuetan mendira baino ez da joaten.
- b) Asteburuetan edonora joaten omen da.
- c) Asteburuetan ez da joaten ez mendira, ez bestetara.
- d) Asteburuetan mendira, behintzat, ez da joaten.

55. *Zein dago gaizki?*

- a) Mirenek eta Pellok elkar agurtu dute.
- b) Elkarri ez diote ezer barkatzen.
- c) Miren eta Pello elkar joan dira.
- d) Elkarrenganako izugarritzko gorrotoa dute.

56. *Izuturik geunden. Bestela esanda:*

- a) Beldur airean geunden.
- b) Beldurrarekin airean geunden.
- c) Beldurraren airean geunden.
- d) Beldurrak airean geunden.

57. *Euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?*

- a) Gizon gaiso hura gaizki ezerita zegoen.
- b) Jezarri zaitez haltzari horren gainean.
- c) Aritz ihar horren hostoak laster jausiko dira.
- d) Hostoak jausi zaizkion haritz lehor horren ondora hurbildu da.

58. *Hurrengoetako bat gaizki dago. Zein da?*

- a) Harrobiko jokalariz osatutako taldea egin nahi du zuzendaritzak.
- b) Mutil banarekin irten ziren tabernatik Aloña eta Eider.
- c) Bost urtez Parisen izan naiz.
- d) Irailan hasiko gara ikastolan.

88. *Tontoa izan behar aukera eder horri... Esaldia bukatu.*

- a) gogor ekiteko.
- b) bizkar emateko.
- c) baietz esateko.
- d) aurre egiteko.

89. *Nola idatzi behar da 50?*

- a) Berrogetamar.
- b) Berrogeitamar.
- c) Berrogeita hamar.
- d) Berrogei eta hamar.

90. *Bada, zaharrak berri. Zein galderaren erantzuna da?*

- a) Zer berri?
- b) Zenbat urte dituzu?
- c) Zelan bizi zara?
- d) Ezer berririk erosi al duzu aspaldion?

91. *lasai, ez da berandu eta!*

- a) Ibil gaitezen
- b) Goaz
- c) Gabiltza
- d) Joaten gara

92. *Bungeren ustez, nabari da, gizakiak ez dira bereizi behar ez arrazagatik, ez erlijioagatik, ez beste edozergatik. Hots:*

- a) Bungeren arabera, zalantzakoa da gizakiak arrazaren, erlijioaren edo beste zerbaiten arabera baztertu behar ote diren.
- b) Bungek aholkatzen du gizakien artean bazterketarik ez egiteko, ez arrazagatik, edo erlijioagatik eta abar.
- c) Bungek adierazten du ez arrazak, ez erlijioak, ez beste ezerk ez dituela gizakiak bereizi behar.
- d) Baliteke Bungek ez onartzea gizakien arteko inolako bereizketarik.

93. *Sinonimo bikote hauetatik bat gaizki dago. Zein da?*

- a) Otu - bururatu
- b) Lapurtu - ebatsi
- c) ikuzi - garbitu
- d) Ihardetsi - galdetu

94. *Zein da zuzena?*

- a) Txokolatezko gozokiei pattarra gehituz gero, anisa gehituta baino hobetoago daude.
- b) Tolosako abesbatza da ondoen abestu duena.
- c) Enpresa horretako lan baldintzak inoiz baino onagoak dira.
- d) Coppiren garaiari alderatuta, egungo txirrindulariek baldintza hobetoagoak dituzte.

95. *Bereak barik inorenak diren testuak ere ageri dira nobelan, multzo polita gainera. Hau da:*

- a) Nobelan tarteka dauden testu batzuk politikak dira.
- b) Idazleak asmatutako testuak baino ez dira ageri nobelan.
- c) Besteren lanen batzuk ere badira nobelan.
- d) Berak eta bestelako idazle batzuek hartu dute parte.

96. *Laugarren kale neurketan euskararen erabilerak goiti egin badu ere, igoera apalduz doa. Beraz:*

- a) Erritmoa moteldu egin da.
- b) Erabilera gero eta altuagoa da.
- c) Hitzun kopuruak behera egin du.
- d) Neurketa kalekoa baino ez da izan.

97. *Eta, esan eta egin! Larru gorritan jarri zen kale erdian! Zein da jarraipen egokia?*

- a) Zorua halakoa!
- b) Ezetz izan!
- c) Baietz!
- d) Eskerrak!

98. *Duela gutxi gertatutako zerbait azaltzen hasteko:*

- a) Beste egunean...
- b) Aurreko batean...
- c) Beste egun batean...
- d) Biharamunean....

99. *Goizaldeko ordu bata izan arren, argi asko daude piztuta etxeetan.*

- a) honezkero
- b) oraingoz
- c) dagoeneko
- d) oraindik

100. *Badu horrek ateraldi bakoitzik! Bestela esanda:*

- a) Mendizale amorratua da.
- b) Oso astuna da.
- c) Oso xelebrea da.
- d) Berritsua da, sano.

OHARRA:

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.

1. 1975ean zer gertatu zitzaion Gurutze Irizar "Fatimetu"ri?
 - a) Sahararrak ezagutu zituela Tenerifen oporretan zela.
 - b) Fronte Polisarioa sortzen parte hartu zuela.
 - c) Marokoren inbasioaren ondoren, Saharara joatea erabaki zuela.
 - d) Sahararren arazoen berri izan zuela lehenengo aldiz.
2. Kanpamenduetan...
 - a) errefuxiatuen seme-alabak, Afrikan oro har ez bezala, eskolara joaten dira.
 - b) haurrak euren herrietako eskoletara joaten dira.
 - c) haur guztiak joaten dira eskolara, gainerako afrikarrak bezala.
 - d) erbestean daudenez, eskolara joatea ezinezkoa da.
3. Zer ezaugarri ditu eskolak?
 - a) Arabiera, gaztelera eta hassaniera irakasten dituzte.
 - b) Haurrentzat nahiz helduentzat da.
